


Eskolako Agenda 21 programaren ebaluazioa 2003-2006



ingurumen
hezkuntza
EDUCACIÓN
AMBIENTAL



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



ingurugela
CEIDA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN: 978-84-457-2560-3



9 788445 725603

Salneurria: 25 €

ESKOLAKO AGENDA 21 PROGRAMAREN EBALUAZIOA (2003-2006)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2007

GUTIÉRREZ BASTIDA, José Manuel

Eskolako Agenda 21 programaren ebaluazioa (2003-2006) / [egileak, Gutiérrez Bastida, José Manuel, Benito Iza, Jon, Hernández Abaitua, Ricardo]. –1. argit. –Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2007

p. ; cm.

Port. y texto contrapuesto en castellano: "Evaluación del programa Agenda 21 escolar (2003-2006)"
ISBN 978-84-457-2560-3

1. Educación ambiental-Euskadi-Evaluación. I. Benito Iza, Jon. II. Hernández Abaitua, Ricardo. III. Euskadi. Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio. IV. Título. V. Título (castellano) 504:37.012(460.15)

| | |
|--|---|
| Argitalpena: | 1.a, 2007ko apirila |
| Ale-kopurua: | 1.000 ale |
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Internet: | www.euskadi.net |
| Egileak: | Gutiérrez Bastida, José Manuel Benito Iza, Jon Hernández Abaitua, Ricardo (Aurreko ikasturteetan garatutako Eskolako Agenda 21 programaren aplikazio praktikoei buruzko proposamenak aztertzeko, ikasketa-baimena ordaindua duten irakasleak. EHAAko 94. zk., 2005eko maiatzaren 20koa) |
| Aholkularitza eta koordinazioa: | Fernández Ostolaza, M.ª Asun |
| Eldizioaren koordinazioa: | Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza |
| Azalaren diseinua: | Canaldirecto. www.canal-directo.com |
| ISBN: | 978-84-457-2560-3 |
| Lege gordaila: | BI - 1.447-07 |

ESKERRAK:

Eskerrak eman nahi dizkiegu, bereziki, Ingurugeletako kideei eta lagundu diguten gainerako guztiei

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| AURKEZPENA | 7 |
| SARRERA | 9 |
| | |
| 1. ESKOLAKO AGENDA 21 PROGRAMA | |
| 1. Eskolako Agenda 21en aurretiazkoak | 13 |
| 2. Eskolako Agenda 21 programa | 17 |
| 3. Eskolako Agenda 21 Euskal Autonomia Erkidegoan | 18 |
| | |
| 2. IKERKETAREN METODOLOGIA | |
| 1. Oinarri metodologikoa | 27 |
| 2. Ikerketaren eremua | 28 |
| 3. Ikerketaren faseak | 29 |
| 4. Ikerketaren helburuak eta adierazleak | 33 |
| 5. Ikerketaren fitxa metodologikoa | 38 |
| | |
| 3. IKERKETAREN EMAITZAK | |
| 1. EA21 programa bera | 45 |
| 2. Instituzioei begira | 51 |
| 3. Ingurugelari begira | 55 |
| 4. Eskolari begira | 58 |
| | |
| 4. IKERKETAREN ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK | |
| 1. Ondorioak | 69 |
| 2. Aurrera begirako proposamenak | 72 |

5. BALIDABIDE BIBLIOGRAFIKOAK

| | |
|---|----|
| 1. Eskolako Agenda 21 | 89 |
| 2. EAETik kanpoko esperientziak | 90 |
| 3. Bibliografia orokorra | 91 |
| 4. Tokiko Agenda 21 | 92 |
| 5. Bestelako programak | 94 |
| 6. Erakundeak | 94 |

6. ERANSKINAK

| | | |
|-----------------|---|-----|
| I. eranskina. | Eskolako Agenda 21 betetzeko konpromiso akta | 101 |
| II. eranskina. | Garapen iraunkorreko hezkuntza programak munduan | 103 |
| | 2.1. Garapen iraunkorrarekiko konpromisoa: Programa 21. | 103 |
| | 2.2. Hezkuntzaren bidea: Ingurumen Hezkuntzako (IH) programak. | 103 |
| | 2.3. Eskolen ingurumen kudeaketarako sistemak: ekoauditoreak, ekologia eskolara, eko-eskolak. | 104 |
| | 2.4. Herrian parte hartzeko tresna: Eskolako Agenda 21 | 107 |
| | 2.5. Sareak. | 117 |
| III. eranskina. | Ikerketan erabilitako tresnak | 119 |
| | 3.1. Prozedura: | 119 |
| IV. eranskina. | Laginaren kalkulua | 169 |
| | 4.1. Laginaren tamaina | 169 |
| | 4.2. Laginaren estratifikazioa. | 169 |

AURKEZPENA

Nazio Batuen Batzorde Orokorrak *Garapen Iraunkorreko Hezkuntzaren Nazio Batuen Hamarkada* izendatu zuen 2005etik 2014 bitarteko 10 urteko aldia. Izendapen horretan mundu osoko gobernuak gonbidatu zituzten garapen iraunkorrerako heziketa, euren herrietako hezkuntza arloko estrategia eta planetan sar zezaten.

Bestalde, Nazio Batuen Europako Ekonomi Batzordeak bere *Garapen Iraunkorreko Hezkuntzaren Estrategian* adierazi duenez, heziketa horrek sustatu eta indartu egiten du pertsona, talde, komunitate, erakunde eta herrialdeek garapen iraunkorraren aldeko irizpideak landu eta erabakiak hartzeko izan dezaketen gaitasuna. Pentsamoldeak aldatzen ditu eta ondorioz, gure mundua toki seguruago, osasuntsuago eta joriago izatea lortu, guztion bizi-kalitatea hobetuz. garapen iraunkorreko hezkuntzak hausnarketa kritikoa sustatu nahi du; kontzientzia eta autonomia handitu, ideia eta kontzeptu berrien azterketa eta metodo eta tresna berrien garapena ahalbidetzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan laurogeita hamarrek hamarkadan hasi ziren garapen iraunkorreko ingurumen hezkuntzako lehenengo programak: *Eskola ekologikoa, Ekologia eta eskola, Ekologia eskolan, Eskolako ekoauditoretza...* 2002an Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) jarri zen abian eta estrategia horretan *hezkuntza, prestakuntza eta gaikuntza* izenarekin, hartutako konpromisoetako bat izan zen «2006. urterako Eskolako Agenda 21 programa derrigorrezko hezkuntzako zentroyen %50ean abian jartzea eta 2012. urterako zentro guztietan.»

Eskolako Agenda 21 ikastetxeetako hezkuntza-komunitateei zuzendutako iraunkortasunerako heziketa-programa bat da, Euskal Autonomia Erkidegoan 2003-2004 ikasturteaz geroztik garatzen ari dena. Partaidetzak etengabe egin du gorantz: hasierako 41 ikastetxetik 341 ikastetxe izatera iritsi gara gaur egun; guztira, 125.000 ikasle eta 11.000 irakaslerengan du eragina.


Programaren helburua nagusiki, sentiberatzea da, hezkuntza-komunitateak euren balioak eta jokabideak aztertu eta iraunkortasunerantz hurbiltzeko bideak nola joratu hausnar dezatela; irakasteko moduak aztertu; ikastetxearen, ingurunearen eta irakatsi eta ikasteko prozesuaren gainean erabakiak hartzerakoan ikasleei protagonismoa eman; ikastetxearen eta erakundearen arteko lankidetzak sustatu, herritar aktiboak izan daitezzen sustatu, euren komunitatean parte hartu eta herritarrek parte har dezaten katalizatzaile izatea. Azken batean, XXI. mendeko hezkuntzaren erronkei aurre egingo dien ahalmen izugarriko programa da.

Hezkuntzan duen garrantziagatik, izan duen garapen-maila kontuan izanik eta Eskolako Agenda 21 Autonomia Erkidegoko derrigorrezko hezkuntzako ikastetxe guztietan abian jartzeko konpromisoa dela eta, Eskolako Agenda 21 programa ebaluatzeko beharra ikusi zen, bere indar-guneak eta ahuleziak atzeman, eta lehen horiek indartu eta bigarrenak zuzentzeko neurri egokiak har zitezten.

Argitalpen honetan aurkezten dugun lana, ikerketa zorrotz eta konplexu baten ondorioa da; bere esparruko lehena. Beraz, Eskolako Agenda 21 gure Autonomia Erkidegoan ezartzeko prozesua balioztatzeko lagungarri izateaz gain, datozen urteetarako balioko duen bide emankorra ere izango al da, oso hedatua baitago kontinente guztietan eta etengabe hazi eta hedatuz doana gainera.



JOSÉ ANTONIO CAMPOS
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua



ESTHER LARRAÑAGA GALDÓS
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailburua

SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) aspaldi hasi zen *ingurumenari buruzko, ingurumenaren gaineko eta ingurumenaren aldeko* hezkuntza lantzen eskoletan eta, azken urteetan, garapen iraunkorrerako hezkuntza lantzeari ekin zaio.

1992ko *Rio de Janeiroko Gailurraz* geroztik indartu zen garapen iraunkorrerako hezkuntzaren kontzeptua. Aipatutako Gailurrean, planetako ingurumenaren narriadura geldiarazteko estrategia gisa proposatzen da garapen iraunkorra. Halaber, aipatutako estrategia garatzeko funtsezko bitarteko gisa azpimarratzen da hezkuntza.

Ildo horretan, 2005-2014 aldirako deklarazioan, *Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamar Urtekoa*, adierazitakoarekin bat dator planetako ingurumenaren kalitatea hobetzeko egindako ahalegin handia.

EAEk *2002-2020 Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren* bidez adierazi du ingurumenarekin erlazioan etorkizunera begira egindako apustua. Programa horretan hezkuntzak ingurumenaren esparruan duen garrantzi handia azpimarratzeaz gain, 2006. urterako Eskolako Agenda 21 programa derrigorrezko hezkuntzako ikastetxeen %50era zabaltzeko konpromisoa hartu da, eta 2012rako ikastetxeen %100ek parte hartzea lortu nahi da.

Testuinguru horretan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak diruz laguntzen ditu berariaz lantzen diren iraunkortasunerako hezkuntzarako programak.

Eskolako Agenda 21 (EA21) hezkuntza-komunitate osoak (irakasle, ikasle, familia eta irakasle ez diren langileak) ikastetxeko eskola-kalitatearen eta iraunkortasunaren alde eta, bide batez, udalerriaren iraunkortasunaren garapenaren alde egiten duen lan eta ahalegin handia elkartzen dituen programa da.

Programaren helburuak asko dira, besteak beste, antolamendu-azpiegitura bat sortzeko beharra sentiaraztea eta Tokiko Agenda 21 programan parte hartzea. Helburu horien artean bereziki azpimarratu behar dira, besteak beste, inguruko ingurumenarekin eta gizartearekin erlazioz atutako alderdiak bereiztea, ezagutzea eta aukerak proposatzea, edo ikasleek ikastetxearen eta udalerriaren ingurumenaren kalitatearekin erlazioz atutako gaietan parte hartzea eta inplikatztea.

2003an martxan ipini zen EAEn EA21 programa aitzindaria. Aitzindaria Estatuan eta nazioartean zeuden ezaugarri horretako programak ere hastapenetan zeudelako. Horrek zera esan nahi du: programa martxan jartzeko ildo nagusiak, orientazioa, oinarritzko materialak eta abar, bertan sortu eta erabaki direla, eredurik ez zegoelako. Hori guztia, liburu hau irakurtzean, kontuan hartzeko erreferentzia garrantzizkoa da, eta argitalpen honek eskatu duen lana eta ahaleginagatik ere bada azpimarratzekoa.

Ikasturteik ikasturtera, *gero eta gehiago* dira programan parte hartzera animatu diren ikastetxeak. 2003-2006 epe honetan 253 ikastetxek hartu dute parte. Alde batetik, horrek esan nahi du 86.000 ikasletik gora

eta 7.000 irakasletik gora izan direla partaide, hau da, EAEko hezkuntza populazioaren herena baino gehiago. Eta, bestetik, aipatutako sail, udalerri eta eskolen arteko 200 lankidetzak-hitzarmen baino gehiago sinatu direla eta 200 bat udalbatza egin direla EAEko udaletxeetan, eskoletako eta, bereziki, ikasleen iraunkortasunerako konpromisoak eta eskakizunak plazaratzeko.

Horregatik, jadanik hiru ikasturte pasatu direlako eta gainera, beste esperientzia batzuekin konparatzeko eta kontrastatzeko oso aukera murriztak izan direlako, komenigarria ikusi da programa gazte honen bilakaera aztertzea eta ebaluazioa egitea, etorkizunera begira oso une aproposa delako alde onak zaintzeko, puntu ahulak edota hutsuneak hobetzeko eta bultzada bat emateko. Eta ebaluazio hori ikerketa baten bidez egokitu da.

Ikerketaren markoa oso konplexua izan da:

- Oinarritzko material bakar bat dago (*Iraunkortasunerako hezi. Eskolako Agenda 21: eskoletarako gida*).
- Programan parte hartzen duten eragileak era askotakoak dira (sailak, udaletxeak, laguntza teknikoa emateko ingurumen hezkuntzako enpresak, Ingurugela eta eskolak, eta horien barruko ikasleak, irakasleak, gurasoak eta langile ez irakasleak) eta haien artean sortzen diren harremanak (diru-laguntzak, prestakuntza, aholkularitza, koordinazioa, emaitzak...).
- Literatura gutxi dago mota horretako programei buruzko ikerketa egiteko, izan ere, bakar bat dago Estatuan: M.C. Conderen *Integración de la educación ambiental en los centros educativos. Ecocentros de Extremadura. Análisis de una experiencia. (Doktoretza-tesia Extremadurako Unibertsitatean)*.
- Programa iraunkortasunaz ari da; baina, iraunkortasunaren inguruan ez dago eredu garbirik.
- Eta etorkizunerako konpromisoa dauka, etengabe aurrera doan prozesu dinamiko bat da.

Ikerketa honetan ehunka dokumentu eta erreferentzia bibliografiko (ingurumen hezkuntza, Tokiko Agenda 21, nazioarteko beste esperientzia batzuk...), 750 galdetegi baino gehiago, 40 elkarrizketa eta bestelako informazioa tratatu da.

Liburu honetan aurkituko duzuna ikerketaren laburpen bat da. Irakurketa errazteko ez dira egindako mila taula eta kontuak agertzen, ezta esanguratsuak izan ez diren emaitzak ere. Material honekin, EA21 programaren marko handia (tokiko eta planeta mailako dimentsioetan), ikerketarekin lotutako emaitzak, emaitza horien interpretazioa eta, oinarri horrekin guztiarekin, aurrera begira programa hobetzeko planteatzen diren proposamenak aurkezten ditugu.

Eta hori espero dugu, lan honek emandako fruituen hazietatik landare berriak eta indartsu batzuk sortzea, iraunkortasunerako hezkuntza sendoa, alaia eta baliotsua izateko.

A hand is shown drawing a flower on a piece of paper. The drawing is done in a simple, sketchy style with dark lines. The flower has several petals and a stem. The background is a light blue gradient. The text 'ESKOLAKO AGENDA 21 PROGRAMA' is overlaid on the image in a dark blue, bold, sans-serif font.

ESKOLAKO AGENDA 21 PROGRAMA

1

1. ESKOLAKO AGENDA 21en AURRETIAZKOAK

1.1. HEZKUNTZA EKIMENA

Historian zehar, zientziaren, kulturaren eta teknologiaren aurrerapenak, oro har, gizakien onerako izan dira, baina aurrerapen horien gaur egungo aplikazioak ondorio negatiboak ere baditu planetaren ingurumenerako, bizi-kalitaterako eta gizakien biziraupenerako. «Ingurumen arazo» deitzen dena gizakien bizia garatu ahal izateko inguru biofisiko eta sozialean eta ingurumen-kalitatean kalte egiten duten egoera multzoa da. Gizakiak baliabide naturaletan neurri gabeko (eta desoreka handiko) ustiaketa burutu du, eta ez du jakin edo ez du aintzat hartu espezie gisa bizitoki duen ingurunean zer-nolako eragina duen. Hortik datoz egoera hauek.

Giza Ingurumenari buruzko Nazio Elkartuen Konferentziak (Stockholm, 1972) egin zuen ingurumen hezkuntzaren (IH hemendik aurrera) beharrari buruzko lehen pronuntziamendua. Konferentzia hartan, gure garaiko ingurumen-arazoei eta horien arrazoiei buruzko hausnarketa sakona egin zen. Aipaturiko Konferentzia horretako printzipioetako batean honako hau ezarri zen: «nahitaezkoa da ingurumenari buruzko hezkuntza eskaintzea, ingurumena —osotasun gisa hartuz— babestu eta hobetzeko erantzukizuna garatzeko».

Nazio Elkartuen Ingurumenerako Plana (PNUMA) sortu zen 1972an. Plan horren eginkizunetako bat, bereziki, ingurumenaren kudeaketan erantzukizuna duten pertsonen informazioa, hezkuntza eta gaitasuna eskaintzea zen. Gero, UNESCOk eta PNUMAk bat eginik, *Ingurumen-hezkuntzako Nazioarteko Programa* (PIEA) sortzea erabaki zuten eta programa horren lehen jarduna 1975ean antolatutako *Belgradeko Nazioarteko Mintegia* izan zen. Bertoko eztabaidak *Belgradeko Gutuna* izenez ezagutzen den dokumentuaren onepenarekin amaitu ziren, non gizateriari *garapen* kontzeptua birplantea dezan eta pertsonen beren lehentasun-eskemak berregoki ditzaten eskatzen zaien, eskema horietan ingurumenarekiko eta munduko gainerako biztanleekiko konpromisoari lekua egiteko.

1977ko *Tbilisiko* (Georgia) *Gobernu-arteko Konferentzia Belgradeko Mintegiaren* jarraipena izan zen. Konferentzia horretan gaur egungo gizartearen ingurumen-arazo nagusiak aztertu ziren eta arazo horiek konpontzeko ingurumen-hezkuntzak duen zeregina landu zen. Konferentzia horretako deklarazioa eta gomendioak nahitaezko erreferentzia bihurtu ziren hezkuntzaz arduratzen diren erakunde eta pertsonentzat, ingurumen-hezkuntzaren helburuak finkatu baitzituzten.

Tbilisin eman zitzaion ikuspegiaren arabera, ingurumena «aldi berean alderdi naturalak eta gizakien jardueretatik eratorritako alderdiak barnean hartzen dituen osotasuna da; IH ingurumenak planteatzen dituen arazo zehatzak prebenitu eta konpontzera zuzenduriko hezkuntzaren eduki eta praktikaren dimentsioa

da, diziplinarteko ikuspuntuaren eta pertsona bakoitzaren eta kolektibitate osoaren parte-hartze aktiboaren bidez».

1992. urtean Rio de Janeiro antolatu zen *Garapenari eta Ingurumenari buruzko Nazioarteko Konferentzia* zehaztu ziren ingurumenaren nariadura geldiarazteko nazioarteko ingurumen-politikarako oinarriak, hain zuzen: *21 Programa* (geroago *Agenda 21* izena hartu zuena). Ingurumen-hezkuntzaren ikuspegitik, Rio de Janeiroko Konferentziak *Ingurumen-hezkuntzari buruzko Gobernu arteko Konferentzia* (Tbilisi, 1977) egindako proposamenak hartu zituen oinarri. Dena den, Rio de Janeiroko Konferentziaz geroztik, ingurumen-hezkuntza garapen iraunkorra lortzeko bitarteko bihurtu zen.

Esanak esan, Programa 21en 36. kapituluak, A. Atalak (*Hezkuntza garapen iraunkorrera berrorientatzea*), honako hau adierazten du: «Ezin da ahaztu heziketak —irakaskuntza akademikoa barnean dela—, eta biztanleriaren kontzientziazioak eta trebakuntzak osatzen duten prozesuak ahalbidetzen duela gizakiek eta horiek osatutako gizarteek ezkutuko gaitasunak osotasunean garatzea. [...] Ingurumenerako eta garapenerako hezkuntza eraginkorra izatea nahi bada, ezinbestekoa da ingurune fisiko/biologikoaren eta ingurune sozioekonomikoaren eta giza garapenaren dinamikak kontuan hartzea (garapen espiritual sar daiteke), diziplina guztien barnean hartzea eta metodo akademikoak, ez-akademikoak eta komunikazio-bitarteko eraginkorrak erabiltzea».

*Lurraren Gailurre*ekin batera, Rio-92 *Herritarren Foro Globala* antolatu zen. Hogeita hamahiru itun onartu ziren foro hartan; horietako batean, hain zuzen, *Gizarte iraunkorra eta Erantzukizun Globala lortzeko Ingurumen-hezkuntzaren Ituna* izena duen horretan, ingurumen-hezkuntza gizartea eraldatzeko prozesuaren zati dela adierazten da. Prozesu hori ez da prozesu neutroa, politikoa baizik, eta hezkuntzak bizimodu guztien errespetuan oinarritutako ikaskuntza-prozesua izan beharko lukeela azpimarratzen du. Bildutako Gobernu Kanpoko Erakundeek hau adierazi zuten: «Ingurumen-hezkuntzak pentsamendu kritiko eta berritzailea izan behar ditu ardatz, eta gizartearen eraldaketa eta eraikuntza sustatu behar ditu, edozein une eta lekutan, era formal, ez-formal nahiz informalean. Ingurumen-hezkuntza ez da neutroa, balio jakin batzuetan hartzen du oinarri. Gizartea eraldatzeko ekintza politikoa da». Aipatutako itunak gizarte iraunkorrak eta erantzukizun globala lortzeko prestakuntzarekin erlazionatutako 16 hezkuntza-printzipio hartzen ditu barnean. Eta printzipio horien arabera, gizaki orok duen eskubide bat da hezkuntza. Pentsamendu kritiko eta berritzailea hartu behar ditu oinarrian hezkuntzak eta ikuspegi holistiko edo integral batetik lan egin, horrela lortuko baita arazo global kritikoen arazoak aztertzea eta aldaketa demokratikoak sustatzea.

Laburbilduz, 1992tik aurrera garapen iraunkorra planetako etorkizunerako funtsezko elementu gisa ulertzen da eta, hezkuntza, bestalde, garapen iraunkorra sustatzeko funtsezko bitarteko gisa.

Hamar urte geroago, *Johannesburg-2002ko Gailurra* etorri zen, eta programa hori ez zela ondo garatu egiaztatu zen baina, aldi berean, erreminta guztiz baliagarria zela adierazi zen. Afrikako hiriburu hartan ere, *Garapen Iraunkorreko Ingurumen-hezkuntzako Hamarkada* izendatu zuten 2005-2014koa, Unescoren eskutik garatuko zena.

Rioko konpromiso batzuk berreskuratuz, 2003tik aurrera WEECak (*World Environmental Education Congress / Munduko Ingurumen-hezkuntzako Kongresua*) antolatzen dira. Lehena Espinho (Portugal) herrian egin zen, bigarrena Rion (Brasil) berriro, eta hirugarrena Turinen (Italia). Hemendik aurrera bi urtean behin egingo da, eta hurrengoa, 2007an, Durbanen (Hegoafrika) izango da.

Horien helburua zera da: ingurumen-hezkuntzan eta garapen iraunkorraren alde lan egiten dutenen artean komunikazioa eta kontaktua erraztea (Unibertsitateak, erakunde publikoak eta gobernu kanpokoak, eskolak, sareak, elkarte profesionalak, ikerketa-zentroak, komunikabideak, enpresak...).

Kongresu horiek Nazio Batuen *Garapen Iraunkorreko Ingurumen-hezkuntzako Hamarkada* ere bultzatzen dute.

Aurreko nazioarteko erreferentzia guztiek, erabakiak hartzeko prozesuetan, hezkuntza ekimena oinarritzko eta funtsezko tresnatzat hartu behar dela aldarrikatzen dute; ezinbestekoa da, beraz, demokratizazioan, komuni-

tatearen ingurumenarekiko kontzientzia sustatzean, naturarekiko errespetuzko produkzio eta kontsumo era berriak eraikitzean eta abarrean.

Ingurumen-hezkuntzaren helburuetariko bat mundu iraunkorra lortzea da, bai giza alorrean, bai ingurumen alorrean, berotegi efektua, bioaniztasunaren galera, basamortutzea, gosea, injustizia, gudak, emakume eta umeen egoera, gaixotasunak eta abarren aurka borrokatzeko behar diren kontzientziarioak, abileziak eta jarrerak bultzatuz.

Euskal Autonomia Erkidegoan

Historian zehar, euskal gizarteak ingurumenarekiko jarrera sentibera izan du. Pasa den mendeko 80ko hamarkadan ingurumen-hezkuntza hasi zen EAEn: 1983an ingurumen-hezkuntzako lehenengo zentroa sortu zen, *Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroa*, hain zuzen ere (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta Bilboko Aurrezki Kutxaren arteko hitzarmen baten bidez); 1985ean Eusko Jaurlaritzako lehenengo Ingurumen Prestakuntza Zerbitzua, eta 1986an *Euskadiko Ingurumen hezkuntzako I. Jardunaldiak* egin ziren Sukarrietako zentro horretan.

1990ean *Ingurumenarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegia*, IIHII-CEIDA sortu zen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta garai hartako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumena Sailaren arteko hitzarmen baten bitartez. Handik bi urtera, *Ingurumen-hezkuntzako II. Jardunaldiak* egin ziren Bilbon.

IIHII-CEIDA ikastegiekin antolatuta, 1991tik aurrera *Lurralde-Topaketak* egiten dira, ingurumen-hezkuntzan lan egiten duten ikastetxeen artean esperientziak trukatu eta baliabideak eta harremanak zabaltzeko.

Mende berriaren hasierarekin batera, 2002an Donostian izan dira *Euskadiko Ingurumen-hezkuntzako III. Jardunaldiak*.

Orain arteko IIHII-CEIDA erakundeak 2005etik aurrera *Ingurugela* izena hartu du.

1.2. TOKIKO EKIMENA

Nazio Batuen definizioaren arabera, Agenda 21 garapen iraunkorra giza jardueraren esparru eta maila orotara zabaltzeko Ekintza Plana da. Agenda 21en 28. atalak *Agenda 21 babesteko Tokiko Agintarien Ekimenak* izena du eta hauxe dio: «[Herri-agintariak] herriarengandik gertuen dauden agintariak direnez, funtzio oso garrantzitsua dute jendea garapen iraunkorraren alde hezteko eta mobilizatzeko garaian»; eta hau ere bai: «1996rako, herrialdeetako herri-agintari gehienek beren komunitaterako Tokiko Agenda 21i buruzko galdeketa-prozesua gauzatu beharko lukete beren herrietan».

Hitzarmen horretatik abiatuta, hainbat politika eta programa garatu ziren, eta munduko milaka herri-agintari Tokiko Agenda 21en prozesuan inplikatu ziren. Prozesu horren gidaritza Europak izan du eta, bereziki, *Hiri eta Herri Iraunkorren Europako Kanpainak*. Kanpaina horrek beren udalerrien garapen iraunkorraren alde lan egiten duten 1.200 agintari inguru biltzen ditu.

Hori dela eta, 1994an gaiarekin kezkatuta zeuden Europako hainbat toki-agintaritzak *Aalborg-eko Gutuna* sinatu zuten. Horrela, Tokiko Agenda 21 garatzeko kanpaina bat jarri zen martxan (2004. urterako Europako 2.100 udalerrik baino gehiagok sinatu zuten, eta 2006an 135 euskal udalerrik sinatu dute). Ildo horretatik, ICLEI erakundeak (*International Council for Local Environmental Initiatives*) *Tokiko Agenda 21en plangintzarako Europako Gida* argitaratu du Tokiko Agenda 21 garatzen laguntzeko oinarritzko agiri gisa.

Euskal Autonomia Erkidegoan

EAERI dagokionez, *2002-2020 Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian* adierazi dira euskal gizarteak gaur egungo belaunaldien eta etorkizunean etorriko direnen bizi-kalitatea ziurtatzeko bete beharreko

ingurumen-helburuak. Aipatutako estrategiaren barnean hartutako konpromisoen artean, 2006rako 5.000 biztanletik gorako udalerriek Tokiko Agenda 21 propioa diseinatuta edukitzea aipa daiteke. Xede horrekin, honako urrats hauek eman dira:

- *Udaltalde 21* taldeak sortu ziren. Hainbat udalerrik osatutako lan-taldeak dira. Talde-lanaz baliatuz, Tokiko Agenda 21 ezartzeko ardura dute. *Udaltalde 21* proiektua Eusko Jaurlaritzak abiarazitako *Tokiko Agenda 21 Sustatzeko Programaren* barnean sartzen da, eta funtsezko helburu du euskal udalerriak ingurumenaren etengabeko hobekuntza lortzera bideratzea; xede horrekin, Tokiko Agenda 21 aurkezten da bitarteko nagusi modura. EAEn, 2006ko maiatzean, hogeita bi *Udaltalde 21* daude eta 50 udalerrik baino gehiagok parte hartzen dute.
- Geroago *Udalsarea 21* sortu zen. Udalerrietako Planak garatzen laguntzeko koordinazioa eta lankidetzaz erraztuko duen foroa izateko sortu zen *Udalsarea 21*. Besteak beste, sarera atxikitako euskal udalerrien Tokiko Agenda 21 dinamizatzeko ardura du *Udalsarea 21*ek. Udalez gain Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak —IHOBE Sozietate Publikoaren bidez—, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru-Aldundiek eta EUDEL Euskal Udalen Elkarteak osatzen dute *Udalsarea 21*. Udalak dira protagonista nagusiak (2006.eko maiatzean Tokiko Ekintza Plan propioak dituzte aipatutako udalerriz guztiek; 138 udal dira).

Azken finean, gaur egun 190 euskal udalerriz baino gehiago ari dira Tokiko Agenda 21 ezartzeko lanean.

1.3. GARAPEN IRAUNKORRERAKO INGURUMEN HEZKUNTZA

Eko-eskola/Eco-school, Eskola Berdea/Green-school, Forest-school, Model-School, Outdoor-school, Eko-zen-troak, Ingurumen Eskolen Ziuertapenak... eta Eskolako Agenda 21, guztiak garapen iraunkorrerako hezkuntzako eskola-programak dira. Gero eta gehiago dira, bai Europan bai nazioartean, eskola-kalitatea hobetzeko garatzen diren eta lan egiten duten programak eta eskolak (izen desberdinak erabiltzen dira).

Garapenerako edo etorkizun iraunkorrerako eskoletan, garapen iraunkorrerako ingurumen-hezkuntza hartzen da hezkuntza-programaren ardatz nagusitzat. Aipatutako eskoletan herritar aktiboak prestatzeko eta parte-hartzea errazteko testuingurua eskaintzen zaio hezkuntza-komunitateari eta, bereziki, ikasleei; halaber, garapen iraunkorraren alderdi sozial, ekonomiko, politiko, kultural eta naturalistikoaren konplexutasuna kontuan hartzen dute aipatutako eskolek. Hona hemen eskola horien ezaugarri nagusiak:

- Ingurumena osotasunean aztertzen eta ulertzen dute: naturala eta gizakiak sortutakoa, ingurumenaren alderdi ekologikoa, ekonomikoa, teknologikoa, soziala, legegintza, kulturala, estetikoa, eta abar.
- Ingurumen-arazoak arazo kultural eta sozial gisa ulertzen dituzte.
- Konplexutasunaren kulturen murgilduta daude.
- Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren xedea ez da hezkuntza-komunitatearen portaera aldatzea, baizik eta ekintzarako prestatzea eta ekintzaren bidez «ezagutza globala-tokikoa» eraikitzea.
- Hizkuntza kritikoa erabiltzen dute, baina aukeren hizkuntzarekin osatua.
- Funtsezkoa da ikasleek parte hartzea.
- Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren azken xedea ikasleak dira. Ildo horretan, irakatsi eta ikasteko prozesuen praktika berritzaileak eta pedagogia modernoak jartzen dira ikasleen eskura.

Ikastetxe batek garapen iraunkorraren aldeko konpromisoa hartzea baino zerbait gehiago lortu behar da, alegia, konpromiso horrek gidatuko du, une oro, eskolaren lanaren esanahia, antolamendua eta funtzionamendua. Garapen iraunkorrerako hezkuntzak sustatzen duen irakatsi eta ikasteko prozesuaren bidez ikasle guztiak parte-hartze demokratikoa indartzen da. Garrantzi berezia ematen zaie ikasleei, herritar aktiboak diren neurrian funtsezkoak baitira gizarte- eta ingurumen-aldaketa lortzeko, gizartearen etorkizunari aurre egiteko eta gizarte arazoak konpontzeko.

Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren aldeko konpromisoa hartzen duen eskolak etorkizunera begira ikasteko konpromisoa hartzen du; ikasle eta irakasleei «konplexutasunaren kulturaz» baliatzeko eskatzen die eta pen-

tsamendu kritikoa erabiltzera, erronka berriak aztertzeraz eta aurrera ateratzera animatzen ditu; balioak bereizteraz eta ekintzan parte hartzen ikastera animatzen ditu, horretarako, gai guztiak eta eredu pedagogikoa bera ere aztergai hartuta.

Garapen iraunkorrerako hezkuntza garatzeko, funtsezkoa da hezkuntza hori eskolako eguneroko bizitzan txertatzea. Funtsezkoa da, halaber, irakasleek eta zuzendaritza-taldeek gaur egungo hezkuntza hobetzeko, orain arte egindakoa ulertzeko, hezkuntza-komunitateak ikasteko eta eskola-mundura berrikuntzak ekartzeko aukera bikaina dela ulertzea.

Lehenago esan duguna gogora ekarriz, garapen iraunkorrerako hezkuntza sustatzen duten programa ugari daude nazioartean. Eta horietako bat da EA21 programa.

Eskolen ingurumen-kudeaketako sistemak

Ingurumen-kudeaketako sistema hezkuntza-jardueraren bidez ingurumen-helburuak betetzeko ikastetxeak egiten dituen plangintza, exekuzioa, prozedura eta ekintzak hobetzeko eta gainbegiratzeko prozesu ziklikoa da. Ingurumen-kudeaketako sistema gehienetan lau zati bereizten dira (plangintza, gauzatzea, balorazioa eta exekuzioa), eta etengabeko hobekuntza lortzea da helburua.

Nazioartean *Eko-eskolen (Eco-schools)* ereduak lortu du hedapen handiena: 1995ean Lehen eta Bigarren Hezkuntzan abiarazi zen kanpainaren bidez ingurumen-hezkuntza sustatzea eta eskola-komunitate osoa inplikatzeko bilatzen zen. Ingurumen hezkuntzarako Federazioa (FEE international) da Eko-eskolen sustatzailea eta haren ardura da jarraipena egitea. ISO 14001 eta EMAS kudeaketa-sistemak ditu oinarrian, eta, etorkizunera begira, Tokiko Agenda 21ekin bat egitea aurreikusi da.

Aipatutako programan 15.000 eskolak baino gehiagok eta 4.500.000 ikaslek eta 233.000 irakaslek baino gehiagok hartzen dute parte. Bost mila ikastetxek lortu dute Bandera Berdea (ebaluazio bat egin ondoren, programa garatzen hiru urtetik gora daramaten ikastetxeei ematen zaien sinboloa). Estatuan 292 ikastetxek baino gehiagok lortu dute Bandera Berdea. Ildo horretan, Andaluzia da garapen handien lortu duen erkidegoa (ehun ikastetxek baino gehiagok dute Bandera Berdea eta Eko-eskolen Sare Andaluziarra osatu dute); EAEn, bestalde, 21 ikastetxek parte hartzen dute programan eta horietatik 13k dute Bandera Berdea.

Aipatutako sisteman oinarritutako programa ugari aurkituko ditugu; besteak beste: Irlandako *Green-schools* programa, Itsaso Baltikoa inguratzen duten herrialdeetako *Baltic 21 E* programa, Suediako *Green School Award*, Alemaniako programa (Bandera Berdearen ordean EA21 bandera ematen da), Portugalgo *Ecoescola* proiektua, Mexikoko *Eskola Berdeen Proiektua*, Belgikako *Ecoles pour demain*, Poloniako *Green books*; eta, estatu mailan, *Eko-zentroak*, Extremaduran; *Eko-auditoriak*, Errioxan; *Ingurumen Zentroa* programa, Balearretan eta *Escola Verda* programa, Katalunian.

Antzeko helburuak bilatzen dituzte ondorengo programa hauek, nahiz eta metodologia desberdinak erabiltzen dituzten: *Haurren hiria*, *Hezkuntza-hiriak*, *Nire eskolatik nire hirirako...*

2. ESKOLAKO AGENDA 21 PROGRAMA

Gero eta garrantzitsuagoa da eskolek udalerrietan betetzen duten funtzioa arazoak konpontzen parte hartzeko orduan eta udalerriko garapen iraunkorraren alde lan egiteko orduan. Gainera, ingurumen-kudeaketako sistemak gero eta harreman handiagoa dute eskola-testuinguruarekin, udalarekin eta, Tokiko Agenda 21 garatzen duten lekuetan, TA21ekin.

Testuinguru horretan kokatu behar da EA21 programa. Programak horrek ikastetxeko hezkuntza-komunitatea ikastetxearen kudeaketa iraunkorrean eta udalerriko garapen iraunkorraren aldeko lanean inplikatzeko eta parte hartzea bilatzen du. Aldi berean, udalerriri hezkuntzan inplikatzeko ateak irekitzen dizkio, eta berriazko

kanpainak, eskolako eta eskolaz kanpoko jarduerak, lankidetzeta mota berriak eta talde-lanerako bideak antolatzeke aukera ematen dio.

Mota horretako proiektuak Tokiko Agenda 21ekin erlazionatuta daude eta, kasu askotan, agerikoa da udalerrian lortzen duten eragina: Tokiko Foroa, Eskola arteko Foroa, udalerrian garatzen diren ekintzak (sentsibilizazio-kanpainak egitea, ibaiak garbitzea, basoak zaintzea...) eta, halaber, udalak berak antolatzen dituen jardueretan parte hartzen dute.

Nazioartean Eskolako Agenda 21 programak aldarrikatzen duen ingurumen-hezkuntzak honako puntu hauek kontuan hartzen ditu:

- Eskolak ez dira banaka hartzen, herri, udal edo eskualde bateko guztiak baizik.
- Eskolako lokalak ez dira finkoak, lan egiteko eremuak dibertsifikatuak dira, klaseak globalak dira.
- Irakaslearen paperak tutorea, ebaluatzailea, gidaria, prozesuaren erregulatzailea, baliabide sortzailea... dira.
- Ikaslea ezagueraren eraikitzaile aktiboa eta kontzientea da.
- Ikasleen harremanak ez dira ikasgelakideekin bakarrik garatzen, udalerriko eragileekin ere garatzen dira, horrela, lurraldearen kudeaketan parte hartuta.
- Programen kalitatearen kontrola adierazleen bitartez egiten da.
- Ikasleen ebaluazio formatzailea garatzen da.
- Ez da ulertzen helduarorako hezkuntza gisa, baizik eta bizitza osorako hezkuntza modura.

EA21eko hezkuntza balioak asko dira, besteak beste, programa horrek aldaketa (eskolako giroan eta kudeaketan, curriculumean, metodologian...) irudikatzen du eta proiektatzen du, eta harremanen dinamika eraldatzen du, bai hezkuntza komunitatearekin, bai udalerriarekin. EA21ek erabakiak hartzeko ahalmena berreskuratzen du.

Gero eta gehiago dira planetan zabaldutako mota horretako programak: *Eskolako Ingurumen Ziurtapena eta Ikastetxe Iraunkorren Kluba* Perun, *Eskola Establezimenduen Ingurumen Ziurtapena* Txilen (ehun ikastetxetik gora), *Hezkuntza Establezimenduen Ingurumen Ziurtapenerako Sistema* eta *EA21* Argentinan, *COMVida* (11.000 ikasletik gora) eta *Vamos a cuidar do Brasil com as escolas* (16.000 ikastetxe inguru) Brasilen, *Communities 21* Estatu Batuetan, *School Local Agenda 21* Hegoafrikan, *Agenda 21 School* Australian eta Zeelanda Berrian, *Barents Local Agenda 21 School Project* Barents Itxaso inguruko herrietako eskoletako sarea, Alemaniako *EA21* programa eta *Etorkizunerako eskola ziurtagiria* (550 ikastetxe), Frantziako *Experimentation d'Agenda 21 d'établissements scolaires* (100 ikastetxe), Portugalgo *EA21en Eguna*, Moldaviako *Eskolako Agenda 21* (4.500 ikasle), Italiako *Agenda 21 a scuola* (ia eskualde guztietan garatzen da)...

1. eranskinean esperientzia horiei buruzko informazio gehiago eta zehatzagoa aurki daiteke.

3. ESKOLAKO AGENDA 21 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

3.1. HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ETA BIODIBERTSITATERAKO ETA INGURUMEN PARTAIDETZARAKO ZUZENDARITZETAKO LAN ILDO NAGUSITARIKO BAT

Ingurumen-hezkuntza ingurumenaren kudeaketa egokira heldu ahal izateko oinarri garrantzitsuenetako bat da. Horrenbestez, aspaldidanik Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bat eginik ingurumen-hezkuntzari buruzko politika garatzeko asmoa dute, horren bidez ingurumenaren kudeaketan erantzukizunez parte hartzea ahalbidetuko duen hiritarren kontzientziario eta gaitasun egokia lor dadin.

Euskal Autonomia Erkidegoak garapen iraunkorraren aldeko apustua egin zuen aspaldi, Ingurumena babes-teko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren bitartez. Bestalde, EAEko *Garapen Iraunkorren Ingurumen*

Estrategiak (2002-2020) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru-Programak (2002-2006), hezkuntza, prestakuntza eta sentsibilizazioa, besteak beste, beharrezko baldintzatat jotzen dituzte garapen iraunkorraren bidean aurrera egiteko.

Horregatik guztiagatik, hezkuntzaren, prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren eremuan EAEen lehentasuneko helburua da eskola-esparruko esku-hartzea bultzatzea, ingurumen-gaiei buruzko informazioa eta gaitasuna emateko eta, horrela, garapen iraunkorreraino heltzeko beharrezkoa den aldaketa eragiteko balioetan, jarreretan eta jokabideetan.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ezinbestekotzat jotzen ditu diru-laguntzak, ikastetxeetan ingurumen-hezkuntzako berriazko proiektuei ekiteko, eta ikastetxeko hezkuntza- eta curriculum-proiektuetan, egitarauetan eta hezkuntza-unitateetan ikuspegi hori sendotzeko; azken batean, ikasleek edo hezkuntza-komunitateak garapen iraunkorrean konprometitzeko moduko kontzientzia, gaitasuna, ezagupena eta balioak gara ditzaten.

Bestetik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak euskal hezkuntza-sistemak kalitatezko irakaskuntza lortzeko *Hezkuntza Berriztatze Programak 2003-06* egitasmoa plazaratu zuen. Hor agertzen diren lehentasuneko bost ildoen artean, 4.ean hain zuzen ere, Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza protagonista da eta ideia hau aldarrikatzen da: «funtsezkoa da printzipio horiekin bat etortzea zentroen antolakuntza, metodologia eta curriculum-ikaskuntzak eta, zentroetan bertan lortu behar da parte-hartzea sustatzen duen kultura eta pluraltasuna, berdintasuna, aniztasuna eta ingurumenarekiko enpatia gisako printzipioak dituen kultura ikaslea eta sustatzea».

3.2. AURRETIAZKO ESPERIENTZIAK

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, hurrenez hurren, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHko curriculumak zehaztu zituen 80ko hamarkadan Euskal Autonomia Erkidegorako, eta azken bi hezkuntza-etapa horietako edukiak antolatu eta tratatzean adierazi du zehar-gaiak erreferentzia gisa hartuko direla, horien artean ingurumen-hezkuntza izanik aipagarriena.

EAEko Curriculum Garapenaren Dekretuek honako helburu hauek ezarri dituzte IHren inguruan:

- Haur Hezkuntzarako: «ingurune hurbila jakin-minez eta errespetuan oinarritutako jarreraz behatu eta esploratzea, ingurune hori osatzen duten elementuen ezaugarri eta propietaterik esanguratsuenak eta beren artean ezartzen diren harremanetakoren bat identifikatzea» (4. atala, etapa honetako «e» helburua).
- Lehen Hezkuntzarako: «ingurune natural eta sozialeko ekintza eta fenomenoaren arteko harremanak ulertu eta ezartzea eta, ahal den neurrian, ingurumena defendatu, zaindu eta hobetzeko ekintzetan aktiboki parte hartzea» (4. atala, etapa honetako «e» helburua).
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako: «ingurune fisikoaren funtzionamendua zuzentzen duten oinarritzko mekanismoak aztertzea, gizakiaren jardueren ingurune horretan duten eragina baloratzea eta ingurunea defendatu, zaindu eta hobetzeko ekintzetan aktiboki parte hartzea, ingurunea bizi-kalitatea baldintzatzen duen elementu gisa hartuz» (4. atala, etapa honetako «e» helburua).

Batxilergoko irakasgaietan ahulagoa da ingurumen-hezkuntzaren helburuen presentzia, Lur eta Ingurumena Zientziak irakasgaietan eta, neurri txikiagoan, Historia, Teknologia, eta Zientzia, Teknologia eta Gizartea (aukerakoa) irakasgaietan izan ezik.

Ingurumenaz eta hezkuntzaz arduratuta dauden sailek ingurumen-hezkuntzako proiektuak eskoletan garatzea bultzatzen dute, Ingurugelen laguntza, formazioa eta material didaktikoekin. Besteak beste, 1992tik 2002ra «Eskola ekologikoa» programa ipini zen martxan. Urte horietan, gero eta eskola gehiago sartzen dira ingurumen hezkuntzako proiektuen garapenean eta gero eta eskolako ekoauditorea proiektu gehiago egiten dira.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak Azterkosta eta Ibaialde sentsibilizazio kanpainak ere sustatzen ditu, ikasleen nahiz gainerako hiritarren artean, Ingurugelek izango dutelarik eskola-eremuan kanpaina horien koordinazioa egiteko ardura.

«Ekologia Eskolan» proiektua jarri zen martxan 1998an ikastetxe batzuetan esperientzia pilotu moduan. Programa horrek, euskal hiriburuetakoa Ingurugelek eta Udalek koordinatuta, 2003ra arte iraun zuen.

Ondoren adierazi dira proiektu horien guztien zenbait helburu:

- a) Ikastetxearen eguneroko bizitzan ingurumen-hezkuntzaren printzipioekiko koherenteki jokatzea. Hurbileko ingurunean eta ikastetxean aipatutako printzipioekin bat datorren ingurumen-eredu bat osatzeko lortu beharko litzateke. Ibaia poluzioaz eta basoen egoeraz hitz egiteaz eta kezkatzeaz gain, jarrera koherentea erakustea lortu behar da eta, horretarako, ikastetxean bertan ez poluitzeko, zikintzeko edo alferrik galtzeko beharra sustatuko da egunero. *Eko-auditoria* da aipatutako proiektu guztien eskura jarritako bitarteko metodologiko garrantzitsua. Eko-auditoriak, ikastetxearen ingurumen-kudeaketa aztertzeaz gain, hezkuntza praktikaren azterketaz arduratzen diren proiektuak dira. Hain zuzen, ikastetxearen ingurumen-kalitatea eta hezkuntza-kalitatea hobetzea bilatzen da Eko-auditorien bidez, ikastetxe bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta.
- b) Hezkuntza-komunitate osoak prozesuan parte hartzeko bideak sustatzea. Ingurumen-hezkuntza garatzeko funtsezkoa da irakasleen eta ikasleen inplikazioa, baina kontuan hartuta eskolan ikasitako jarrera koherenteak eskolatik kanpo gauzatu behar direla, berebiziko garrantzia duela familien, irakasle ez diren langileen eta bestelako agenteen (udal-ordezkariek, toki-erakundeak...) parte-hartzea lortzeko.

2003. urtean ere, alde batetik, munduan Tokiko Agenda 21ek daukan hazkundearekin, eta beste alde batekin, EAEko Garapen Iraunkorraren Ingurumen Estrategiak (2002-2020) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru-Programak (2002-2006) agertzearekin batera EA21 hasten da martxan.

3.3. ESKOLAKO AGENDA 21 PROGRAMA

2003an abian jarri zen eta gaur egun Eskolako Agenda 21 programa garatzen da ikastetxeetan. Aurretik egindako programen jarraipena da EA21: programa horien funtsezko alderdiak gorde ditu, eta ikastetxeek, Tokiko Agenda 21eko zati diren neurrian, tokiko komunitatean egiten duten parte hartzea areagotzeko beharra azpimarratu da.

Ikuspegi horren arabera, EA21 programa definitzeko zera esan daiteke: ingurumen-hezkuntzako programa bat da eta hezkuntza-komunitateak eskola-kalitatearen eta -iraunkortasunaren alde egindako ahaleginak barnean hartzen ditu, udalerrriaren garapen iraunkorrean parte hartuz eta lagunduz.


Lau oinarrizko erreferentzia erabili dira Euskal Autonomia Erkidegoko EA21 lantzeko:

- *21 Programa* eta izan duen tokiko garapena: *Tokiko Agenda 21 (Hiri Iraunkorren Mugimendua; hortik sortu zen Aalborg-eko Gutuna)*.
- Lehen aipatutako *2002-2020 Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia*. Estrategia horretan zehaztutako helburu eta konpromisoen artean, 2006rako derrigorrezko irakaskuntzako ikastetxeen %50 programaren barruan sartzea dago; 2012rako ikastetxe guztiak hartu nahi dira barnean.
- Autonomia Erkidegoaren *Oinarrizko Curriculum Diseinua* eta *Delors Txostena: hezkuntza ezkutuko altxorra da*, eta xxi. mendeko hezkuntzari buruz adierazitako lerroak.
- Amaitzeko, *Garapen Iraunkorri buruzko Hezkuntzaren Hamarkada*, 2005-2014 aldirako UNESCO erakundeak martxan jarritako programa.

Eskolako Agenda 21 programaren filosofiak ez du eskolako zereginak ugarituko dituen programa bat eskaintzea bilatzen, baizik eta esparru berri bat osatzea eta esparru horretan garatzen diren esperientzia on guztiak barnean hartzea; era berean, ikastetxearen eta ingurunearen kudeaketa iraunkorarekin erlazionatutako ele-

mentuak, curriculumaren berrikuntza eta hezkuntza-komunitatearen partaidetza sustatzea bilatzen da. Horrekin guztiarekin batera, eskolek, ekarpenak eta proposamenak eginda, udalerraren kudeaketan parte hartzen dute.

Ondorengo eskeman, EA21 programan parte hartzen duten eragileak eta haien arteko harremanak agertzen dira.



Helburuak

Eskolako Agenda 21 hainbat xede, helburu, ekintza eta baliabideren multzoa da eta hezkuntza-komunitatea garapen iraunkorrarekin eta etorkizun bidezkoago eta iraunkorrago baten eraikuntzarekin konprometitzeko gaituko duten kontzientziaren, gaitasunaren, ezagutzen eta balioen garapena lortzeko sortu da.

Horretarako lortu beharreko helburuak hauexek dira:

- Ikastetxeko eta udalerriko ingurumenaren kalitatean eragina duten erabakiak hartzeko egitura bat sortzea.
- Ikastetxeen eta udalerrian modu iraunkorrago batean bizitzen hasteko akordiotara iristea.
- Hezkuntza-komunitateko partaide guztien arteko koordinazio-mekanismoak sendotzea.
- Tokiko Agenda 21en parte hartu eta gizarte- eta lurralde-ingurunean integratzea.
- Ikastetxeko eta inguruneko gizarteari eta ingurumenari dagozkien gaiak identifikatu, aztertu eta aurrerak proposatzea, foroetan ezagutaraztea eta ingurunearen erabilera iraunkorra lortzeko prozesuak abiaraztea.
- Ikasleak beren ikastetxeko eta beren udalerriko ingurumenaren kalitatean eragina duten kontuetan parte hartu, lagundu, erabakiak hartu eta inplikatzeko ohitzea.
- Ikastetxea ingurumenarekin arduratsua eta errespetutsua den praktika baten eredu bilakatzea.
- Curriculumaren garapen iraunkorrak dakartzan eskakizunei erantzun ahal izateko egokitzea.

Faseak

Ondorengo erroetan adierazi dira programak garatzen dituen faseak eta metodologia:

1. ERABAKIA. Programa garatzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak *deialdia* zabaldu eta diru-laguntzak ematen dituzte. Programan parte hartzeko eskolako udalerriak Tokiko Agenda 21 garatzen egon behar du eta prozesu horretan eskolaren parte-hartzea bultzatu. Fase horretan dauden udalerrri guztiak *Udaltalde 21en* edo *Udalsarea 21en* sartuta daude. Udalerrriak EA21eko udal-teknikariak kontratatzeko konpromisoa hartu behar du. Programan parte hartu nahi duten ikastetxeek Ordezkaritza Organo Gorenaren erabakia jasotzen duen ziurtagiria aurkeztu behar dute.
2. HITZARMENA. Aipatutako Sailek, udalerriko alkateak eta eskolako zuzendariak Eskola Agenda 21 erakitzen gogoz lan egiteko hartzen duten konpromisoa adierazi dute hitzarmena sinatuta. Horrek eskatzen du ingurumenaren gaineko erantzukizunaren zentzua sustatzea, ingurumenari lotutako betebeharrak betetzea eta ingurumenaren egoera, balio demokratikoak eta ingurunearen iraunkortasuna arian-arian eta etengabe hobetzera zuzendutako neurriak hartzea. (Ikus 1. eranskina)
3. BARNE-ANTOLAKUNTZA. Ikastetxeak koordinatzaile bat aukeratu behar du; hainbat ordu ditu bere lana betetzeko (sare publikoan 2, 4 edo 6 ordu izaten dira, ikastetxeko irakasle-kopuruaren eta ikasturte hasierako zirkularraren arabera). Ingurugelak emango dio prestakuntza (40 ordu) eta aholkularitza bere lana egiteko. Zenbait kasutan ikastetxeetako klaustroetara zabaldu da aipatutako prestakuntza. Ikastetxean *Ingurumen Batzordea* hezkuntza-komunitateak parte hartzeko organoa da eta hauxe ohi da bere osaera: irakasleak, langile ez irakasleak, familiak, udal-ordezkariek eta, hala badagokio, udal-teknikariak, baina, batez ere, ikastetxeko ikasleak, horiek baitira protagonista nagusiak.
4. HERRI-ANTOLAKUNTZA. Udalerriko edo eskualdeko koordinatzaileen artean bilerak egiten dira. Ingurugelaren aholkularitza dute aipatutako bilerek eta EA21 programako udal-teknikariek parte hartzen dute.
Eskola arteko Foroa sortzen da, udalerrri edo eskualde batean EA21 garatzen duten ikastetxeen artean (ikastetxe desberdinetako ikasleek osatutako organoa da eskuarki).
5. DIAGNOSTIKOA. Ikastetxearen *ingurumen-diagnostikoa*: Ingurumen Batzordearen lana da diseinua egitea. Batzordeak adieraziko ditu datuak biltzeko eta aztertzeko ardura edukiko duten taldeak. Hiru esparruetan egiten da diagnostikoa: curriculum-berrikuntza, garapen iraunkorra eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea.
6. HELBURUAK ETA ADIERAZLEAK. Diagnostikoa egin eta gero hutsuneak eta hobetzeko arloak agertzen dira. Hobetzeko proposamenak eta lehentasunak jartzen dira helburu moduan. Helburuen lorpen zehazta ezagutzeko, helburu bakoitzari behar diren adierazleak ezartzen zaizkie.
7. EKINTZA-PLANA. Adierazitako helburuak betetzeko plangintza. Ekimen, tenporalizazioa eta metodologia agertuko dira aipatutako hiru esparruetan.
8. APLIKAZIOA. *Ekintza-plana* betearaztea, hau da, diseinatu diren ekintzak martxan jartzea.
9. EBALUAZIOA. Programaren garapenaren emaitzak *ebaluatzea*; ebaluazioa egiteko aurretik zehaztutako adierazleak erabiliko dira eta lortutako emaitzak hezkuntza-komunitateari edo udalerritari berari *jakinaraziko* zaizkio.
10. MEMORIA. Egindako lanaren *memoria*.
11. KOMUNIKAZIOA. Lana burutu ondoren, Eskola arteko Foroak *ingurumena hobetzeko proposamenak egiten dizkio udaletxeari* (normalean alkatetzarekin entzunaldia egiten da).

Esparruak

EA21 programak oso potentzialtasun handiak ditu hainbat alorretan. Programaren garapena hiru ardatz inguruan uztartzen da, hala nola:

Ikastetxeko eta inguruko ingurumenaren iraunkortasuna. Munduko ingurumen-arazoak (energia, bioaniztasuna, berotegi efektua...) udalerrian eta ikastetxean islatzen dira neurri batean edo bestean. Besteak beste,

baliabide batzuk kontsumitzen dira, hondakin batzuk sortzen dira eta garraioa, autoz nahi autobusez egiten denean, kutsadura areagotu egiten da... Ikastetxeko edo herriko ingurumenari dagozkion oinarritzko gai horiek, EA21ek aztertu eta lantzeaz gain iraunkortasunerako adierazle gisa erabil ditzake.

Curriculumaren berrikuntza. Kudeaketaz gain, programa honek ikastetxearen hezkuntza-funtzioak, curriculumaren edukiak, gizarteratze-prozesuak, ikastetxeko giroa eta metodoak arakatzera bultzatzen du. Eskolako Agenda 21ek metodoei eta edukiei dagozkien curriculumaren hainbat alderdi aztertu behar ditu; ikasleei, beren mailan, ingurumen hurbileko arazoak ezagutu, ulertu eta konponbideak bilatzeko eta martxan jartzeko ahalbidetuko dien hezkuntza-praktika bat izan nahi badu.

Komunitatearen parte-hartzea. Ingurumen-arazoak guztion arazoak dira, beraz guztion parte-hartzea beharrezkoa da arazoan irtenbideak abiatzeko. Eskolako Agenda 21ek eskola komunitatearen parte-hartzea eta hori antolatze modua, ikasleen eta gutxiengoen gizarteratzea eta integrazioa eta kultura demokratikoa aztertzen ditu, gizarte iraunkor batean funtsezkoak eta berezkoak baitira.

Ebaluazioa

EA21ek bere ebaluazioa egiteko, Tokiko Agenda 21ek egin duen antzera, ebaluazio-adierazleen erabilpena proposatzen du.

Adierazleak programan jarritako helburuei lotuta daude. Adierazleek errealitate konplexuak sinplifikatzen dituzte beti eta are gehiago gizartekoitasuneko, garapen pertsonaleko, ezagutzako, bizi-kalitateko eta abarrekiko prozesuez ari garenean.

Adierazlerik onenak zeintzuk diren guztion artean erabakitzea, horixe da benetan interesatzen zaiguna, era horretara, kalitateari eta mailari dagokienez, honako hauek ongi neur ditzagun: eskola-komunitateak ikastetxeko gaietan duen parte-hartzea, kontsumismoari ezarritako balazta, ingurumen-inpaktuen murrizketa, oinarritzko komunikazio-gaitasunak, biodibertsitatea, iraunkortasuna eta kohesio soziala.

Adierazleen aplikazioak eragiten dituen emaitzek beste mota bateko betebeharrak eragingo ditu: egindakoa baloratu, geratu diren hutsuneak identifikatu, hurrengo lanetarako jarraipen mekanismoak ezarri eta abar. Eskolan erabiltzen den etengabeko ebaluazioaren antzera, EA21 programaren ebaluazioak epe bateko lanaren balorazioa egiten du, alde positiboak eta hutsuneak identifikatuz, eta aurrera begirako lanerako abiapuntu bihurtuz.

A young girl with long, light-colored hair is walking away from the camera. She is wearing a light-colored, quilted jacket and a dark backpack. The backpack has a cartoon illustration of a girl with her arms raised. She is walking on a grassy area next to a brick building with large windows. The entire image has a blue tint.

IKERKETAREN METODOLOGIA

2

1. OINARRI METODOLOGIKOA

Ikerketaren eremuak, gero zehatzago ikusiko dugunez, era askotako agenteak (ikasleak, aholkulariak, koordinatzaileak...) eta haien arteko harreman konplexuak (formazioa, laguntza teknikoa, ekintza-plana garatzea...) ditu osagai.

Hain zabala izanik, ikuspegi mistoa hartu dugu eta edozein ikerketatan ohikoak diren bi ikuspegiak erabili ditugu: ikuspegi kuantitatiboa eta ikuspegi kualitatiboa.

Ikuspegi kuantitatiboarekin datuen bilketa eta analisisa garatzen dugu ikerketaren helburuak lortzeko. Horretarako galdetegi batzuk prestatzen dira. Lortzen diren emaitzekin programaren argazkia atera nahi da, errealitatea deskribatu nahi da.

Ikuspegi kualitatiboarekin programaren errealitatea berreraiki nahi dugu agente nagusien ikuspegietatik. Horretarako, dokumentuak aztertu, elkarrizketak egin, AMSAk begiratu (programaren Ahuleziak-Mehatxuak-Sendotasunak-Aukerak bilatzeko matrizea) eta hainbat agenterekin bilerak egin dira. Emaitzekin programaren argazkiaren alor konkretu batzuetara hurbilduko gara, programaren testuingurua hobeto ulertzeko.

Bi ikuspegiekin programaren ikuspegi holistiko bat garatu nahi dugu, nahiz eta ikuspegi kuantitatiboak pisu handiagoa izan.

Bi ikuspegi horiek garatzeko ikerketak izaera bikoitza izango du: esploratorioa eta deskriptiboa.

Esploratze-azterlanak ikerketaren eremua prestatzen du, batez ere, jorrotutako literaturak (aztertutako bibliografia eta informazio iturriak) eremu hori argitzen ez duenean. Oso baliotsua da gaiak eta arloak ikuspuntu berrietatik aztertzeko edo daudenak zabaltzeko.

Azterlan deskriptiboarekin programaren egoera deskribatu nahi dugu, hau da, ezaugarriak eta propietateak adierazi, bi lan-ildo hauek erabilita: programaren aldagai batzuk neurtuta (ikuspegi kuantitatiboa) eta programaren eta testuinguruaren datuak neurtuta (ikuspegi kualitatiboa).

Azterlan mota horiek ematen dituzten emaitzen analisiarekin *ondorio* batzuk ateratzen dira, eta haiek programa hobetzeko *proposamen* batzuk egitera bultzatuko gaituzte.

Ildo horretatik, planteatzen dugun ikerketak daukan *objektua* Eskolako Agenda 21 programaren garapena da, ikerketaren *xedea* hauxe izanik: «Eskolako Agenda 21 programa aztertzea, programa bera hobetzeko».

Aipatutako ikuspegi eta azterlanak garatzeko hiru ikerketa maila diferente planteatzen dira, bi ikuspegi kuantitatiboari dagokionez eta bat ikuspegi kualitatiboari. Lehenengo ikerketa mailan ikastetxe guztien esperientziak hartzen dira kontuan, programaren egoeraren argazki panoramikoa lortzeko. Bigarren maila baten lagin bat hartzen da kontuan, programaren elementu eta haien arteko harreman eta fluxuak zehazteko asmotan; hau da, lehenengo plano ateratzeko. Hirugarren ikerketa mailan kasu batzuen azterketa egiten da, esperientzia eredugarriak aztertzen dira, plano detailea lortzeko.

Ikerketa maila horietan erabiliko diren teknikak ondoko taulan agertzen dira:

| | | IKUSPEGI KUANTITATIBOA | | IKUSPEGI KUALITATIBOA |
|-------------------|-------------------|--|---|---|
| | | 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA |
| MAILA | | Ikuspegi orokorra, kuantitatiboa eta deskriptiboa izateko. | Argazki zehatzago bat lortzeko. | Proposamen ereduak emateko. |
| XEDEA | | Populazioa. | Probabilitatezko lagin estratifikatua: 27 ikastetxe. | 6 ikastetxe. |
| IRIZPIDEAK | | <ul style="list-style-type: none"> — 2003-04, 04-05 eta 05-06 ikasturteetan EAEn EA21 programan parte hartu duten ikastetxeen hezkuntza-komunitateetako kideak. — Ingurugeltako langileak eta horien administrazio-arduradunak. — Udalerriek kontratatutako ingurumen-hezkuntzako enpresak eta laguntza teknikoaren ardura duten udal-zerbitzuak. | <ol style="list-style-type: none"> 1. Ikastetxe publiko eta pribatuitundua. 2. LH, BH, eta Integralak. 3. Tamaina ikasle kopuruaren arabera (txikiak: $x < 300$; erdianak: $300 < x < 600$; handiak: $x > 600$). 4. Programan ikasturte bat edo bi egotea. 5. Lurraldetasuna programan sartuta dauden ikastetxe kopuruaren arabera. | <ol style="list-style-type: none"> 1. mailako ikastetxeetatik esperientzia eredugarriak izan dutenen artean aukeratutako 6 ikastetxe. |
| TEKNIKAK | ZUZENAK | <ul style="list-style-type: none"> — <i>Galdetegiak</i>: Sailentzat, aholkularientzat, aurtengo koordinatzaileentzat, enpresentzat eta lhoberentzat. | <ul style="list-style-type: none"> — <i>Galdetegiak</i>: koordinatzailea, irakasleak (zuzendaritza taldeko bat barne), ikasleak, gurasoak eta langile ez irakasleak. | <ul style="list-style-type: none"> — <i>Elkarrizketa erdi-egituratuak</i> agenteekin: koordinatzailea, zuzendaritza taldeko bat eta ikasle batzuk. |
| | ZEHAZKORAK | Ikuspegi kualitatiboa landu arren hiru mailetan garatu da: <ul style="list-style-type: none"> — Dokumentazioaren azterketa: bibliografia, ikastetxeen memoriak, Ingurugelen memoriak, buletinak, hemendik kanpoko antzeko esperientziak... | | |

2. IKERKETAREN EREMUA

Ikerketaren eremua definitzeko EA21 programan agertzen diren elementuak eta haien arteko harremanak identifikatu dira. Programa hori prozesu dinamikoa moduan ulertu dugu, hau da, agente anitz eta harreman piloa era dinamikoa batez garatzen dira denboran zehar. Kontzepzio horretan, prozesuak hiru une hauexek ditu:

- Sarrera: Eusko Jaurlaritzaren Sailek bultzatzen dute programaren garapena deialdi eta diru-laguntzeekin; udalen bultzakada eta laguntza...
- Prozesuak: programan parte hartzeko onarpena, formazioa, aholkularitza, ikastetxeen barneko prozesuak (funtzionamendua, antolakuntza, ekintza-plana...)...
- Emaitzak: EA21 programa garatzen duten ikastetxeek emaitza batzuk sortzen dituzte hainbat alorretan eragina izateko: ikastetxearen dinamika hobetzeko, udalerriko garapen iraunkorrean parte hartzeko (eta, bide batez, tokiko ekimena izanez gero, ekimen globala hobetzeko), hezkuntzan berrikuntza proposamenak zabaltzeko...

(Ikus 2.3.3 Agenda 21 programa atalean prozesu honek sorrarazten duen fluxu-diagrama).

3. IKERKETAREN FASEAK

Ikerketarako oinarrizko ereduak prestatu dugu ohiko faseekin: aurretiazko fasea eta ikerketaren diseinua, landa lana, analisia eta informeak. Baina, fase horiek ez daukate hasiera eta amaiera argirik, ez dira zeharo linealak, ez doaz bata bestearen atzean, baizik eta bata bestearen gainetik, hori bai, betiere, aurrerantz doaz.

3.1. AURRETIAZKO FASEA ETA IKERKETAREN DISEINUA

Fase honetako zereginak hauexek izan dira:

a) Bibliografiaren azterketa

Dokumentuen behaketari dagokionez, erreferentzia nagusia *Eskolako Agenda 21: eskolarako gida* izan da. Hala ere, dokumentazio ugari izan dugu kontuan.

Hasieran, ingurumen-hezkuntzari buruzko dokumenturik eta erreferentziarik nabarmenenak aztertu genituen.

Gero, Tokiko Agenda 21eko historian, esperientzietan eta lan-eskemetan zentratu zen. Eta hori guztia Euskal Autonomia Erkidegoan kokatu genuen *Udaltaldea 21* eta *Udalsarea 21*en esperientziak ezagutzuz.

Geroxeago, EA21 programaren inguruan sortu den dokumentazioa landu genuen: EHAA-n agertutako deialdiak, ikastetxeen memoriak, Ingurugeletako memoriak, topaketak, material didaktikoak...

Beste alde batetik, ikerkuntza arloko hainbat dokumentazio eta material ere aztertu genituen.

Dokumentu analisiari dagokionez, hurrengo hauek izan ditugu aztergai: programa beraren dokumentazioa, prestakuntza ikastaroen programak, ikastaroetan erabilitako dokumentazioa eta material didaktikoak, ikastetxeek programa egin eta gero aurkezten dituzten memoriak eta materialak, Ingurugelen memoriaren programarekiko atalak, Aste Berdean egiten diren Ingurumen-hezkuntzako Herrialdeetako Topaketetan aurkeztutako materialak...

Ikastetxeek sortu dituzten material didaktikoak, Ingurugelek programarekiko gauzatu dituztenak, ikasleen produkzioak... eta beste batzuk ere, interes osoa izan arren, ez dira aztertu ikerketa honetan eta, agian, ikerketa berri batean analizatu daitezke.

Hori guztiari, pertsonalki egindako kontaktuak, Internet-en bidez lortutako informazioak eta gai honen inguruan Estatuan egindako ikerketa bakarra (Extremadurako Unibertsitatea) ere iturri izan ditugu.

b) Aholkularientzako AMSA

Ikerketaren lehenengo fasean aholkulariei AMSA (Ahuleziak-Mehatxuak-Sendotasunak-Aukerak) matrizea pasatu zitzaien, haien ikuspuntutik, programaren potentzialtasunak eta barruko eta kanpoko agenteen eragina ezagutzeko.

AMSAren helburua zera da: erakunde edo programa baten arlo sendo eta ahulen eta kanpotik jasotzen dituen mehatxu eta aukeren ebaluazioa grafiko edo laburpen-taula batean konkretatzea. Oso potentzialtasun handia dauka egoera baten diagnostikoa egiteko.

Datu horiek oso garrantzitsuak izan dira ikerketaren diseinurako, batez ere, ikertzeko eremuak finkatzeko.

c) Aurretiazko diseinua

Ikerketaren diseinua garatzeko, besteak beste, puntu hauek kontuan izan ditugu:

- Pertsona adituekin elkarrizketak egin bai programaren inguruan (Ingurugela, IHOBE, Estatuko esperientziak...), baita ikerketaren ikuspegiaren inguruan (ISEI-IVEI, Bergarako UNED, Hezkuntza Digitala gunea...) ere.
- Ingurugeletako aholkulariei pasatutako AMSA.
- Koordinatzaileek burutzen dituzten prestakuntza-ikastoroetan parte hartu.

Diseinua egin eta gero instrumentuak prestatu genituen: galdetegiak, lagina, froga-pilotu...

Garatutako kronograma hauxe izan da:

| | IRAILA | URRIA | AZAROA | ABENDUA | URTARRILA | OTSAILA | MARTXOA | APIRILA | MAIATZA | EKAINA |
|---|--------|-------|--------|---------|-----------|---------|---------|---------|---------|--------|
| Aurretiazko fasea eta ebaluazioaren diseinua | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | | | | | |
| Landa lana | | | | | ■ | ■ | | | | |
| Analisia | | | | | ■ | ■ | ■ | | | |
| Informazioa: ondorioak eta proposamenak (txostenak) | | | | | | | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Ikerketaren erregulazioa | ■ | ■ | ■ | ■ | | | ■ | ■ | ■ | ■ |

3.2. LANDA LANA

Fase honetako eginkizun nagusiak hauexek izan dira:

a) Galdetegiak

Galdetegia oso tresna eraginkorra da informazioa lortzeko eta datuak egituratzeko, analisi estatistikoa erraztuz. Ona izan arren ez da osoa eta horregatik beste tresna batzuekin osatu beharra dago.

Lan honetarako oso interesgarriak izan dira Rul eta Zaitetik (2003) eta Hernandezek (2002) beren obretan emandako erreferentziak eta ikerketarako izan ditugun laguntzaileak.

Galdetegi motak

Azaldu dugunez, bederlatzi galdetegi prestatu dira programaren hainbat arlotan agenteen informazioa eta iritzia jaso ahal izateko. Hauexek dira eta begiratu daitezke 2. eranskinean.

1. AG1: aholkularientzako galdetegia.
2. CG: Ingurugeletako zuzendarientzako galdetegia.
3. HG: Hezkuntza Sailarentzako galdetegia.
4. IG: Ingurumen sailarentzako galdetegia.
5. IKG: ikastetxeentzako galdetegia. Hainbat agenteren egokituak. Irakasleak: ikastetxeko 5 (bat zuzendaritzakoa eta beste laurak programan aritu diren irakasleak). Ikastetxe bakoitzeko Ingurumen Batzordeak hautatutako 5 ikasle eta 5 guraso. Langile ez irakasleak: ikastetxeko bat.
6. KG1: koordinatzaileentzako lehen galdetegia. Aurtengo koordinatzaileei zuzenduta eta programa aurretik egiteko.
7. KG2: koordinatzaileentzako bigarren galdetegia. Lagineko koordinatzaileei pasatzeko.

8. KG3: koordinatzaileentzako hirugarren galdetegia. Prestakuntza-ikastaroetan ikasturte honetan parte hartu duten koordinatzaileei pasatzeko; kasu honetan, Garatu programa ikastaroen ohiko ebaluaketa orria izan da.
9. EG: Udaletxeek kontratatzen dituzten ingurumen-hezkuntzako enpresentzako galdetegia.

Diseinua

Gehienak hautatzeko itemak edo erantzun itxiko itemak dira, bai izen-eskala (adibidez: 1. Bai, 2. Ez) eta bai ordena-eskala (adibidez: 1. Oso eskasa, 2. Eskasa, 3. Nahiko, 4. Ondo, 5. Oso ondo) erabiliz. Item horiek bi edo 5 aukerakoak izan dira.

Galdera gutxi, zabalak eta erantzun laburrekoak (lerro bat edo bi gehien jota).

Galdetegi gehienak orrialde bakar batean sartzeko moduan maketatu dira.

b) Elkarrizketak

Elkarrizketak datu kualitatiboak lortzeko ezinbesteko tresna izan da. Hernándezek (2002) emandako irizpi-deekin prestatu dira elkarrizketa erdi-egituratuak. Asmoa erantzun zehatz batzuk lortzea izan da eta horien inguruan agenteek komentatu nahi zuten guztia kontuan izatea ere.

Hiru elkarrizketa mota prestatu dira:

1. Ikasleentzat: beraiek zelan bizi duten programa jakin ahal izateko.
2. Zuzendaritza Taldearentzat: programak eskolan dauzkan potentzialtasunak eta garatzeko zailtasuna eta alde ahulak ezagutzeko.
3. Koordinatzailearentzat: programa eta bere zereginaren inguruko nondik norakoak jakiteko.

Hauxe izan da erabilitzako prozedura:

1. Ikastetxera abisatu, aholkularien bitartez, eta data eta ordua jarri.
2. Gela batean elkartu lehenengo koordinatzailearekin, gero ikasleekin, eta azkenik zuzendaritza taldeko pertsona batekin.
3. Elkarrizketarako aurkezpena egin, beraren zentzua eta asmoa adierazteko baita zertarako erabiliko diren jasotako erantzunak ere.
4. Aplikaziorako bi pertsona joaten ziren, batek elkarrizketa bera garatzen zuen gidoi baten arabera eta bigarrenak erantzunak erregistratzen zituen. Erregistro hori, geroxeago, garbira pasatzen zen eta besteekin antolatzen zen.

Esan beharra dago jasotako harrera eta tratua oso ona izan dela eta ikastetxe guztietan ordutegi, leku eta antolakuntza aldetik prest egon direla gure lana egin ahal izateko.

3.3. ANALISIA

Fase honetan lan hauek egin dira:

- a) Datuen erregistroa. Tresna guztiek ematen dituzten datu guztiak sailkatu eta antolatu dira informatikoki Microsoft Windows-eko Excel programaren bitartez.
- b) Análisi kuantitatiboa: galdetegiak 3.4 azpiatalean azaltzen diren adierazleak neurtzeko diseinatu dira. Horrez gain, beste datu interesgarri edota osagarri batzuk ere ateratzeko prestatu dira. Lortutako datuak Microsoft Windows-eko Excel programarekin eta STATS programa estatistikoarekin analizatu dira.

Analisi kuantitatiboan estatistika deskriptiboa erabili dugu:

- Eraitzen banaketarako frekuentzien analisia.
- Neurri zentralak: batez bestekoa, mediana eta moda.
- Dispersiozko neurriak: desbiderapen tipikoa eta bariantza.

Analisi kualitatiboan kontuan hartu dira:

- Dokumentazioaren azterketan: ikastetxeen programaren memoriak, Ingurugelaren memoriak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, Euskadiko Eskolako Agenda 21 gida, hemendik kanpoko esperientzien gida edota materialak...
- Elkarrizketa erdi-egituratuak agente hauekin garatzeko: batetik, 3. mailako lagineko ikastetxeen koordinatzaileak, zuzendariak, ikasleak eta, bestetik, lhobeko arduradunak.

Analisi kualitatiboan erantzunen sailkapena eta horien frekuentzien banaketaren analisia egin da. Lortutako datuak oso garrantzitsuak dira EA21 programaren bai azterlan deskriptiboa, bai esploratorioa osatzeko.

Analisi bi horiek bi mailatan garatu ditugu:

- Maila orokorrean, hau da, datu guztiak kontuan hartuta.
- Maila konparatiboan, hau da, lagineko geruzen barneko aldeak arakatuta. Horretarako geruza hauek kontuan izan ditugu: ikastetxearen sarea (publikoa eta itundua), tamaina (txikia, ertaina eta handia), etapa edota zentro mota (LH, DBH eta integralak) eta programan urte bat edo bi egotea.

Modu horretan dauden egoerei erreparatzeko ahalegina egin dugu. Hala ere, badakigu geruza bakoitzean dauden ikastetxe egoera ez dela, oro har, homogenea, eta ezberdintasunak handiak izan daitezkeela abiapuntuak ere ezberdinak izaten direlako (geruza berekoak izan arren batzuk, agian, IHko proiektuetan arituak dira eta beste batzuk ez; ikastetxe batzuk dinamikoak eta proiektu berriak aurrera eramateko ohituak eta bete batzuk ez; batzuen funtzionamendua demokratikoa eta parte hartzailea, beste batzuen berriz piramidalagoa...).

- c) Ondorioak atera. Lau ardatzen artean (ikuspegi kualitatiboa eta kuantitatiboa, gehi azterlan esploratorioa eta deskriptiboa) dauzkagun datu multzoak hainbat proposizio eta enuntziatu sortu ditu. horiekin, besteak beste, programaren egoera, potentzialtasunak, ahuleziak eta beharrak adierazten dira.
- d) Proposamen berriak egin. Ateratako ondorioek aurrera begirako proposamen berriak egitera bultzatzen dute, bai sendotasunak mantentzeko edota hobetzeko, baita ahuleziak gainditzeko eta agerian geratu diren beharrak asetzeko ere.

3.4. INFORMAZIOA: ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Fase honetarako lau txosten prestatu dira hartzaileen arabera:

- *Eskolako Agenda 21 programaren ebaluazioa (2003-06)* txosten nagusia, ikerketaren datu eta zehaztasun guztiekin.
- EAEko 2006. urteko *Ingurumen-hezkuntzako XV. Topaketarako* egin zen *Eskolako Agenda 21eko ebaluazioa (2003-06)* aurkezpen txostena. Ikerketan parte hartu duten ikastetxeentzat, empresarentzat eta ikerketaren diseinuan lagundu dutentzat *Eskolako Agenda 21eko ebaluazioa (2003-06) Laburpena* izeneko txostena prestatu da, baita Ingurugelarentzat eta bi sailentzat ere.
- Argitaratzeko txostena, hau da, *Eskolako Agenda 21 programaren ebaluazioa (2003-06)* izenekoaren laburpen esanguratsua.

3.5. IKERKETAREN ERREGULAZIOA

Ikerketaren ebaluazio jarraitua egin dugu. Horretarako, alde batetik, ikerketa taldearen barne-jarraipena egiteko bilerak egin dira noizbehinka, aztertzeko ea lanak lotura zuzena eta koherentea duen ikerketaren helburuekin eta tenporalizazioarekin; bestetik, kanpoko jarraipen-mekanismo batzuk jarri ditugu, prozesuan zehar hainbat unetan garatuta, helburuei ahalik eta ondoen erantzuteko. Beheko taulan kanpoko jarraipen-mekanismoak adierazten dira:

| | ASMOA | TEKNIKA | PARTE HARTZAILEAK | DATA |
|----|---|--|-------------------|-----------------|
| 0. | BILBOKO INGURUGELAKO ZUZENDARIAREKIN BILERAK | | | ETENGABE |
| 1. | Ikerketarekiko interesak ezagutu | Galdetegia | Ingurugelakideak | Iraila |
| 2. | Programaren diagnosia egin | AMSA matrizea | Ingurugelakideak | Urria |
| 3. | Ikerketaren diseinua egin | Elkarrizketa (zuzenean) Elkarrizketa (e-mail) | ISEI-IVEI | Azaroa |
| 4. | Ikerketaren diseinua konpartitu | Taldeko bilera | Ingurugelakideak | Abendua |
| 5. | Analisisa | Elkarrizketa | ISEI-IVEI | Martxoa |
| 6. | Ikerketaren ondorioak eta proposamenak konpartitu | Taldeko bilera | Ingurugelakideak | Apirilean |

Mekanismo horiek eragiten dituzten emaitzekin ikerketa taldeak berak ikerketaren ildo edo eremu konkretu batzuk aldatu, egokitu edota garatu ditu.

4. IKERKETAREN HELBURUAK ETA ADIERAZLEAK

4.1. OBJKTUA

2003-06 aldirako EAEko EA21 programa analizatu, hobetzeko proposamenak egiteko.

4.2. HELBURUAK

Programari berari begira

P.1 Programaren potentzialtasunak eta ahuleziak identifikatu.

Erakundeei begira

I.1. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailen arteko koordinazioa ezagutu.

I.2. Programa garatzeko sailek eskainitako baliabideak baloratu.

I.3. TA21en eta EA21en arteko loturak ezagutu.

I.4. Ikastetxeek udalerrietan eragindako hobekuntzak zehaztu.

I.5. EA21en garapenerako udalek kontratatutako enpresen zeregina aztertu.

Ingurugelei begira

- C.1. Programaren garapenerako Ingurugelek eskainitako prestakuntza aztertu.
- C.2. Programaren garapenerako Ingurugelek eskainitako aholkularitza aztertu.
- C.3 Programaren garapenerako Ingurugulen antolakuntza eta funtzionamendua aztertu.

Eskolari begira

- E.1. Ikastetxeen partaidetza programan adierazteko deskribapen estatistikoa egin.
- E.2. Eskola komunitateko estamentuen partaidetza programan aztertu.
- E.3. Ikastetxeek programan zehazten diren faseak eta metodologia bete dituztenentz egiaztatu.
- E.4. Programaren garapenerako ikastetxeek aukeratu dituzten gaiak ezagutu.
- E.5. Programaren garapenerako ikastetxeek duten antolakuntza baloratu.
- E.6. Programaren eraginez ikastetxeetan izan diren hobekuntzak baloratu, honako hiru esparru hauek kontuan hartuz: kudeaketa, curriculumaren berrikuntza eta eskola komunitatearen partaidetza.

4.3. ADIERAZLEAK

Helburu horiek lortzeko ondoko adierazleak erabili dira:

| HELBURUA | ADIERAZLEAK |
|--|---|
| P.1. Programaren potentzialtasunak eta ahuleziak identifikatu. | P.1.1. Potentzialtasunak. P.1.2. Alderdi positiboak eta negatiboak. P.1.3. Beharrianak. |
| I.1. Hezkuntza eta Ingurumen Sailen arteko koordinazioa ezagutu. | I.1.1. Bi sailen arteko koordinazio organoa existitzen da. I.1.2. Betetzen den bileren egutegi bat dago. I.1.3. Betetzen den planifikazioa dago. I.1.4. Etorkizunerako proiektua dago. |
| I.2. Programa garatzeko sailek eskainitako baliabideak baloratu | I.2.1. Programaren garapenerako ikasturte bakoitzeko sailek emandako diru-laguntza. I.2.2. Hezkuntza Sailak koordinatzaileentzat eskainitako laguntza orduak ikasturte bakoitzeko. I.2.3. Koordinatzaileentzako laguntza orduak dituzten ikastetxeen portzentajea. I.2.4. Laguntza orduen arabera ikastetxeen portzentajea. |
| I.3. TA21en eta EA21en arteko loturak ezagutu | I.3.1. Ikasturtearen hasieran udalekin hitzarmena sinatu duten ikastetxeen portzentajea. I.3.2. Ikasturte bakoitzeko ikastetxeek egindako audientzien kopurua. I.3.3. Udallerriari begira ikastetxeek egindako proposamenen artean udalek onartutakoen portzentajea. I.3.4. Udalaren jarrerarekiko koordinatzaileen gogobetetze maila. |
| I.4. Ikastetxeek udalerrietan eragindako hobekuntzak zehaztu. | I.4.1. Ikastetxeek egindako sentsibilizazio ekintzen kopurua udalerrietan. I.4.2. Udallerriaren ingurumena hobetzeko ikastetxeek egindako jardueren kopurua. I.4.3. Udallerriek antolatzen dituzten ingurumen ekintzetan (Aste Berdea, Zuhaitz Eguna, Mugikortasun Astea...) parte hartu duten ikastetxeen portzentajea. |

(.../...)

(.../...)


| HELBURUA | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| I.5. EA21en garapenerako udalek kontratatutako enpresen zeregina aztertu. | I.5.1. Enpresetako teknikariek duten kontratuaren tipologia eta batez besteko iraupena. I.5.2. Ikastetxeetako koordinatzaileekin egindako bileren kopurua ikasturteko. I.5.3. Enpresetako teknikarien lanarekiko aholkularien eta koordinatzaileen gogobetetze maila. I.5.4. Enpresek ikastetxeentzat egindako jardueren tipologia eta kopurua. I.5.5. Enpresek ikastetxeentzat egindako materialen kopurua. I.5.6. Eskolek enpresei egiten dizkieten eskakizun kopurua eta tipologia. |
| C.1. Programaren garapenerako Ingurugelek eskainitako prestakuntza aztertu. | C.1.1. Ikastetxeei zuzendutako prestakuntza orduen kopurua (ordu kopurua/ikastetxea) C.1.2. Prestakuntza ikastaroetan egon diren ikastetxeen eta parte hartzaileen kopurua. Kontuan hartuko dira ondoko ikastaroak: 40 ordukoa, 10 ordukoa eta 40 orduko «on line» ikastaroa. C.1.3. Prestakuntza ikastaro motetako bakoitzean parte hartzaileek duten gogobetetze maila. |
| C.2. Programaren garapenerako Ingurugelek eskainitako aholkularitza aztertu. | C.2.1. Ingurugeletako aholkulariek programan dauden ikastetxeekin izan duten bileren kopurua ikasturte bakoitzeko (ordu-kopurua/aholkularia/ikastetxea). C.2.2. Programaren garapenerako Ingurugelek eskainitako materialek sortzen duten interes maila ikastetxeetan. C.2.3. Jasotako aholkularitzarekiko koordinatzaileek adierazten duten gogobetetze maila. C.2.4. Ingurugela bulegoetan programarekin erlazioanuta asteko hartu diren argibideen kopurua eta tipologia. C.2.5. Programarekiko aholkularien gogobetetze maila. |
| C.3. Programaren garapenerako Ingurugelen antolakuntza eta funtzionamendua aztertu. | C.3.1. Aholkulari bakoitzeko programan dauden ikastetxeen kopurua ikasturte bakoitzeko. C.3.2. Programa garatzeko Ingurugelek erabili duen denboraren portzentajea ikasturte bakoitzean. C.3.3. Programa garatzeko eta jarraipena egiteko Ingurugelen koordinaziorako erabili diren orduen kopurua. Kontuan hartuko dira Ingurugela barruko eta Ingurugela ezberdinen arteko bilerak. C.3.4. Programari begira, Ingurugeletako teknikariek beren burua prestatzen erabili duten orduen kopurua ikasturteko (ordutegi barruan eta kanpo). |
| E.1. Ikastetxeen partaidetza programan adierazteko deskribapen estatistikoa egin. | E.1.1. Programan parte hartzen duten ikastetxe eta ikasleen kopurua eta portzentajea lurraldeka eta erkidegoan. Ondoko ikastetxe mota hartuko dira kontuan: publikoak eta hitzarmenduak; derrigorrezko hezkuntzakoak; ikastetxeen tamaina ikasle kopuruaren arabera. |
| E. 2. Eskola komunitateko estamentu guztien partaidetza programan aztertu. | E.2.1. Hezkuntza komunitateko estamentuek zein portzentajetan parte hartu duten programan. Kontuan hartuko dira ondoko estamentuak: irakasleak, ikasleak, gurasoak eta langile ez irakasleak. Analisia egiteko erlazioanutako da estamentu bakoitzeko kopuru osoa programan parte hartzen duenarekin. E.2.2. Ingurumen Batzordean estamentu bakoitzak duen partaidetzaren portzentajea. Kontuan hartuko dira ondoko estamentuak: irakasleak, ikasleak, gurasoak, langile ez irakasleak eta udal ordezkaria. E.2.3. Hezkuntza komunitateko estamentuetako bakoitzak izandako partaidetza maila. E.2.4. Ikasleen gogobetetze maila partaidetzari dagokionez. |
| E.3. Ikastetxeek programan zehazten diren faseak eta metodologia bete dituztenentz egiaztatu. | E.3.1. Programaren fase guztiak bete dituzten ikastetxeen portzentajea. E.3.2. Ikastetxeek komunikatzeko erabili duten tipologia. |
| E.4. Programaren garapenerako ikastetxeek aukeratu dituzten gaiak eza-gutu. | E.4.1. Gai bakoitza garatu duten ikastetxeen portzentajea. E.4.2. Aukeratutako gaia eta TA21en artean erlazio zuzena duten esperientzien kopurua. E.4.3. Aukeratutako gaia bi ikasturteetan zehar landu duten ikastetxeen kopurua. |

(.../...)

(.../...)

| HELBURUA | ADIERAZLEAK |
|--|---|
| <p>E.5. Programaren garapenerako ikastetxeek duten antolakuntza baloratu.</p> | <p>E.5.1. Ingurumen Batzordearen bileren kopurua ikasturteko. E.5.2. Ingurumen Batzordeko bileren batez besteko iraupena. E.5.3. Ingurumen Batzordearen bileretako ordutegien banaketa eskola ordutegian. E.5.4. Zuzendaritzak Ingurumen Batzordean parte hartzen duen ikastetxeen kopurua. E.5.5. Programaren garapenerako beste erakunde batzuek sortu duten ikastetxeen kopurua (talde sustatzailea, ikasle boluntarioen taldeak...). E.5.6. Ikastetxeko erakundeetako bakoitzak (Klaustroa, Pedagogi taldea, tutoreak, ikasleen ordezkariak, gurasoen elkarteak, Eskola Kontseilua...) programaren garapenean erabili duen ordu-kopurua. E.5.7. Koordinatzailea aukeratzeko moduen sailkapena. E.5.8. Programarekiko koordinatzailearen gogobetetze maila. E.5.9. Koordinatzeko (koordinatzaileak eta Ingurugelako aholkularia) erabili diren bileren kopurua ikasturteko. E.5.10. Foro birtualen erabilpen maila ikastetxeetan.</p> |
| <p>E.6. Programaren eraginez ikastetxeetan izan diren hobekuntzak baloratu, honako hiru esparru hauek kontuan hartuz: kudeaketa, curriculumaren berrikuntza eta eskola komunitatearen partaidetza.</p> | <p>E.6.1. Programan jorratzen diren esparru (kudeaketa, curriculum eta partaidetza) bakoitzaren lantzeko ekintza planean jasotzen diren jardueren kopurua. E.6.2. Ikasturterako aurreikusitako jardueren guztiekiko egin diren kopurua. E.6.3. Programaren helburuen betetze maila neurtzeko adierazleak erabili dituzten ikastetxeen portzentajea. E.6.4. Aukeratu den gaiari loturiko kudeaketan lortu diren hobekuntzen portzentajea programaren hasierarekin konparatuz. E.6.5. Curriculumaren berrikuntzaren alorrean garatu diren ekintzen tipologiaren banaketa. E.6.6. Metodologiari buruzko hausnarketarako egin diren esperientzien kopurua. E.6.7. Partaidetzaren alorrean garatu diren ekintzen tipologiaren banaketa. E.6.7. Ikastetxeak duen gogobetetze maila programari dagokionez.</p> |

Hurrengo irudian, lehen garatutako fluxu-diagraman orain jarritako helburuen kokapena adierazten da. Era honetan, ikerketan agente eta harreman guztiak kontuan hartzen ditugula azpimarratzen da.



Ikerketaren helburuak:

- | | |
|------|--|
| I.1. | Hezkuntza eta Ingurumen sailen arteko koordinazioa ezagutu. |
| I.2. | Programa garatzeko sailek eskainitako baliabideak baloratu. |
| I.3. | TA21 eta EA21en arteko loturak ezagutu. |
| I.4. | Ikastetxeek udalerrietan eragindako hobekuntzak zehaztu. |
| I.5. | EA21en garapenerako udalek kontratatutako enpresen zeregina aztertu. |
| C.1. | Programaren garapenerako Ingurugelek eskainitako prestakuntza aztertu. |
| C.2. | Programaren garapenerako Ingurugelek eskainitako aholkularitza aztertu. |
| C.3. | Programaren garapenerako Ingurugelen antolakuntza eta funtzionamendua aztertu. |
| E.1. | Ikastetxeen partaidetza programan adierazteko deskribapen estatistikoa egin. |
| E.2. | Eskola komunitateko estamentu ezberdinen partaidetza programan aztertu. |
| E.3. | Ikastetxeek programan zehazten diren faseak eta metodologia bete dituztenentz egiaztatu. |
| E.4. | Programaren garapenerako ikastetxeek aukeratu dituzten gaiak ezagutu. |
| E.5. | Programaren garapenerako ikastetxeek duten antolakuntza baloratu. |
| E.6. | Programaren eraginez ikastetxeetan eman diren hobekuntzak baloratu, ondoko hiru eremu kontuan hartuz: kudeaketa, curriculumaren berrikuntza eta eskola komunitatearen partaidetza. |
| P.1. | Programaren potentzialtasunak eta ahuleziak identifikatu. |

5. IKERKETAREN FITXA METODOLOGIKOA

5.1. OBJEKTUA ETA ESPARRUAK

Objektua

2003-06 aldirako EAeko EA21 programa analizatu, hobetzeko proposamenak egiteko.

Populazio-esparrua

2003-04, 04-05 eta 05-06 ikasturteetan EAEn EA21 programan parte hartu duten ikastetxeen hezkuntza-komunitateetako kideak.

Ingurugeletako langileak eta horien administrazio-arduradunak.

Udalerriek kontratatutako ingurumen-hezkuntzako enpresak eta udal-zerbitzuak.

5.2. LAGINAREN DISEINUA

Laginaren diseinu zehatza 3. eranskinean agertzen da. Atal honetan fitxa metodologikoa azaltzen da.

Laginketa-mota

Hiru mailatan egin da laginketa:

- 1. maila: populazio globala (erakundeak, enpresak, ikastetxeak...).
- 2. maila: geruza bakoitzean, ikastetxeen ausazko hautapena biztanleria-geruza bakoitzarekin proportzionala izango da, 1. taulan ikus daitekeen moduan.
- 3. maila: geruza esanguratsuenetatik eredu-ikastetxeak aukeratzea.

Proiektuaren barnean hartutako laginen tamainak

1. maila: 2005-06 ikasturteko 245 ikastetxeak, aurreko ikasturteetako 169 memoriak eta 2005-06 ikasturteko 245 koordinatzaileak; horiez gain, Ingurugeletako 14 aholkulariak, horien administrazio-arduradunak eta udalerriek kontratatutako enpresak.

2. maila: 27 ikastetxe. 27 koordinatzaile; 135 irakasle; 135 ikasle; 135 familia eta 27 irakasle ez diren langile.

3. maila: 6 ikastetxe. 6 zuzendaritza-talde, 6 koordinatzaile eta 28 ikasle.

Ondorengo taulan ikusten da zelan geratu den probabilitatezko lagin estratifikatua:

| GERUZA | | BIZTANLERIA | | | | | | | | | | | | |
|------------------|----------|-------------|----|-----|---|------------|---|----------|---|-----|---|------------|---|---|
| | | PUBLIKOA | | | | | | PRIBATUA | | | | | | |
| SAREA | | LH | | DBH | | INTEGRALAK | | LH | | DBH | | INTEGRALAK | | |
| MAILA | | 1 | 2 | 1 | 2 | 1 | 2 | 1 | 2 | 1 | 2 | 1 | 2 | |
| Urteak programan | | | | | | | | | | | | | | |
| Taimana | | | | | | | | | | | | | | |
| POPULAZIOA | Araba | Txikia | 3 | 2 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 |
| | | Ertaina | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 3 | 1 |
| | | Handia | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 2 | 0 |
| | Bizkaia | Txikia | 13 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 2 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 |
| | | Ertaina | 5 | 2 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 5 | 3 |
| | | Handia | 0 | 0 | 6 | 2 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 9 | 0 |
| | Gipuzkoa | Txikia | 9 | 3 | 7 | 4 | 0 | 0 | 3 | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 |
| | | Ertaina | 2 | 1 | 3 | 2 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 8 | 0 |
| | | Handia | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 4 | 6 |
| LAGINA | | | | | | | | | | | | | | |
| LAGINA | Araba | Txikia | 1 | | | | | | | | | | | |
| | | Ertaina | | | | | | | | | | | 1 | |
| | | Handia | | | | 1 | | | | | | | | |
| | Bizkaia | Txikia | 3 | 1 | | | | | | | | | | |
| | | Ertaina | 1 | | 1 | | | | | | | | 1 | 1 |
| | | Handia | | | 1 | | | | | | | | 3 | |
| | Gipuzkoa | Txikia | 2 | 1 | 1 | 1 | | | 1 | | | | | |
| | | Ertaina | 1 | | 1 | | | | | | | | 2 | |
| | | Handia | | | | | | | | | | | 1 | 1 |
| Guztizkoak | | 8 | 2 | 4 | 2 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 8 | 2 | |
| | | 10 | | 6 | | 0 | | 1 | | 0 | | 10 | | |
| | | 16 | | | | | | 11 | | | | | | |
| | | 27 | | | | | | | | | | | | |

Laginen alde zehaztasuna

Bigarren mailan: batez bestekoen eta portzentajeen kalkulua, %99ko konfiantza-koefizientearekin, eta batez besteko 0,017ko errore-marjinarekin.

Laginen esleipena geruza bakoitzaren biztanleria-tamainarekiko proportzionala da.

Lortutako laginen tamainak

1. maila: 75 memoria eta 230 koordinatzaile; Ingurugetako 12 aholkulari, sail bakoitzeko administrazio-ar duradun bat eta udalerriek kontratatutako 4 enpresa eta 3 udal-zerbitzu.

2. maila: 28 koordinatzaile; 127 irakasle; 117 ikasle; 54 familia eta 22 irakasle ez diren langile.

3. maila: 6 zuzendaritza-talde, 6 koordinatzaile eta 28 ikasle.

Ondoren adierazten dira ikerketaren 2. maila honetan parte hartu duten ikastetxeak:

- *Araba*: CEP Dulantzi LHI (Dulantzi), La Milagrosa Ikastetxea (Laudio), Ies Zaraobe BHI (Amurrio).
- *Bizkaia*: CEP Alonsotegi LHI (Alonsotegi), CEP Ángel Larena LHI (Artzentales), Cooperativa Basauri (Basauri), CEP Arangoiti LHI (Bilbo), El Ave Maria Ikastetxea (Bilbo), IES Rekaldeberri BHI (Bilbo), IES Aixerrota BHI (Getxo), CEP Eduardo Eskartzaga LHI (Gordexola), Larramendi Ikastola (Mungia), Zubi Zahar Ikastola (Ondarroa), San Jose Carmelitas Ikastetxea (Santurtzi), CEP Maestra Emilia Zuza Brun LHI (Santurtzi).
- *Gipuzkoa*: CEP Karmelo Etxegarai LHI (Azpeitia), IES Urola BHI (Azpeitia), CEP J.A. Mogel Ikastola LHI (Eibar), Almen Ikastola/N.^a S.^a Dorleta Ikastetxea (Eskoriatza), CEP Urumea Ikastola LHI (Hernani), IES Dumboa BHI (Irun), San Miguel Arcángel Ikastetxea (Mutriku), IES Orixe BHI (Tolosa), CEP Gain-Zuri LHI (Urretxu), Urretxu-Zumarraga Ikastola (Urretxu), Salbatore Mitxelena Ikastola (Zarautz), La Salle-Legazpi Ikastetxea (Zumarraga).

Eta hirugarren mailan:

- *Araba*: La Milagrosa Ikastetxea (Laudio).
- *Bizkaia*: CEP Alonsotegi LHI (Alonsotegi), IES Elorrio BHI (Elorrio), Eskolabari Ikastetxea (Ermua), CEP Serantes LHI (Santurtzi).
- *Gipuzkoa*: Urretxu-Zumarraga Ikastola (Urretxu).

Lerro hauen bitartez programan parte hartu duten ikastetxe guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu egindako lanarengatik, eta bereziki eskertu nahi dugu irakasleek, familiek eta langile ez irakasleek egindako lana. Halaber, eskertzekoa da Ingurugeletako langileek, administrazio-arduradunek eta udalerriek kontratatutako enpresek emandako laguntza galdeketa eta elkarrizketak egiteko orduan. Gure eskerrik beroenak ikerketa honetan lagundu duten pertsona guztiei.

Aplikazio-datak

2006ko otsaila eta martxo.

5.3. ERABILITAKO TEKNIKAK ETA TRESNAK

Informazioa jasotzeko erabili dira teknika zuzenak (landa lanekoak) eta zeharkakoak (dokumentalak), eta gero haien artean triangelukatu.

| | TEKNIKA | 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA |
|---|---------------|---|---|--|
| TEKNIKA ZUZENAK EDO INTERAKTIBOAK | Galdetegiak | IG: Ingurumen Sailarentzako galdetegia. HG: Hezkuntza Sailarentzako galdetegia. CG: Ingurugelaren zuzendarientzako galdetegia. KG1: koordinatzaileentzako lehen galdetegia. KG3: koordinatzaileentzako hirugarren galdetegia. AG1: aholkularientzako galdetegia. A-AMSA: aholkulariei egindako AMSA. EG: udalek kontratatutako enpresentzako galdetegia. | KG2: koordinatzaileentzako bigarren galdetegia. IKG: ikastetxeentzako galdetegia (*) | |
| | Elkarrizketak | IHOBE-E: elkarrizketa IHOBE-ko teknikariek. | | IE: Koordinatzaileekin, zuzendaritza taldea eta ikasleekin elkarrizketa. |

(.../...)

(.../...)

| | TEKNIKA | 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA |
|---|--------------------------------|----------|----------|----------|
| ZEHARKAKO TEKNIKAK EDO EZ INTERAKTIBOAK | M: ikastetxeen memoriak | X | X | X |
| | CM: Ingurugelen memoriak | X | | |
| | EHAA/BOPV | X | | |
| | Hemendik kanpoko esperientziak | X | | X |

Erabili diren tresnak tipologia mistokoak izan dira, hau da, aldagai kuantitatiboak eta kualitatiboak neurtu dituzte. Ondoko taulan, agente, tresna eta adierazleen arteko harremana adierazten da (dena dela, galdetegiaren adierazleekiko baino informazio gehiago ateratzen saiatu gara).

| Zk | NORI ZUZENDUA | MOTA | KODEA ETA DESKRIBAPENA | ADIERAZLEAK | | | |
|-----|-----------------------------------|--------------|--|---|--|--|--|
| 1. | Koordinatzailea | Galdetegia | <i>KG1</i> Programa hasi aurretik koordinatzaileei zuzendutako galdetegia | I.2.3 | I.2.4 | E.5.7 | |
| 2. | Koordinatzailea | Galdetegia | <i>KG2</i> Koordinatzaileei zuzendutako bigarren galdetegia | P.1.1 P.1.2 P.1.3 I.3.3 I.3.4 I.4.1 I.4.2 | I.4.3 I.5.3 C.2.2 C.2.3 E.2.1 E.2.2 E.2.3 E.3.1 | E.3.2 E.3.3 E.5.1 E.5.2 E.5.3 E.5.5 E.5.6 E.5.8 | E.5.9 E.6.1 E.6.2 E.6.3 E.6.4 E.6.5 E.6.6 E.6.7 |
| 3. | Koordinatzaileak, ZT eta ikasleak | Elkarrizketa | <i>IE</i> | P.1.1 | P.1.2 | P.1.3 | |
| 4. | Aholkulariak | Galdetegia | <i>AG1</i> Aholkularientzako lehen galdetegia | I.3.1 I.3.2 I.5.3 C.1.1 | C.1.2 C.2.1 C.2.4 | C.2.5 C.3.1 E.4.2 | E.4.3 E.5.9 E.5.10 |
| 5. | Aholkulariak | Galdetegia | <i>KG3</i> Ikastaroaren koordinatzaileen ebaluazioa | C.1.3 | | | |
| 6. | Aholkulariak | AMSA | <i>A-AMSA</i> Aholkulariei egindako AMSA | P.1.1 | P.1.2 | P.1.3 | |
| 7. | Ingurumen Saila | Galdetegia | <i>IG</i> Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari zuzendutako galdetegia | I.1.1 I.1.2 | I.1.3 | I.1.4 | E.1.1 |
| 8. | Hezkuntza Saila | Galdetegia | <i>HG</i> Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari zuzendutako galdetegia | I.1.1 I.1.2 | I.1.3 I.1.4 | I.2.3 E.1.1 | |
| 9. | Ingurugela | Memoriak | <i>CM</i> Ingurugeletako memoriak | I.2.4 | C.3.2 | C.3.3 | |
| 10. | Ingurugela | Galdetegia | <i>CG</i> Ingurugeletako zuzendarientzako galdetegia | C.3.2 | C.3.3 C.3.4 | E.1.1 | E.4.2 |
| 11. | Ikastetxeak | Memoriak | <i>M</i> Ikastetxeen memoriak | I.3.2 I.4.2 I.4.3 E.2.2 | E.3.1 E.3.2 E.3.3 E.4.2 | E.4.3 E.5.1 E.5.4 E.5.9 E.6.1 | E.6.3 E.6.4 E.6.5 E.6.7 |
| 12. | IHOBE | Elkarrizketa | <i>IHOBE-E</i> IHOBEko teknikariekiko elkarrizketa | I | | | |
| 13. | Enpresak | Galdetegia | <i>EG</i> Udalek kontratatutako enpresentzako galdetegia | I.5.1 | I.5.2 | I.5.4 | I.5.5 I.5.6 |
| 14. | Ikastetxeak | Galdetegia | <i>IKG</i> Ikastetxeentzako galdetegia | E.2.1 | E.2.3 E.2.4 E.5.6 E.6.4 | E.6.5 E.6.6 E.6.7 E.6.8 | E.6.8 P.1.1 P.1.2 P.1.3 |
| 15. | Programa | BOPV-EHAA | <i>BOPV-EHAA</i> | I.2.1 | I.2.2 | E.4.1 | |



IKERKETAREN EMAITZAK

3

1. EA21 PROGRAMA BERA

HELBURUA

P.1. Programaren potentzialtasunak eta ahuleziak identifikatu.

ADIERAZLEAK

- P.1.1. Potentzialtasunak.
- P.1.2. Alderdi positiboak eta negatiboak.
- P.1.3. Beharrianak.

PROGRAMAREN POTENTZIALTASUNAK

1. Filosofia

XXI. mendeko hezkuntzarekin bat dator

EA21 programa XXI. mendeko hezkuntza berrirako erronka nagusiekin bat dator: aldaketa iraunkorren transformaziorako hezkuntza, hezkuntza kritiko-demokratikoa, ingurumen eta iraunkortasunerako hezkuntza, aniztasunerako hezkuntza, gizarterako (osasuna, generoa, kultura...) eta parte hartzeko hezkuntza, ikasketa-komunitateak...

Ingurumen-hezkuntza osorik

Programak markatzen dituen sentsibilizatzeko, ezaguera hartzeko eta kontzientzia lortzeko eta ekimen zuzenei ekiteko pausuak; garatzen duen ikuspegi orokorra eta konplexua; burutzen duen pentsaera globala eta tokiko ekimena; exijitzen duen diziplinartekotasuna; gizartearen eragileekin lan egiteko sortzen duen aukera; alde erreibindikatioari uzten dion lekua eta abar dira, azken finean, ingurumen-hezkuntzak planteatzen dituen elementu etikoak, kontzeptualak eta metodologikoak.

Gainera, Nazioarteko Ingurumen Hezkuntzako Hamarkada (2005-14) izateak elkartasuna eta elkarlanerako bideak zabaltzen ditu eta, tokiko ekimenarekin, planeta mailako proiektu batean hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea ahalbideratzen du.

Hezkuntza bera hobetzeko programa

Ikasleak bizitzako benetako elementuetan eragiten du, ingurumen hurbileko agenteekin erlazionatzen da, ikaspenak jokoan jartzen ditu eta, horrela, ikasitakoak zentzua hartzen du errealitatean: bere ezaguera eraikitzen du. Programa(k):

- Ikasleak protagonista bihurtzen ditu.
- Irakasleen talde-lana eta arlo arteko koordinazioa eskatzen du, diziplinartekotasunaren beharra dela eta.
- Ikasgaiak esanguratsuak izatea bultzatzen du.
- Ikaste-irakaste prozesuaz eta metodologiak hausnarketa egiteko eta berritzatzeko bide aproposa da.
- Familiei ateak zabaltzen dizkie.
- Ikastetxeetako irakasleen arteko elkarlana ahalbidetzen du.
- Paradigma psikopedagogiko eraikitzaile baten azpiegitura bermatzen du.
- Gainera, esperientziagatik, ondo uztartzen da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren hainbat programarekin (Hezkuntza Normalkuntza, Elkarbizitza, Aniztasuna, Generoa, Teknologia Berriak...).
- Zehar-lerro globala izateko ahalmena dauka, hau da, ikastetxe bateko proiektuei eman dakiekeen elkarren arteko koherentzia eta guztien ardatza izateko ahalmen handia dauka.

Herriaren dimentsioa eta udalerriarekiko lotura

Herrien etorkizunera begira, besteak beste, bi bide garrantzitsu zabaldu dira: herri hezitzaileak eta herri iraunkorrak izatea. EA21 programa bat dator printzipio horiekin eta, beste alde batetik, udalerriko gizartean eskolen hezkuntza-komunitateari dagokion paperagatik ezinbesteko tresna da.

- Eskola iraunkortasuna eta parte hartzeko beharrezko laborategia da eta programak hori bultzatzen du.
- EA21ek herriko eta gizartearen eragileen erabakietan ikastetxeen presentzia eta parte-hartzea ahalbidertzen du.
- Programak ikastetxea herrira hurbiltzen du eta herrira zabaltzen da. Herriaren dimentsioa eta guztion ondasunen ideia garatzen du. Bertan herriko erakundeekin, enpresekin, zerbitzuekin eta abarrekin harremanetan jartzen da, gogo eta sentsibiltate ugari ezagutzeko aukera emanez.
- Udalbatzan, herri mailan hobekuntza-proposamenak norabideratzeko aukera izateak proiektuari osotasuna ematen dio.
- Herriko erakundeen TA21en garapenearekin bat egiten du. Eskola eta Udalerrien arteko harremanak elkar elikatze baliagarriak dira.

2. Programaren ezaugarriak

- *Integratzailea*: hezkuntzako komunitate-agente eta elementu guztiak uztartzen ditu.
- *Erakargarria*: errealitateko behar bati erantzuten dio.
- *Behin betiko konpromisoa*: etorkizunerako programa bat da.
- *Malgua*: moldatzeko, ikastetxe eta herrien egoerara egokitzeko, hainbat mailatan parte hartzeko...
- *Akuilua*: ziria da zentroko hainbat esparrutan eragiteko, hausnarketa sorrarazteko, herri mailan jarduteko...
- *Koherentea*: helburuak lortzeko behar diren azpiegitura, laguntza eta babesa eskaintzen du.
- *Irekia*: erabatekoa ez izan arren, hainbat agenterengana eta aukeratara zabaldua dago.
- *Hornituta*: baliabide didaktikoak, diru-laguntzak, laguntza-orduak... eskaintzen ditu.
- *Erakustokia*: esperientzia interesgarriak zabaltzeko moduak sortzen ditu.

3. Azpiegitura

- Programa oso marko koherentea da hezkuntza, iraunkortasuna eta parte-hartzea sustatzeko. Gainera, programa garatzeko argi adierazita daude behar diren baldintzak eta jarraitu behar diren faseak eta pausuak.
- Epe luzearako programa da, lerro estrategikoa finkatzeko modukoa.
- Programak laguntza eta jarraipen sendoa eta sakona dauka ikasturtean zehar.

4. Prestakuntza

- Programak sare erako prestakuntza bultzatzen du (Ingurugelek koordinatzaileak prestatu, horiek Ingurumen Batzordekoak, gero klaustroa eta familiak, koordinazio bilerak egin, topaketak...).
- Ikasten ikastea ere bultzatzen du.

5. Erakundeak

- Oso garrantzitsua da Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Esparru Programan konpromiso modura agertzea. Horrek, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailen EA21 programarekiko konpromisoa adierazten du.
- Aipatzekoa da, era berean, programarekiko udal errekonozimendua, laguntza eta hartu-emanera ere.
- Beraz, oso inportantea da instituzioen arteko koordinazioa, lana eta ekimena.

6. Dimentsio berriak

Ikastetxe eta herrien artean zeuden harremanei dimentsio berri batzuk ematen dizkie programak:

- Ikastetxea (irakasle, ikasle eta langile ez irakasleak), familia eta udalerrria inplikatzeko dituen.
- Herri edota eskualde bateko ikastetxeen arteko talde-lana sortzen du.
- Ikastetxea eta bere inguruaren arteko erlazioak kokatzeko eredu eta tresna da.
- Ikastetxeak esperientziak trukatzeko aukerak ematen ditu (foroak, koordinatzaileen arteko bilerak, ekitaldiak...).
- Herri bateko ikastetxeek ekimen komunak egiteko aukera bultzatzen du.

7. Orain arte arrakastatsua

- Ikastetxe asko ari dira EA21 programa lantzen.
- Programaren garapenak ekartzen dituen hobekuntzak ikastetxe berriak erakartzen ditu.

Nabariak dira programa honen potentzialtasun handiak eta, horregatik, potentzialtasun horiek errealitate bihurtzea da esku artean dugun erronka nagusia.

ALDERDI POSITIBOAK ETA NEGATIBOAK

Ondorengo taulan irakur daitezke EA21 programan aritzen diren agenteek azpimarratu dituzten alderdi positiboak eta negatiboak:

| | ALDERDI POSITIBOAK | % | ALDERDI NEGATIBOAK | % |
|-------------------------|---|---|--|--|
| AHOLKULARIAK | <ul style="list-style-type: none"> — Eusko Jaurilaritzaren konpromisoa. — Epe luzerako programa — Udalen inplikazioa eta aintzatespena — Diru-laguntzak, ordutegi, prestakuntza, aholkularitza, ikasmaterial eta abarretarako laguntzak — Hezkuntza-komunitate osoa inplikatzeko du; baita hezkuntza-komunitatea udalerriarekin ere — Ikasten ikastea sustatzen du — Ikastetxeen artean esperientziak trukatzeko eta batera lan egiteko bideak sustatzen ditu — Jarraipen sendoa eta sakona egiten da — Ezaugarriak: ingurumen-hezkuntzarako esparru koherentea, egitura sendoa, ikuspegi zabala, malgua, integratzailea, motibatzailea, konplexua, eraikuntza-prozesua... — Ikastetxeen garatzen diren zehar-lerroetarako eta proiektuetarako esparrua izan daiteke <ul style="list-style-type: none"> • xxi. mendeko hezkuntzarekin bat dator • Orain arte ikastetxeetan egindako lana eta orain egiten ari dena, era koherenteagoan egiteko proposamena • Hezkuntza-berrikuntza eta -hobekuntzarako elementu berritzailea. • Koordinatzaileen interesa eta dedikazioa | AMSAtik hartua | <ul style="list-style-type: none"> — Bestelako hezkuntza-programekiko konexio ofizial eskasa — Udalerrien arabera aldatu egiten da inplikazio maila — Konplexutasuna — Gizartean iraunkortasunari buruz zabalduak pertzepzio desberdinak — Curriculumean aintzat hartzeko zailtasunak — Aholkularien arteko koordinazioa hobetzeko beharra — Aholkulari gehiago behar dira — Baliabide didaktikoak falta dira: gida zehatza, ereduak, adibideak, eta abar — Sare itunduan laguntza-orduak falta dira — Eskatzen den koordinazioak zailtasunak dakartza (batez ere DBHn) — Ez dago errotuegia ikastetxeen Hezkuntza Proiektuetan — Ingurumen Batzordeak, Foroak eta abar antolatzeko zailtasunak — Hezkuntza-komunitate osoak parte hartzeko ohitura falta | AMSAtik hartua |
| KOORDINATZAILEAK | <ul style="list-style-type: none"> — Ingurumen-sentsibilizazioa sustatzen du hezkuntza-komunitateko estamentu guztietan, batez ere ikasleen artean — Estamentu guztien parte-hartzea sustatzen du, batez ere ikasleena — Estamentu desberdinen arteko harremanak sendotzen ditu — Ingurumen-hezkuntza sustatzen du — Udalerrria-ikastetxea harremana indartzen du | <p style="text-align: center;">%37</p> <p style="text-align: center;">%19</p> <p style="text-align: center;">%19</p> <p style="text-align: center;">%19</p> <p style="text-align: center;">%6</p> | <ul style="list-style-type: none"> — Hainbat estamenturen jarrera pasiboa (irakasleak, familiak...) — Irakasleen lana areagotzen da — Programaren egitura zorrotza (burokrazia, metodologia, zailtasunak...) — Laguntza-ordutegi gutxi — Ikasturte bat ez da nahikoa — Hainbat (curriculumari lotzeko zailtasunak, materialen egokitzapena...) | <p style="text-align: center;">%39</p> <p style="text-align: center;">%23</p> <p style="text-align: center;">%17</p> <p style="text-align: center;">%7</p> <p style="text-align: center;">%7</p> <p style="text-align: center;">%7</p> |
| IRAKASLEAK | <ul style="list-style-type: none"> — Ingurumen-hezkuntza sustatzen du — Hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea sustatzen du — Baliabideen kudeaketa hobetzen du — Hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea ahalbidetzen du — Irakatsi eta ikasteko prozesua interesgarriago egiten du — Talde-lana sustatzen du — Beste ikastetxe batzuekin lan egiteko beharra sustatzen du — Eskola-udalerrria konexioa indartzen du | <p style="text-align: center;">%47</p> <p style="text-align: center;">%26</p> <p style="text-align: center;">%8</p> <p style="text-align: center;">%6</p> <p style="text-align: center;">%5</p> <p style="text-align: center;">%4</p> <p style="text-align: center;">%2</p> <p style="text-align: center;">%2</p> | <ul style="list-style-type: none"> — Ikasturte bat ez da nahikoa, denbora falta da — Irakasleentzat lan gehiegi — Egitura zorrotza — Parte-hartze eskasa — Emaita esanguratsuak lortzeko zailtasunak — Laguntza gutxi (diru-laguntzak, ordutegi-liberazioa, baliabideak...) — Informazio gutxi — Erakundeen jarrera eskasa | <p style="text-align: center;">%19</p> <p style="text-align: center;">%16</p> <p style="text-align: center;">%15</p> <p style="text-align: center;">%14</p> <p style="text-align: center;">%11</p> <p style="text-align: center;">%9</p> <p style="text-align: center;">%8</p> <p style="text-align: center;">%8</p> |
| IKASLEAK | <ul style="list-style-type: none"> — Ikastetxeko baliabideen kudeaketa hobetzen du — Ingurumen-sentsibilizazioa sustatzen du — Ikastea interesgarriago bihurtzen du — Irakasleen parte-hartzea sustatzen du | <p style="text-align: center;">%33</p> <p style="text-align: center;">%31</p> <p style="text-align: center;">%23</p> <p style="text-align: center;">%13</p> | <ul style="list-style-type: none"> — Denbora gutxi — Jolas-orduak galtzen dira — Jarduera gutxi egiten dira — Udala ez da asko inplikatzeko — Irakaskuntza-orduak galtzen dira — Parte-hartze eskasa — Lan handia egin behar da | <p style="text-align: center;">%23</p> <p style="text-align: center;">%18</p> <p style="text-align: center;">%15</p> <p style="text-align: center;">%13</p> <p style="text-align: center;">%3</p> <p style="text-align: center;">%10</p> <p style="text-align: center;">%8</p> |
| FAMILIAK | <ul style="list-style-type: none"> — Hezkuntza-komunitatearen sentsibilizazioa sustatzen du — Hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea sustatzen du — Garapen iraunkorra egiten laguntzen du — Seme-alabekin ingurumen-arazoei buruz hitz egiteko aukera ematen du — Ikastetxeen arteko harremanak sustatzen ditu | <p style="text-align: center;">%48</p> <p style="text-align: center;">%24</p> <p style="text-align: center;">%14</p> <p style="text-align: center;">%7</p> <p style="text-align: center;">%7</p> | <ul style="list-style-type: none"> — Ez du familien parte-hartzea sustatzen — Informazio gutxi — Teorikoegia — Gaien jarraipen eskasa — Boluntarioa denez, inplikazio eskasa | <p style="text-align: center;">%50</p> <p style="text-align: center;">%25</p> <p style="text-align: center;">%15</p> <p style="text-align: center;">%5</p> <p style="text-align: center;">%5</p> |

(.../...)

(.../...)

| ALDERDI POSITIBOAK | | % | ALDERDI NEGATIBOAK | | % |
|--------------------|---|-----|--------------------------|----------------|-----|
| EZ IRAKASLEAK | — Ikastetxearen ingurumen-kontzientziazioa areagotzen da | %24 | — Baliabideak falta dira | | %14 |
| | — Hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea sustatzen du | %20 | — Kontzientzia falta da | | %14 |
| | — Ohitura onak bereganatzen laguntzen du | %12 | — Burokrazia handiegia | | %10 |
| | — Ikastetxerako baliabide gehiago lortzea ahalbidetzen du | %4 | — Informazio gutxi | | %10 |
| | — Beste batzuk | %12 | — Egitura zorrotza | | %5 |
| | — Ez daki/erantzunik ez | %28 | — Bat ere ez | | %5 |
| | | | | — Beste batzuk | |
| | | | — Ez daki/erantzunik ez | | %32 |

BEHARRIZANAK

1. Programaren definizioa

Programak ez dauka definizio argirik edo, behintzat, ez dago bateratuta dokumentuetan.

- *Zer.* Programa honek potentzialtasun handiak ditu; baita bere garapenerako baliabideak eta konpromisoak ere. Hala ere, ikerketaren emaitzen arabera gogobetetze maila «ona» izan arren, programak ez ditu dauzkan aukera guztiak garatzen. Horretarako, arrazoi ugari daude, asko programari berari dagozkionak eta beste batzuk ikastetxearen ondorio direnak. Baina, guztiak? Ez ote daude batzuk programa garatzeko erabili den ikuspegiari lotuta? Badago, gure ustez, zer hausnartu eta zer proposatu, azkenean ikastetxe askoren artean egindako beste programa bat baino ez izatea nahi ez badugu. Programa, benetan, *xxi. mendeko hezkuntzarekin* ari da garatzen? Edo *ingurumen-hezkuntzaren* zentzu osoa garatzen du? *Hezkuntza hobetzeko* erabiltzen ari da?
- *Zertarako.* Egia da ikastetxeek ondo baloratzen dutela herri mailako proiektu batean parte hartzea, beste ikastetxe batzuekin batera aritzea, Foroetara dituzten proposamenak aurkeztera joatea... Hori guztia egia da, baina, era berean, egia da programak ikastetxe barruan ez duela zirrara berezirik sortzen ezta ohiko talde txikitik kanpo atxikimendu berezirik ere. Ikastetxeak herrian egin dezakeena, edota beste ikastetxe batzuekin batera landu dezakeena baloratzen baldin badu ere —bereziki esperientzia izan eta gero—, horien guztien gainetik jartzen du *ikastetxearen egoerari modu egokian erantzuteko tresna bat* izatea. EA21 programa tresna horietako bat izan daitekeela ikusten baldin badu, orain baino errazago ikusiko dizkio onurak eta alde positiboak, nahiz eta, beti bezala, horiek lortzeko lana egin behar izan. Programa, ohiko gaien arabera hartuta eta gaia nukleoa izanda, ez doa ikastetxeak dauzkan arazotara, ezta horiek konpontzera edo hobetzera (hala nola aniztasuna, immigrazioa, generoa, bulling-a, elkarbizitza...).
- *Nori zuzendua.* Programa honen protagonista nagusia ikaslea da, baina programa honetan sartzea erabakitzen dutenak *irakasleak* dira, gero Hezkuntza komunitatearen atxikimendua izango du.
- *Ereduak.* Eskola batek iraunkorra den edo iraunkortasunaren bidean doan ala ez jakiteko *ez dauka eredurik*, ez dauka adierazlerik. Bidea ibilean egiten da.
- *Etorkizuna.* Gobernuaren konpromisoa ikastetxeen %100era heltzea da. Baina, helburua zein izan behar da? Gero eta zentro gehiago izatea ala gero eta *proiektu hobea* eta sendoagoa duten ikastetxeak lortzea?

Aurrera begira, IHko programa honetan, besteak beste, hobekuntza batzuk lortzeaz gain, bi arrisku nabarmen hartu behar dira kontuan:

- Kudeaketan bakarrik geratzea: zenbat bilera, fakturak, gastuen kontrola...
- Ikastetxearen gainerako proiektu edo ekimenekin konexio gabeko beste programa bat izatea eta bakarrik ingurune naturalez arduratzea.

2. Xedea eta helburuak

- *Iraunkortasunerako hezi. Eskolako Agenda 21: eskolarako gidan* helburu gisa zenbait definizio agertzen dira.
- Ikastetxe batzuek ez daukate *argi* zein den programaren helburua.

3. Gaiak eta iraupena

- *Gai bat* izateak EA21 programaren garapena zentratu eta errazten du.
- Programak horrenbeste *fase* izateak ez du laguntzen gaian sakontzen, ez dago astirik horretarako.
- Koordinatzaile batzuk otsailean *egoera* arraro batetan kokatzen dira: alde batetik, aurreko ikasturteko gaiarekin bukatzen, ikasturte honetakoa garatzen eta, jadanik, hurrengo ikasturterako gaia zein izango den erabakitzen. Egoera nahasi batean murgilduta daude eta hori ez da ona, ez ikastetxerako, ez programarako.
- *Gai bera* herrian, herriko ikastetxe guztietan, baina ikastetxe guztien egoera eta kezkek berdinak dira? Ikastetxeen beharrianak betetzen ditu?
- Hurrengo ikasturtean sartuko den *ikastetxe berri* batek ezin izango du programan dauden ikastetxeek jadanik landutako gai bat garatu?
- Gehien bat *kudeaketari* lotutako gaiak landu dira.

4. Ebaluazioa

- Ez dago ez programa, ez ikastetxeen proiektuak ebaluatzeko *azpiegitura* bat.
- Erakundeek ikastetxe *kopurua* bakarrik baloratzen dute.
- Ingurugelek eguneroko jarraipenak ematen dituzten *sentsazioak* eta *pertzepzioak* izan dira erabili dituzten baloratzeko bideak.
- Ikastetxeek helburuak noraino lortzen dituzten neurtzeko, orokorrean, ez dute jarritako *adierazlerik* erabili. Memoretan agertzen den ebaluazioa sentsazioetan baino ez da oinarritzen.
- Programari buruzko agenteen *balorazioa* ona da.
- Beste alde batetik, ikastetxeek ez dute ikusten egindako *lanaren baloraziorik*, bakarrik fakturak eskatzen direla, eta ez dagoela berenganako detailerik, errekonozimendurik. Oso inportantea izanik, arlo emozionala ere ez da zaintzen, ez da lantzen (ikus elkarrizketak).

5. Ikastetxeekiko errekonozimendua

- Programa bultzatzen dutenen artean eta programan parte hartzen duten ikastetxeen artean, horrenbeste lan egin eta gero, *errekonozimendu falta* nabaritzen dute, eta beraz motibazio eza agertzen da (ikus elkarrizketak).
- Aholkulariek ondo ikusten dute holako *errekonozimendu* bat izatea.
- *Hainbat herrialdetan* eskolen lana errekonozitzeko eta motibatzekeo agiria, saria edota ikurra ematen da.
- Beste programa batzuek sari edota ikur hori erabiltzen dute eta ondo *baloratuta* dago.

2. INSTITUZIOEI BEGIRA

| HELBURUA |
|---|
| I.1. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailen arteko koordinazioa ezagutu. |

| ADIERAZLEAK |
|---|
| I.1.1. Bi sailen arteko koordinazio organoa existitzen da. I.1.2. Betetzen den bileren egutegi bat dago. I.1.3. Betetzen den planifikazioa dago. I.1.4. Etorkizunerako proiektua dago. |

— EAEko ingurumen-hezkuntzaren garapenak ondorengo hiru lege-oinarri ditu:

- DEKRETUA, 1989ko irailaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko «Ingurumenarekiko Irakasbiden Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegia»ren (IIHII) sortze eta jardute-modua arautzen duena.
- AGINDUA, 1996ko ekainaren 26koa, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen sailburuarena eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, unibertsitateaz, kanpoko hezkuntza sistemari Ingurumenarekiko Irakasbideen bidez, ingurumen hezkuntzaren garapena arautzen duena.
- AGINDUA, 1998ko ekainaren 22koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa, eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen sailburuena Unibertsitateaz Kanpoko Hezkuntza Sistemako Ingurumen Hezkuntzarako Egitaraua onartzen duena.
Agindu horretan zera agertzen da: «IIHII ikastegietako jardunen zuzendaritza, ikuskapena eta koordinazioa Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak egingo ditu, zeinak horretarako beharrezko diren baliabide pertsonal eta materialak bideratuko dituen, Ingurumen hezkuntzako Zerbitzuaren bitartez.»


— Bi sailen arteko koordinazioa bideratzeko, bilera egiten dituzte aldiro Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak. Aurrera begira duten egutegi erreferentzia Ingurumen Esparru-Programaren konpromisoetan agertzen da.

| HELBURUA |
|---|
| I.2. Programa garatzeko sailek eskainitako baliabideak baloratu |

| ADIERAZLEAK |
|---|
| I.2.1. Programaren garapenerako ikasturte bakoitzeko sailek emandako diru-laguntza. I.2.2. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak koordinatzaileei eskainitako laguntza orduak ikasturte bakoitzeko. I.2.3. Koordinatzaileentzat laguntza orduak dituzten ikastetxeen portzentajea. I.2.4. Laguntza orduen arabera ikastetxeen portzentajea. |

— Aurreikusitako *diru-laguntzak* ondoko taulan agertzen dira:

Diru-laguntzak ikasturteko



| IKASTURTEA | 2003-04 | 2004-05 | 2005-06 | 2006-07 |
|---|--------------|--------------|--------------|--------------|
| IHko proiektuetarako jarritako diru kopurua | 422.000 euro | 422.000 euro | 600.000 euro | 785.000 euro |
| Espezifikoki EA21 | 170.000 euro | 170.000 euro | 280.000 euro | 654.000 euro |

— Eskainitako *laguntza orduak* sare publikoan 2005-06 ikasturtean:

| | |
|----------------------|--------|
| < 10 irakasle | 2 ordu |
| 10 < x < 40 irakasle | 4 ordu |
| > 40 irakasle | 6 ordu |


Hala ere, eskubide hori gauzatzeko arazoak daude, eta adibidez, 2005-06 ikasturte honetan LHko koordinatzaileen %21ek ez du laguntza-ordurik izan. Berriz, DBHko Erabakian agertu ez arren praktikan, hobeto sustatuta daude koordinatzaile guzietan laguntza-ordua izan baitituzte.

— Koordinatzaileen %75ek badauzkate *laguntza orduak*; gainerakoek, ez.


— Laguntza orduen arabera:

| ORDU KOPURUA | KOORDINATZAILE KOPURUA | |
|--------------|------------------------|-----|
| 1 | 15 | %10 |
| 2 | 52 | %34 |
| 3 | 32 | %21 |
| 4 | 22 | %14 |
| 5 | 4 | %3 |
| 6 | 26 | %17 |
| 7 | 1 | %1 |

Ikastetxeen portzentajea laguntza orduen arabera



Laguntza orduak sarearen arabera



— Laguntza orduak *sarearen arabera*:

| LIBERAZIO ORDUA | ITUNDUA | | PUBLIKOA | |
|--------------------|---------|-----|----------|-----|
| | | | | |
| 0 | 42 | %50 | 19 | %15 |
| 1 | 10 | %12 | 5 | %4 |
| 2 | 21 | %25 | 31 | %24 |
| 3 | 6 | %7 | 26 | %20 |
| 4 | 3 | %4 | 19 | %15 |
| 5 | 2 | %2 | 3 | %2 |
| 6 | 0 | — | 25 | %19 |
| 7 | 0 | — | 1 | %1 |

HELBURUA

I.3. TA21 eta EA21en arteko loturak ezagutu

ADIERAZLEAK

- I.3.1. Ikasturtearen hasieran Udalekin hitzarmena sinatu duten ikastetxeen portzentajea.
- I.3.2. Ikasturte bakoitzeko ikastetxeek egindako audientzien kopurua.
- I.3.3. Udalerriari begira ikastetxeek egindako proposamenen artean udalek onartutakoen portzentajea.
- I.3.4. Udalaren jarrerarekiko koordinatzaileen gogobetetze maila.

- 2005-06 ikasturtearen hasieran udalekin *hitzarmena* sinatu duten ikastetxeen kopurua aurreko ikasturtean 57 izan zen, eta honetan, 68.
- 2004-05 ikasturtean 66 ikastetxek *audientzia* bat izan zuten eta 49 ikastetxek bi.
- Koordinatzaileen iritziz, udalerriari begira ikastetxeek egindako proposamenen artean *udalek onartutakoen* portzentajea.

| ONARTUKO PROPOSAMENEN... | IKASTETXE KOPURUA | |
|--------------------------|-------------------|-----|
| %0-%20 | 4 | %14 |
| %21-%40 | 0 | %0 |
| %41-%60 | 3 | %11 |
| %61-%80 | 4 | %14 |
| %81-%100 | 2 | %7 |
| Ez dakite | 15 | %54 |

- Udalaren jarrerarekiko koordinatzaileen %42k *gogobetetze maila* «nahikoa» adierazten dute; %29k «ona» edo «oso ona»; eta %18k «eskasa» edo «oso eskasa». %11k ez daki edo ez du erantzuten.

HELBURUA

I.4. Ikastetxeek udalerrietan eragindako hobekuntzak zehaztu.

ADIERAZLEAK

- I.4.1. Ikastetxeek egindako sentsibilizazio ekintzen kopurua udalerrian.
- I.4.2. Udalerriaren ingurumena hobetzeko ikastetxeek egindako jardueren kopurua.
- I.4.3. Udalerriek antolatzen dituzten ingurumen ekintzetan (Aste Berdea, Zuhaitz Eguna, Mugikortasun Astea.) parte hartu duten ikastetxeen portzentajea.

- Øro har, ikastetxe gehienek egin dituzten *sentsibilizazio ekintzen* kopurua udalerrian bat (%38k) edo bi (%27k) izan dira.
- *Udalerriaren ingurumena hobetzeko* ikastetxe gehienek (%56k) ekintza bat, bi edo hiru egin dituzte; %32k ez du batere egin.
- *Udalerriek antolatzen* dituzten ingurumen ekintzetan (Aste Berdea, Zuhaitz Eguna, Mugikortasun Astea.) ikastetxeen %88k parte hartu du.
- Udal laguntza, *teknikariek* duten kontratuaren tipologiari buruz %30 udal teknikaria da eta %60 kontratatutako enpresa baten langilea da. Batez besteko iraupenari dagokionez, %57k urtebetetik gorako kontratua dauka, %30ek urtebetekoa eta %15ek urtebetetik beherako kontratua dauka.

HELBURUA

I.5. EA21en garapenerako udalek kontratatutako enpresen zeregina aztertu.

ADIERAZLEAK

- I.5.1. Enpresetako teknikariek duten kontratuaren tipologia eta batez besteko iraupena.
- I.5.2. Ikastetxeetako koordinatzaileekin egindako bileren kopurua ikasturteko.
- I.5.3. Enpresetako teknikarien lanarekiko aholkularien eta koordinatzaileen gogobetetze maila.
- I.5.4. Enpresek ikastetxeentzat egindako jardueren tipologia eta kopurua.
- I.5.5. Enpresek ikastetxeentzat egindako materialen kopurua.
- I.5.6. Eskolek enpresei egiten dizkieten eskakizun kopurua eta tipologia.

- Enpresetako teknikarien %40k 7-9 *bilera* egin ditu ikastetxeetako koordinatzaileekin, %30ek 4-6 eta beste %30ek 1-3 bilera.
- Enpresetako teknikarien lanarekiko aholkularien %66k eta koordinatzaileen %60k «ona» edo «oso ona» *baloratzen* du. Aldiz, aholkularien %17k eta koordinatzaileen %4k «eskasa» edo «oso eskasa».
- Udalek kontratatutako enpresen %72k, ikasturtean zehar, sei *jarduera* baino gehiago prestatu dute ikastetxeetarako, %43k zortzi baino gehiago. Jardueren %22 irteerak izan dira, %19 ibilbideak, %15 edukien egokitzapena izan da eta beste horrenbeste hitzaldiak prestatu.
- Udalek kontratatutako enpresen %83k bi material edo gehiago prestatu dituzte ikastetxeentzat, 2004-05 ikasturtean.
- Udalek kontratatutako enpresen %66k, ikasturtean zehar, sei *eskaera* baino gehiago jaso dute ikastetxeengandik, %33k zortzi baino gehiago. Eskaren %26 irteerarako izan dira, %22 materialak ikasgelan erabiltzeko, %11 ingurumena hobetzeko jarduerak garatzeko da eta beste horrenbeste hitzaldiak prestatzeko.


3. INGURUGELARI BEGIRA

| HELBURUA |
|---|
| C.1. Programaren garapenerako Ingurugelek eskainitako prestakuntza aztertu. |

| ADIERAZLEAK |
|--|
| C.1.1. Ikastetxeei zuzendutako prestakuntza orduen kopurua (ordu kopurua/ikastetxea) |
| C.1.2. Prestakuntza ikastaroetan egon diren ikastetxeen eta parte hartzaileen kopurua. Kontuan hartuko dira ondoko ikastaroak: 40 ordukoa, 10 ordukoa eta 40 orduko «on line» ikastaroa. |
| C.1.3. Prestakuntza ikastaro mota bakoitzean parte hartzaileek duten gogobetetze maila. |

- 2005-06 ikasturtean aholkulariek eman dituzten *ikastaroen* iraupena, batez beste eta gehien bat, 40 ordukoa izan da. Baina, aholkularien %80 baino gehiagok 40 orduetik gora erabili ditu prestakuntzarako.
- Ikastaroetan, jasotako datuen arabera, 178 ikastetxek eta 479 irakaslek *parte hartu* dute 2005-06 ikasturtean.
- Ikastaroak ezinbestekotzat jotzen dira eta oso ondo *baloratuta* daude.
- Ikastaroetan, parte-hartzaileek balorazio *positibokoak* nabarmentzen dituzte: garatutako dinamikak, sortutako talde lana, tutoreen jarrera (motibagarria, lagungarria, lasaigarria...), lortutako giroa, emandako informazioa eta motibazioa, eta banatutako materialak eta horien antolaketa. Ikastetxeen artean izan den esperientzien trukaketa ere bai, bereziki, EA21 programan esperientzia zeukatenean eta koordinatzaile betereanoen artean izandakoa.

Ikastetxe-eta irakasle-kopurua prestakuntza-motaren arabera



| | 10 ORDU | 40 ORDU | ONLINE IKASTAROA |
|-------------------|---------|---------|------------------|
| Ikastetxe-kopurua | 100 | 78 | 7 |
| Irakasle-kopurua | 381 | 98 | 7 |

- *Hobetzeko* arloan denboralizazioa (bai denbora gutxi dela adierazteko, bai ikastaroaren denbora antolakuntzaren inguruan), informazio gehiegi ematen dela eta praktikoagoa egin behar dela adierazten da. Era berean, zalantza handiak sortzen dira Foro Birtualen erabilpena dela-eta (arrazoi ugari dira tartean). Batzuetan, logistikako elementuak dira negatiboak: tokia, fotokopien itxura eskasa, diapositiba txarrak...

- Koordinatzaile eta zuzendari askok *klaustroan ikastaroak* egitea komenigarria dela esaten dute bai motibatzeke, bai informazio ona bermatzeko (kontzeptu berriak, faseak, programaren helburuak...), bai prestakuntza egokiagoa lortzeko.

HELBURUA

C.2. Programaren garapenerako Ingurugelek eskainitako aholkularitza aztertu.

ADIERAZLEAK

- C.2.1. Ingurugeletako aholkulariek programan dauden ikastetxeekin izan dituzten bileren kopurua ikasturte bakoitzeko (ordu-kopurua/aholkularia/ikastetxea).
- C.2.2. Programaren garapenerako Ingurugelek eskainitako materialek sortzen duten interes maila ikastetxeetan.
- C.2.3. Jasotako aholkularitzarekiko koordinatzaileek adierazten duten gogobetetze maila.
- C.2.4. Ingurugeletako bulegoetan programarekin erlazionatuta hartu diren argibideen kopurua eta tipologia.
- C.2.5. Programarekiko aholkularien gogobetetze maila.

- Aholkulariek daukate, batez beste, ikastetxeekin 3 *bilera* urteko eta 6 koordinazio bilera urteko.
- Aholkulariek, batez beste, astero 3-4 *argibide* eskaera jasotzen dituzte eta, batez ere, materialak eskatzeko, prozesuaren diseinuaz eta antolakuntzaz galdetzeko, parte hartzeari buruzko zalantzak eta jarduera konkretuak eskatzeko dira.
- Aholkularitzarekiko *koordinatzaileen gogobetetze maila* ona da, %67k «ona» edo «oso ona» dela baloratzten du, aldiz, %10ek «eskasa» edo «oso eskasa».
- EA21 programarekiko *aholkularien gogobetetze maila* ona da. Ia %60k ona edo oso ona dela adierazten dute. Aipagarria da balorazio negatiborik ez egotea.
- Aholkulariek aholkularitza *hobetzeko* proposamenetan aholkularien arteko koordinazioa hobetzea eta sistematizatzea nabarmentzen dira, baita ikastetxe bakoitzarekiko atentzioa handitzea eta materialen kudeaketa hobetzea ere.
- Aholkularitzarekiko gogobetetze maila altuena ikastetxe *txiki*etan (ona eta oso ona %70) eta LHn (%75) izaten da. Bestalde, ikastetxe *publiko*etan (%73) *privatu*etan (%57) baino balorazio hobea egiten da. Deigarria da bi urtekoen artean dagoen balorazio negatiboen portzentajea (%34), urte batekoen aldean (%5).

HELBURUA

C.3. Programaren garapenerako Ingurugelen antolakuntza eta funtzionamendua aztertu.

ADIERAZLEAK

- C.3.1. Aholkulari bakoitzeko programan dauden ikastetxeen kopurua ikasturte bakoitzeko.
- C.3.2. Programa garatzeko Ingurugelek erabili duten denboraren portzentajea ikasturte bakoitzean.
- C.3.3. Programa garatzeko eta jarraipena egiteko Ingurugelen koordinaziorako erabili diren orduen kopurua. Kontuan hartuko dira Ingurugela barruko eta gainerako Ingurugela arteko bilerak.
- C.3.4. Programari begira, Ingurugeletako teknikariek prestakuntzarako erabili duten orduen kopurua ikasturteko (ordutegi barruan eta kanpo).

- Hiru ikasturte hauetan aholkulari bakoitzeko *ikastetxe kopurua*, batez beste, 5, 11 eta 19 izan da. 2005-06 ikasturte honetan, batez bestekoa hori izanik gehien errepikatzen den ikastetxe kopurura 29 da.
- Programa garatzeko Ingurugelek erabili duten *denboraren* portzentajea:

| | |
|---------|-----|
| 2003-04 | %30 |
| 2004-05 | %40 |
| 2005-06 | %60 |

- Ingurugelek programa garatzeko hilabeteko erabiltzen duen ordu kopurua *koordinazio* bileretan.

| | |
|--|----------|
| Ingurugela bakoitzaren batez besteko koordinazio orduak | 5,5 ordu |
| Ingurugela guztien arteko batez besteko koordinazio orduak | 3 ordu |

- Ingurugeletako zuzendarien *gogobetetze maila* «ona» da, aholkularien artean izaten den *koordinazioari dagokionez*.
- *Koordinazioarekiko* aholkularien erdiak «nahikoa» dela adierazten du, eta %83k «nahikoa» eta «ona» balioen artean kokatzen da. Aipatzen da koordinazioa ez dela bakarrik landu behar aholkularien artean, baizik eta beste maila batzuetan ere (Hezkuntza eta Ingurumen Sailak, Tokiko Agendarekiko loturak...).
- Koordinazioa hobetzeko, bereziki, koordinazioaren sistematizazioaren aldeko *proposamenak* agertzen dira, besteak beste, hauexek:

1. *Antolakuntza:*

- a) Talde txikien eraketa hainbat arlo lantzeko (koordinazioa, erabakien jarraipena, faseak, hizkuntza komuna...).
- b) Ingurugelen arteko aldizkako bilera bakoitzean talde bakoitzak egindakoaren txosten laburra azaltzea.

2. *Funtzionamenduaren sistematizazioa:*

- a) Oinarri komun bat ezarri, bere helburu eta adierazleekin.
- b) Eredu homogenea gaika eta gai bakoitzeko material eta esperientzia berrien txertaketaz eta zabalkundeaz arduratzen den norbait.
- c) Ikastetxeen koordinazio bileretarako protokolo bateratuta.
- d) Ikastetxe bakoitzeko aholkularitzarako protokolo bateratuta.
- e) Prozeduraren gida bat egin.

3. *Materialak:*

- a) Berrantolaketa sistematizatu bat.
- b) Zerbait interesgarri egiten edo jakiten den bakoitzean sistematizatu dugun egituraren eskegi eta baita Intranet-en jarri.

4. *Denbora:*

- a) Koordinaziorako denbora gehiago.
- b) Bileren maiztasuna handitu.

5. *Prestakuntza* jardunaldiak urtero antolatu.

6. *Maila pertsonalean:* hartzen diren erabakiak bereganatu eta jarraitu.

4. ESKOLARI BEGIRA


HELBURUA

E.1. Ikastetxeen partaidetza programan adierazteko deskribapen estatistikoa egin.

ADIERAZLEAK

E.1.1. Programan parte hartzen duten ikastetxe eta ikasleen kopurua eta portzentajea lurraldeka eta erki-degoan. Ondoko ikastetxe mota hartuko dira kontuan: publikoak eta hitzarmenduak; derrigorrezko hezkuntzakoak; ikastetxeen tamaina ikasle kopuruaren arabera.

Ikastetxeen parte-hartzea EA21 programan




| | Pb | Pr | G | Pb | Pr | G | Pb | Pr | G |
|----------|----|----|----|----|----|-----|-----|----|-----|
| Araba | 3 | 2 | 5 | 8 | 8 | 16 | 15 | 13 | 28 |
| Bizkaia | 8 | 4 | 12 | 34 | 22 | 56 | 68 | 42 | 110 |
| Gipuzkoa | 10 | 14 | 24 | 31 | 25 | 56 | 70 | 37 | 107 |
| Guztira | 21 | 20 | 41 | 73 | 55 | 128 | 153 | 92 | 245 |

Pb: Publikoa
 Pr: Pribatua
 G: Guztira

Ikastetxeen distribuzioa etapa eta ikastetxe motaren arabera:

| | LH | DBH | INTEGRALAK | GUZTIRA SAREKA | BESTE BATZUK (HAUR HEZKUNTZA, LANBIDE HEZIKETA) | GUZTIRA |
|-----------|----|-----|------------|----------------|---|-------------------------------|
| Publikoak | 93 | 58 | 0 | 151 | 4 | 247 Derrigorrezko hezkuntzan |
| Itunduak | 5 | 3 | 88 | 96 | 2 | 6 Ez derrigorrezko hezkuntzan |
| Guztira | | | | | | 253 |

Tamainaren arabera (2005-06 ikasturtea):



| TAMAINA | BIZTANLERIA |
|--------------------------------|-------------|
| Txikia (< 300 ikasle) | 143 |
| Ertaina (300 < x < 600 ikasle) | 79 |
| Handia (> 600 ikasle) | 31 |
| Guztira | 253 |


HELBURUA

E.2. Eskola komunitateko estamentu guztiek programan duten partaidetza aztertu.

ADIERAZLEAK

- E.2.1. Hezkuntza komunitateko estamentuek programan duten parte-hartzearen portzentajea. Kontuan hartuko dira ondoko estamentuak: irakasleak, ikasleak, gurasoak eta langile ez irakasleak (LEI). Analisia egiteko erlazionatuko da estamentu bakoitzeko kopuru osoa programan parte hartzen duenarekin.
- E.2.2. Ingurumen Batzordean estamentu bakoitzak duen partaidetzaren portzentajea. Kontuan hartuko dira ondoko estamentuak: irakasleak, ikasleak, gurasoak, langile ez irakasleak eta udal ordezkaria.
- E.2.3. Hezkuntza komunitateko estamentuen partaidetza maila.
- E.2.4. Ikasleen gogobetetze maila partaidetzari dagokionez.

Estamentu ezberdinen parte-hartzea



— Partaidetzarik onena ikasle eta irakasleen artean izaten da (ona eta oso ona 2/3 ingurukoa). Beste bi estamentuetako partaidetza askoz baxuagoa da (gurasoen ¼ inguru, eskasa eta oso eskasa; langile ez irakasleen kasuan, %60).

- Orokorrean hartuta, estamentuen partaidetza hobe da LHn eta Integraletan DBHn baino. Ikastetxeen tamainari dagokionez, partaidetza hobe izaten da ikastetxe txiki eta ertainetan handietan baino.

| | LH | DBH | INTEGRALAK | TXIKIAK | ERTAINAK | HANDIAK |
|------------|-----|-----|------------|---------|----------|---------|
| Ikasleak | %34 | %84 | %67 | %91 | %89 | %51 |
| Irakasleak | %46 | %17 | %42 | %64 | %67 | %0 |
| Gurasoak | %8 | %0 | %8 | %18 | %0 | %0 |
| LEI | %27 | %0 | %17 | %10 | %11 | %13 |

[Balorazio positiboaren portzentajeak: «oso ona» eta «ona»].

- Orohar, partaidetza dela eta, ikasleek duten gogobetetze maila handia da, hainbat irizpideren arabera, egindako azterketa guztietan. Balorazio handienak LHko ikastetxe publiko eta txikietan izaten dira.

| | LH | DBH | INTEGRALAK | TXIKIAK | ERTAINAK | HANDIAK | PUBLIKOAK | PRIBATUAK |
|----------------------|-----|-----|------------|---------|----------|---------|-----------|-----------|
| Balorazio positiboak | %81 | %53 | %65 | %91 | %74 | %67 | %80 | %62 |
| Nahikoa | %12 | %31 | %24 | %0 | %14 | %27 | %12 | %25 |
| Balorazio negatiboak | %7 | %16 | %11 | %9 | %12 | %6 | %8 | %13 |

- Ikastetxeek osatutako *Ingurumen Batzorde* guztiak kontuan hartuta, partaideen %51 ikasleei dagokie; %31 irakasleei; %12 gurasoei; %5 LEiei, eta %1 udal ordezkariari.
- *Ikasleen* %88k partaidetzarekiko gogobetetze maila «ona» eta «oso ona» adierazten dute.
- Parte hartzeak dituen *zailtasunak* aztertzean hiru nabarmentzen dira bereziki: eskolen antolakuntza eta funtzionamendua (batez ere, eskolaren egutegia eta ordutegia, irakasleen jarrera programarekiko, eta eskola mota eta tamaina); gurasoek parte hartzeko ohitura falta; eta programa berria izan eta eza-guera eskasa. Horri guztiari instituzioekin parte hartzeko ohitura falta gehitu behar zaio.
- Alde batetik, EA21 programan estamentu batzuen parte-hartzea *boluntarioegia* da (ikasle, irakasle, zuzendaritza taldea...). Bestetik, estamentu batzuen (LEI, gurasoak, udal teknikariak...) partaidetza garatzeko ez dago funtzio argi bat, ez dago definituta beren *papera*. Gogobetetze maila «oso eskasa» dela gehien adierazten duten estamentuak aipaturiko bi horiek dira (gurasoen %9k eta LElen %5ek).

HELBURUA

E.3. Ikastetxeek programan zehazten diren faseak eta metodologia bete dituztenentz egiaztatu.

ADIERAZLEAK

E.3.1. Programaren fase guztiak bete dituzten ikastetxeen portzentajea.

E.3.2. Ikastetxeek komunikatzeko erabili duten tipologia.

- Ikastetxe guztiak, era orokorrean hartuta, proposatutako *fase* guztiak bete dituzte.
- EA21 gidan faseak azaltzeko 4 *eredu* agertzen dira.
- *Fase askotxo* dira, eta horrek beldurrak, nahastea, funtsezkoa ez ikustea, nekea eta desmotibazioa eragiten du eta sentazio negatiboak sortu ditzake (beldurrak, larritasuna, kezka...).
- Fase askoren artean zaila da lagungarriak diren prozesuaren *mugarriak* aurkitzea.
- *Faseak*:

- Proposatzen diren faseei behatzen badiegu argi dago denak ez daudela maila berean, adibidez, «erabakia» (egin beharreko tramitea) eta «Ekintza-plana».
- Proposatzen diren faseek lotura dute eta koherenteak dira TA21ek planteatzen duenarekin. Baina eskola munduan paralelismo hori gordetzea merezi du? Eskola TA21erako laborategi modura uler-
tzeak fase berdinak erabili behar direla esan nahi du?
- Ikastetxeetarako aurkezten dena ahalik eta argiena izateko, txikikerietan galdu ez daitezen, prozesu osoa erraz ikus dezaten oinarrizko fase gutxi dituen eskema asko dituen baina hobea da.
- Hemendik kanpoko esperientzietan, orokorrean, fase gutxiago erabiltzen dira eta asko ingurumen-
hezkuntzak planteatzen dituen pausuei lotuagoak:

— *Komunikazio* era asko agertu dira, hala nola: horma irudiak, Txoko Berdea, erakusketak, power po-
int-eko aurkezpenak, Aste Berdea, foroak, Eskola Kontseilua, eskolako aldizkaria, eskolako web orria,
eskolako irratia, idazkiak estamentu guztiei, leloak edota maskotak, eskolako jaia...


HELBURUA

E.4. Programaren garapenerako ikastetxeek aukeratu dituzten gaiak ezagutu.

ADIERAZLEAK

- E.4.1. Gai bakoitza garatu duten ikastetxeen portzentajea.
E.4.2. Aukeratutako gaia eta TA21en artean erlazio zuzena duten esperientzien kopurua.
E.4.3. Aukeratutako gaia bi ikasturteetan zehar landu duten ikastetxeen kopurua.

— 2005-06 ikasturtean gehien lantzen ari den gaia «hondakinak» da %57 ikastetxerekin, gero «ura»
%12rekin, «kontsumoa» %10ekin eta «energia» %7rekin. Neurri txikiago batean «mugikortasuna»,
«biodibertsitatea», «kontsumoa eta hondakin solidoak» eta «kalea bizi».



- Aukeratutako gaia eta TA21en artean erlazio zuzena duten esperientziak %50era heltzen dira.
— Aukeratutako gaia bi ikasturteetan landu duten ikastetxeen %7 da. Baina, bai galdetegietan, bai elka-
rrizketetan gai bat (gai konkretu batzuekin are gehiago) ikasturte batean lantzea gutxi dela esaten da).

HELBURUA


E.5. Programaren garapenerako ikastetxeek duten antolakuntza baloratu.

ADIERAZLEAK

- E.5. 1. Ingurumen Batzordearen bileren kopurua ikasturteko.
 E.5. 2. Ingurumen Batzordeko bileren batez besteko iraupena.
 E.5. 3. Ingurumen Batzordearen bileretako ordutegien banaketa eskola ordutegian.
 E.5. 4. Zuzendaritzak Ingurumen Batzordean parte hartzen duen ikastetxeen kopurua.
 E.5. 5. Programa garatzeko zenbat ikastetxek sortu dituzten beste era bateko taldeak (talde sustatzailea, ikasle boluntarioen taldeak...).
 E.5. 6. Ikastetxeko hainbat erakunde oinarri hartuta (Klaustroa, Pedagogia taldea, tutoreak, ikasleen ordezkariak, gurasoen elkarteak, Eskola Kontseilua...) programa garatzen erabilitako ordu kopurua.
 E.5. 7. Koordinatzailea aukeratzeko moduen sailkapena.
 E.5. 8. Programarekiko koordinatzailearen gogobetetze maila.
 E.5. 9. Koordinatzeko (koordinatzaileak eta Ingurugelako aholkularia) erabili diren bileren kopurua ikasturteko.
 E.5.10. Foro birtualen erabilpen maila ikastetxeetan.

— Ikastetxe gehienek ikasturteko egiten duten *Ingurumen Batzordearen bilera* kopurua 1-3 (%43k) edo 4-6 (%38k) da. Ikastetxeen 2/3 inguruk Ingurumen Batzordeko bilerak egiteko ordubete erabiltzen dute. Bilerak egiteko ohikoena klase orduren bat erabiltzea da (%56k); hala ere, heren batek klase orduetatik kanpo egiten ditu bilerak.

Koordinatzaileen arloak



- Ikastetxeen %71n *Zuzendaritza Taldeak* Ingurumen Batzordean hartzen du parte. Hauenetik %83k Zuzendaritza taldekide bat dauka, %13k bi eta %4k bi baino gehiago.
 — Orokorrean, zuzendaritzaren parte-hartzea handiagoa da DBHn (%73) LHn (%45) baino eta ikastetxe publikoetan (%79) pribatuetan (%64) baino.
 — Programaren garapenerako, Ingurumen Batzordeaz gain, *beste erakunderen bat* ikastetxeen %54k sortu du. Hauenetik %23k irakasle talde bat sortu du eta beste %23k ikasle boluntarioen talderen bat sortu du.
 — *Ingurumen Batzordea* erakunde guztiz formala da itxuraz eta ez da operatiboa egunerokotasunari aurre egiteko. Gainera, ikastetxeen erdiak, beren funtzionamendua hobetzeko, beste erakunderen bat osatu du.
 — Ikastetxeren bi herenek gutxi gorabehera (%68) ordubete (%40) edo ordu bi (%28) erabili dituzte *klaustroko* bileretan programaz aritzeko. Ikastetxeen erdiek ordubete baino ez dute erabiltzen *Eskola Kontseiluan* programa garatzeko. Ikastetxe gehienetan *Pedagogia Taldeak* 3 bilera edo gehiago egin ditu (ia herenak); bestalde, bilerarik egin ez dutenen portzentajea (%5,4) oso txikia da. *Tutoreen arteko* bilerei buruz, ikastetxeen erdiak 3 bilera edo gehiago egin ditu; hala ere, ez dakitenen edo erantzun ez dutenen portzentajea nabarmena da (%22 inguru).

- *Klaustroei dagokienez*: ordu gehien LHn eta ikastetxe *txiki*etan erabiltzen dira. Izan ere, LHko ikastetxeen %50ek 3 ordu edo gehiago erabili dituzte, eta berdin *txiki*tako %60k. *Tutoreei dagokienez*: kasu honetan ere LHn egiten dira bilera gehien; ikastetxeen %69k hiru bilera edo gehiago egin dituzte.
- *Koordinatzailea aukeratzeko* moduari dagokionez, koordinatzaileen %52k bere burua aurkeztu du interesatuta zegoelako, %12k ordutegia betetzearen; %34k zuzendaritzak aukeratuta.
- Programarekiko *koordinatzaile* gehienek *gogobetetze maila* «nahikoa» (%35) eta «ona» (%32) da; oso atxikimendu ona adierazten duen portzentajea %11koa da. Aldiz, %18rentzat «eskasa» da eta %4rentzat «oso eskasa».
- Koordinatzeko (koordinatzaileak eta Ingurugelako aholkularia) aholkularien %55en arabera 7-9 *bilera* erabili dira ikasturteko; %27k 4-6 bilera aipatzen ditu.
- *Foro birtualen* erabilpen mailak ikastetxeetan balorazio negatiboa du, aholkulari gehienek *gogobetetze* «eskasa» adierazten dute, eta %83k «eskasa» edo «oso eskasa».

HELBURUA

E.6. Programaren eraginez ikastetxeetan izan diren hobekuntzak baloratu, honako hiru esparru hauek kontuan hartuz: kudeaketa, curriculumaren berrikuntza eta eskola komunitatearen partaidetza.

ADIERAZLEAK

- E.6.1. Programan jorratzen diren eremu (kudeaketa, curriculum eta partaidetza) bakoitza lantzeko *Ekin-tza* planean jasotzen diren jardueren kopurua.
- E.6.2. Ikasturterako aurreikusi diren jarduera guztiekiko egin direnen kopurua.
- E.6.3. Programaren helburuen betetze maila neurtzeko adierazleak erabili dituzten ikastetxeen portzentajea.
- E.6.4. Aukeratu den gaiari loturiko kudeaketan lortu diren hobekuntzen portzentajea programaren hasierarekin konparatuz.
- E.6.5. Curriculumaren berrikuntzaren alorrean garatu diren ekintzen tipologiaren banaketa.
- E.6.6. Metodologiari buruzko hausnarketarako egin diren esperientzien kopurua.
- E.6.7. Partaidetzaren alorrean garatu diren ekintzen tipologiaren banaketa.
- E.6.7. Ikastetxeak duen *gogobetetze* maila programari dagokionez.

- Programan jorratzen den esparru (kudeaketa, curriculum eta partaidetza) bakoitza lantzeko *Ekintza-planean* jasotzen diren jardueren kopurua ikastetxeko —koordinatzaileen arabera— ondoko taulan adierazten da.


| JARDUERA KOPURUA | IKASTETXEEN PORTZENTAJEA | | |
|------------------|--------------------------|-------------|-------------|
| | KUDEAKETA | CURRICULUMA | PARTAIDETZA |
| 1-3 jarduera | %32 | %25 | %32 |
| 4-6 jarduera | %18 | %18 | %14 |
| 7-9 jarduera | %11 | %14 | %7 |
| > 9 jarduera | %4 | %4 | %7 |
| Ez du erantzuten | %35 | %39 | %40 |

— Ikasterterako aurreikusi diren *jarduera guztietatik egin direnen kopurua* ondorengo taulan azaltzen da:

| AURREIKUSITAKO JARDUERETATIK ZENBAT BETE DUTEN | IKASTETXEAK |
|--|-------------|
| %0-20 | %7 |
| %21-40 | %11 |
| %41-60 | %4 |
| %61-80 | %22 |
| %81-100 | %30 |
| Ez du erantzuten | %26 |

— Koordinatzaileen erantzunen arabera, ikastetxeen ia hiru laurdenek (%72) *adierazleak erabili* dituztela pentsa liteke baina, memoriak irakurrita, beste egoera bat ikusten da, oso bestelakoa (gehienek ez dute horrelakorik egin). Ziur aski, horretarako erabili den galdera ez da zuzena izan.

Esparruen araberako jarduera kopurua




— *Kudeaketan* lortu diren hobekuntzei buruz, koordinatzaileen erantzun gehienek (%71) hobekuntza gutxi edo nahikoa aipatzen dute. Programak beraz, hobekuntzak eragiten ditu, soilik %11k esaten baitu ez duela bat ere nabaritu. Irakasleen ia hiru laurdenek hondakinen bilketa selektiboan edo gaikako bilketan eta kontsumoa aurrezteko neurrietan nabaritu dituzte hobekuntzak (ikastetxeen %72n) eta gero ikastetxeko giroa hobetzeko neurriak (%57n). Ikasleen iritziz ikastetxeen EA21 programa ikastetxeko giroa hobetzeko baliagarria izan da (ikastetxeen %70), ikastetxeen %66k kontsumoa aurrezteko neurriak hartu ditu eta %64k hondakinen bilketa selektiboa martxan jarri du. Kopuru txikiago batean %24k zarata gutxitzeko neurriak hartu ditu, %20k biodibertsitatea sustatzeko neurriak hartu eta %14k mugikortasun iraunkorra sustatzeko neurriak jarri ditu.

— LHn (nahikoa eta asko ikastetxeen %62) eta *integralean* (%59) DBHn (%34) baino nabariagoak dira hobekuntzak. Bestalde, *urtebeteko* nahiz *urte biko* esperientzia duten ikastetxeen erdiek ez dute apenas hobekuntzarik nabaritu, hala ere, aipagarria da bi urteko esperientzia dutenen artean herenek hobekuntza asko ikusi dutela.

— *Curriculumaren* berrikuntzaren alorrean garatu diren ekintzen tipologiaren banaketa bereziki sei arlotan gertatzen da: irteerak, jarduera praktikoak, edukien egokitzapena, hitzaldiak, erakusketak eta

tailerrak. Koordinatzaileen iritziz ia ikastetxe guztiek (%96k) irteerak egin dituzte [irakasleen iritziz ikastetxeen %81ek], edukien egokitzapena ikastetxeen %86k [%58k], praktikak %79k [%55ek], erakusketak %75ek [%48k], tailerrak %61ek [%50ek] eta hitzaldiak %32k [%27k]. Eskolen %29k [%10ek] beste ekintza mota batzuk eratzen dituzte eta batez ere komunikazioaren inguruko ekimenak izan dira, hala nola aldizkaria, web orria, irratia txapelketa...

- *Lehen Hezkuntzari* dagokionez, curriculumaren alorrean egindako jarduera gehien Ingurumena eza-gutzen egin dira (ikastetxe guztien %95). Bestalde, garrantzitsua da ikustea, proportzio ezberdinean bada ere, programak arlo guztietan duela eragina: Plastikan zentroyen %75, Euskara eta Gorputz Hezkuntzan %65, Matematikan %55, Gizarte Zientzietan %50, Ingelesean ikastetxeen %35, Gaztelanian %30, Informatikan %30, Musikan %20, eta Erljioan %20.
- *Bigarren Hezkuntzari* dagokionez ere jarduera gehien Biologia-Geologian egin dira (%93). Teknologian %71, antzeko portzentajea Geografia-Historian (%57) eta Fisika-Kimikan (%50), zentroyen portzentaje berdinarekin (%43) Informatikan, Euskararen eta Marrazketan. Arlo guztietan ikastetxeen proportzio batek curriculumari lotutako jarduerak garatzen ditu, hiru arlotan izan ezik: Latin eta Grekoan, Musikan eta Gorputz Hezkuntzan.
- Metodologiaren hausnarketa ikastetxeen %84an egin da.
- Irakasleen *partaidetza* garatzeko ekintzen %36 informazio bilerak egitea izan da, %19 talde sustatzaile bat eratzea, %18 koordinatzea, %10 curriculumarekiko jarduerak prestatzea, %7 formazioa egitea... Ikasleei dagokionez ekintzen %33 informazio bilerak izan dira, %18 eskolaz barneko jarduerak garatzea, %15 ingurumen jarduerak, %12 ikastetxeko diagnostikoa, %7 Ingurumen Batzordearen eraketa...
- Gurasoen *partaidetza* sustatzeko egindako ekintzetan %61 informazio bilerak egitea izan da, %19 lan taldeetan integratzea, %8 ingurumen jardueretan parte hartzea eta beste horrenbeste programa zabaltzea, %2 Foroan parte hartzea eta %2 bat ere ez. LElen kasuan %49 informazio jasotzeko bilerak egitea izan da, %17 lan talde baten integrazioa, %13 baliabideen erabileraren kontrola eta beste horrenbeste ingurumen jardueretan parte hartzea, %4 programaren zabaltzea eta beste %4 bat ere ez.
- Agenteek programari dagokionez duten *gogobetetze maila* ondoko grafikoan ikusten da:



- Agenteek duen gogobetetze maila «ona» da. Aholkularien artean ez dago balorazio negatiborik, eta gainerako agenteen artean «oso eskasa» iritzia %5ekoa baino gutxiagokoa da, gurasoen kasuan izan ezik (%10). Gogobetetze maila «eskasa» eta «oso eskasa» %25ekoa edo txikiagoa da: koordi-

natzaileen %22, irakasleen %13, gurasoen %18 eta LElen %25; ikasleen %6k bakarrik egiten du balorazio negatibo hori.

- Balorazio positiboaren artean apatzekoa da ikasleen %88k gogobetetze «oso ona» edo «ona» adierazten dutela, aholkularien kasuan %67k, irakasleen %47k, koordinatzaileen %43k eta LElen eta gurasoen %35ek.
- *Koordinatzaileei dagokienez*: balorazio onenak LH eta *integraletan*, *publikoetan* eta 1 urteko esperientzia dutenen artean izaten dira. Azpimarragarria da DBH eta 2 urteko esperientzia dutenen arteko balorazio negatiboa ere.

| | LH | DBH | INTEGRALAK | 1 URTE | 2 URTE | PUBLIKOA | PRIBATUA |
|----------------------|-----|-----|------------|--------|--------|----------|----------|
| Balorazio positiboak | %54 | %0 | %42 | %45 | %34 | %46 | %35 |
| Nahikoa | %23 | %66 | %50 | %41 | %17 | %20 | %58 |
| Balorazio negatiboak | %23 | %34 | %8 | %14 | %49 | %34 | %7 |

- *Irakasleei dagokienez*: balorazio altuenak LH eta *integraletan*, ertainetan eta urtebeteko esperientzia dutenen artean izaten dira.

| | LH | DBH | INTEGRALAK | 1 URTE | 2 URTE | TXIKIAK | ERTAINAK | HANDIAK |
|----------------------|-----|-----|------------|--------|--------|---------|----------|---------|
| Balorazio positiboak | %48 | %30 | %64 | %54 | %33 | %38 | %58 | %52 |
| Nahikoa | %38 | %52 | %27 | %43 | %56 | %47 | %33 | %36 |
| Balorazio negatiboak | %14 | %18 | %9 | %3 | %11 | %15 | %9 | %12 |

- *Ikasleei dagokienez*: kasu guztietan gogobetetze maila altua da. Ezberdintasun bakarra aipa daiteke: *1 urteko* esperientzia dutenek balorazio hobea egiten dutela *2 urte* daramatenek baino (%97 eta %65 hurrenez hurren).



**IKERKETAREN ONDORIOAK
ETA PROPOSAMENAK**

4

1. ONDORIOAK

1.1. PROGRAMARI DAGOZKION ONDORIOAK

1. EA21 *potenzialtasun* handiko programa da, bai jarraitzen duen hezkuntza- edo ingurumen-filosofiatik, bai udalerriarekiko hartutako konpromisoagatik. Berez mende honetako hezkuntza erronkei aurre egiteko eta garapen iraunkorrerako hezkuntza lantzeko ahalmena dauka. Gainera, programak ikastetxean garatzen diren proiektuen elkargune izateko gaitasuna du.
2. EA21 programak *planeta* osoan garapen iraunkorrerako hezkuntza lantzen duten programen helburu ugari eta metodologia errepikatzen ditu. Ez da programa isolatu bat, eta aipatutako programetan parte hartzen duten milaka irakasle eta ikasleren protagonismoa indartzen du. Horrez gain, *2005-2014 Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkada* moduko proposamenek sustatzen eta babesten dute aipatutako programa.
3. *Alderdi positibo* asko dituela esaten dute estamentu askotan, adibidez, programak ingurumen sentsibilizazioa sustatzen duela hezkuntza komunitatean, partaidetza bultzatzen duela, estamentuen arteko harremanak sendotzen dituela, ikastetxearen baliabideen kudeaketa hobetzen duela edo ikastea interesgarriago bihurtzen duela. Aldiz, *alderdi negatibo*en artean hauexek agertzen dira: irakasleen lana areagotzea, laguntza ordu gutxi orokorrean edo bat ere ez sare itunduan, parte hartzeko ohitura falta edo jarrera pasiboa, programa ondo garatzeko denbora eskasa edo egitura zurrunegia. Ezberdintasunak ezberdintasun, ikastetxeetan proiektu asko daude, irakasleek bide luzea egina dute (batez besteko adina altua da...), nekea nabaria da, eta horrelako proiektu berritzaileak gogoz eta ilusioz sartzeko zailtasunak daude. Kontuan hartu behar da EA21 programa eskola-komunitatearen parte-hartzea eta inplikazioa bilatzen dituela ikastetxearekiko nolabaiteko konpromisoa eskatzen duela, agente askoren arteko koordinazioa behar duela... eta hori ez dela erraza zenbait ikastetxek duten dinamika eta funtzionamenduarekin.
4. Aztertutako dokumentazioan *termino* batzuen zehaztapena ez dago bateratuta, hori definizioarekin, helburuekin eta metodologiaren faseekin bereziki gertatzen da.

1.2. ERAKUNDEEI DAGOZKIEN ONDORIOAK

Garrantzi handia du euskal *erakundeek* EA21 programarekin hartu duten konpromisoa. Aldi berean, esanguratsua da EA21 programa Eusko Jaurlaritzaren *2002-2020 Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren* konpromiso gisa aurkeztea; eta bereziki esanguratsua da, halaber, programan inplikaturako Sailek baliabide ekonomikoak eta didaktikoak eskaintzeko hartu duten konpromisoa. Programa honek lortu duen konpromiso maila eta baliabideen eskaintza, ez da orain arte nazioartean iraunkortasunerako hezkuntzako

programetan lortu: ez dago horrelakorik Estatuko gainerako autonomia-erkidegoetan eta ez dago horrelakorik mota honetako programak garatzen dituzten herrialde gehienetan.

Aldi berean, berebiziko garrantzia du udalek eta *Udaltalde 21* eta *Udalsarea 21* sareek betetako funtzioa: batetik, emandako laguntza teknikoa eta, bestetik, udalerrietan kudeaketa iraunkorraren alde ikastetxeen parte-hartzea ahalbidetzeko zabalduetako bideak. Eta aipatutako konpromisoa oso garrantzitsua da eskola mundua «isolatuta dagoen burbuila» gisa ez sentitzeko, gurasoen parte-hartzea (ikastetxean zein udalerrian) laguntzeko, udalerrri bereko ikastetxeen arteko lana sustatzeko, parte hartzeko Foroak antolatzeko eta dinamizatzeke eta eskola-esperientziak ezagutzera emateko.

Balorazio ona lortu du, bestalde, enpresek edo teknikariek ikastetxeei maila teknikoan laguntzeko egindako lanak.

Hobetu beharreko alderdien artean, kontuan hartu behar da kontratazio mota dela-eta zenbait udalerritan lan egiten duten pertsonen aldaketa, eta zenbait udalek erakutsitako inplikazioa, erakundeen arteko koordinazioa, udaletxearen eta ikastetxearen arteko harremanak eta aipatutako sareek programaren gainean egindako jarraipena.

1.3. INGURUGELEI DAGOZKIEN ONDORIOAK

1. Ingurugeletako aholkulariek positiboki *baloratu* dute programaren garapena eta ikastetxeetako koordinatzaileek egindako lana, bai eta udalek kontratatutako enpresek egindakoa ere. Era berean, koordinatzaileek balorazio oso ona egin dute jasotako prestakuntzari buruz eta aholkularitza-funtzioei buruz galdetzean. Ingurugelek egindako lanak balorazio ona lortu du. Aholkularitza programaren garapenerako alderdi sendotako bat da.
2. Hobetzeko elementuen artean hauexek aipatzen dira: alde batetik, aholkulariek adierazi dutenez, nahitaezkoa da Ingurugelen koordinazioa eta material didaktikoen koordinazioa hobetzea, eta bestetik, eskola-kopurua eta aholkularien arteko ratioa egokitzea; izan ere, nabarmenki handitu da azken urteetan eta, Sailek hartutako konpromisoa kontuan izanik, datozen urteetan gehiago handitu daiteke.

1.4. IKASTETXEARI DAGOZKION ONDORIOAK

1. Bost *koordinatzaile*ren artean lau balorazio «positibo» egin dute programari buruz galdetzean. Aholkularitzak adierazi duenez, koordinatzaileek egindako lana positiboa izan da. Koordinatzaileek lan itzela eta kalitate handikoa egin dute. Programaren bigarren puntu sendoa dira. Koordinatzaileak dira EA21 programak ikastetxe askotan arrakasta lortzeko giltza (garrantzi handia dute, halaber, programa sustatzen duten zuzendaritza-taldeek), eta beraiek hartu dute, nagusiki, programaren garapenaren ardura. Koordinatzaileek egindako lanak irakasle-taldean laguntza jaso du zenbait kasutan. DBHren antolamenduak berak zailago bihurtzen du beharrezkoa den koordinazioa.
2. Hirugarren alderdi sendoa programaren protagonistak dira: *ikasleak* hain zuzen. Programaren balorazio positiboena egin dute. EA21 programari esker, ikasleek eguneroko egoeretan edo arazo errealetan ikasteko aukera dute, bai eta material errealekin lan egiteko ere (ondorioz, ikaskuntza esanguratsuak egiten dituzte); diziplinarteko jarduerak garatzeko eta konplexutasuna ezagutzeko aukera dute; programaren bidez ikasleak sentsibilizatzen dira eta ingurumen-arazoan gainean kontzientziaztea lortzen da (inguruko ingurumena zein orokorra); programaren bidez, halaber, ikasleek konpromisoa hartzen dute eta udal-agintaritzari proposamenak aurkezteko aukera dute; pentsamendu kritikoa eta ekintzarako gaitasuna sustatzen ditu programak... azken finean, ikasleak programak sustatzen dituen irakasteko eta ikasteko praktika berritzaileak ezagutzen ditu eta horiei etekina ateratzen die.
3. *Programaren* garapenarekin erlazionatutako alderdi zehatzei dagokienez:
 - Ikastetxeek programak proposatutako faseak eta metodologia jarraitu dituztela baieztatu dute. Askotan, programatutako egitura eta garapena zurruneziak direla adierazi da.

- Ikastetxeetan garatutako gaiak kudeaketarekin erlazionatutako gaiak izan dira nagusiki. Neurri txikiago batean garatu dira parte-hartzearekin eta curriculum-berrikuntzarekin erlazionatutakoak. Sarritan, gainera, adierazi da ikasturte bat ez dela nahikoa.
- Ikastetxeek sarritan dituzten arazo larri eta gordinei lotuta dauden beste gai batzuk (adibidez, ikastetxean egon daitezkeen giro gatazkatsuari lotuta...), salbuespenak salbuespen, ez dira oraindik programa honetan aukeratzen, ezta joko handia eman dezaketen gai zabalago batzuk ere (hala nola aztarna ekologikoa, biodibertsitatea adierarik zabalenean, *Lurraren gutuna* dokumentua aztertzea edo ikastetxearen diagnostiko orokorra egitea).
- Beste alde batetik, udalerrri mailan hartzen den lantzeko gaiak eta ikastetxe baten interesak ez dute zertan bat etorri eta, zenbaitetan, adostutako gai horrek ez du balio ikastetxearen beharrezan erantzuteko.
- Hiru esparruetan antzekoa da aurreikusitako jarduera-kopurua. Kudeaketaren esparruan egindako hobekuntzei dagokionez, hondakinen gaikako bilketa, kontsumoan aurrezteko neurriak eta ikastetxeko giroa hobetzeko neurriak azpimarratu behar dira. Parte-hartzea sustatzeari dagokionez, informazioa emateko ekintzak (hitzaldiak, bilerak...), talde txikietan lan egitea eta garatutako ingurumen-jardueretan parte hartzea azpimarratu behar dira. Curriculum-berrikuntzari dagokionez, irteerak, edukien egokitzapena eta praktikak izan dira gehien garatu diren jarduerak. Esparru orotan lortu da aurrera egitea eta hobetzea.
 - LHn arlo guztiek parte hartu dute EA21 programan eta DBHn ia guztiek, hortaz, argi dago gero eta indar gutxiago duela «ingurumena» LHko Ingurumen eta Giza Ezagutza et DBHko Natur Zientziak arloekin bakarrik erlazionatzen duen pentsamenduak eta, ondorioz, diziplinartekotasuna lortzeko eta ikastetxeko irakasle guztien parte-hartzea sustatzeko aurrerapauso garrantzitsuak eman direla esan daiteke. Hala ere, ia koordinatzaile guztiak zientzia-teknologia-matematika arlokoak dira.
 - Antolamenduari dagokionez, Ingurumen Batzordeak ez du bete, kasu askotan, organismo dinamizatzaile denez dagokion funtzioa, eta ez da eraginkorra izan; aitzitik, beste organismo batzuek zegokien funtzioa bete dute, hala nola irakasleen talde dinamizatzaileak, ikasle boluntarioen taldeak, irakasle eta ikasleen talde mistoek...
4. Bereziki azpimarragarria da *ikastetxeen arteko koordinazioa*. Nahiz eta programaren ikuspegitik ez den funtsezko alderdi bat, udalerrri edo eskualde bateko koordinatzaileen arteko bilerak egiten dira eta balorazio positiboa lortu dute. Koordinazio horren bidez ikastetxeen artean lan komuna egiteko bidea errazten ez bada ere, oso egokia da esperientziak eta prozesuak trukatzeko, eta hori bereziki aberasgarria da parte hartzen duten agenteen ikuspegitik eta programaren ikuspegitik. Balio hori sareko lanaren IKTren erabilpenaren bitartez bultzatu eta eragin ikusten da.
 5. Programaren alderdi ahul bat *parte-hartzea* da, bereziki ikastetxe handietan. Irakasleena onargarria izan da, eta gurasoen eta langile ez irakasleen estamentuen partaidetza maila, ordea, oso baxua izan da. Datu hori ulertzeko hainbat faktore hartu behar dira kontuan: gizartearen parte hartze baxua, estamentuen artean elkarrekin lan egiteko ohiturarik eza, antolamendu-egitura berriak eta ezezagunak... Haatik, programa behar den bezala zehaztu eta definitu gabe dagoela azpimarratu da, eta ez da ondo zehazten estamentuen parte-hartzea. Era berean, kontuan hartu behar da parte-hartzea ez dela berez etortzen, eta, beraz, planifikazio- eta dinamizazio-prozesuak garatu behar direla.
 6. Eta *ebaluazioa* da beste alderdi ahul bat, *komunikazioarekin* batera. Ikastetxe bakoitzak, Ekintza Planaren helburuak definitzeko orduan bakoitzari dagozkion adierazleak zehazten baditu ere, programa amaitzean izandako lorpenak baloratzeko orduan ez dira adierazle horiek erabiltzen. Balorazioak egiteko pertzepzioak erabili dira eta ez, ordea, datu zehatzak (adierazleak). Ingurugelek edo Administrazioak ez dute EA21 proiektuen azken balorazioa egin (Ingurugelek ebaluazio jarraitu ez-sistematizatu egiten dute), hortaz, ez dute programaren balorazio orokorra egin. Ebaluazioak programaren garapen positiboa lortzeko eta kalitatea hobetzeko bitartekoa izan behar du. Ingurugeletatik memoria egiteko eta irakurtzeko eredu errazak eta esanguratsuak bultzatu behar dira. Ikastetxeek, oro har, ez dute komunikazioaren plangintzarik egiten. Ildo horretan hainbat jarduera egiten dira, baina ez da jardueren sistematizaziorik egiten eta ez dira programaren denbora-mugarriak aprobetxatzen.

7. Oro har, ikastetxeek EA21 programarekin erlazioan lan handia egin dutela esan daiteke, eta garatu-tako hainbat proiektu kalitate handikoak dira. Kanpo-ebaluaziorik izan ez denez, ez da egindako lanaren *errekonozimendurik* egon, eta agente ugari aitortzen beharra azpimarratu du. Programa honetan parte hartzen duten ikastetxeen aldeko diskriminazio positiboa egiteko beharra azpimarratu da halaber, bai eta eskolan programa dinamizatzen duten arduradunen aldekoa ere (koordinatzaileak, talde dinamizatzaileak...).
8. Amaitzeko, programako agenteek egindako *batez besteko balorazioa «ona»* izan da. Bereziki azpimarragarria da aholkulariek, koordinatzaileek eta irakasleek egindako balorazio altua, eta, neurri txikiago batean, gurasoek eta langile ez irakasleek egindakoa. Hala ere, kontuan hartu behar da DBH eta 2. urteko esperientzia duten koordinatzaileek ematen dituzten balorazio negatiboak. Aipagarria da, halaber, ikasleek egindako balorazioa. Ikasleak dira programa hobekien baloratu duten agenteak eta beraiek dira agente protagonistak. Eta datu horrek garrantzi handia du etorkizunera begira; alde batetik, programak agente protagonistaren gainean eragina lortu duelako eta, bestetik, ikastetxearen urteko planaren plangintza egiteko datu interesgarria delako. Ildo horretatik, kontuan hartu behar da EA21 programaren ezaugarriak direla eta, ikastetxeak garatu nahi dituen curriculum-alderdiak baren hartzeko gaitasuna baduela, eta, aldi berean, irakatsi eta ikasteko prozesua errazteko eta ikastetxearen arazoak hobetzeko ere balio dezakeela.

2. AURRERA BEGIRA PROPOSAMENAK

2.1. PROGRAMARI BEGIRA

1. proposamena: marko orokorra

Bere *potentzialtasun* eta beste proiektuak integratzeko ahalmenagatik EA21 ez da gaur egun ikastetxeek dituzten zereginak ugaritzen dituen programa bat. Aitzitik, lan egiteko modu berri bat da: jada egin den lanari etekina ateratzeaz gain, elementu berriak dakartza programak eta elementu horiek ematen dizkiote hezkuntza-kalitatea eta kudeaketa iraunkorra hobetzeko beharrezkoa den koherentzia eta sendotasuna. Programa hori ikastetxeen arazo propioak konpontzeko lagungarria da, bai eta udalerriko iraunkortasuna indartzeko ere.

Programako parte hartzaileak tokiko ekimena garatzen ari direla ohartu behar dira eta horrek eragiten duen dimentsio globalaz ere bai, alegia, programa hau «*globala-tokikoa*» izanik, dimentsio bikoitz horrek duen garrantziaz ohartzea lortu behar da. Beren burua planeta mailan garatzen ari den programa barruan dagoela ikusi behar dute.

Inplikaturako *eragile guztiek* EA21 programaren potentzialtasunak ahalik eta gehien garatzeko beharrezko bitartekoak jarri behar dute; programan parte hartzen duten agenteei dagokie lan hori, bakoitzak bere esparruan.

2. proposamena: definizioa

Definizio bat eraikitzeko, lehenengo galdera batzuk erantzungo ditugu definizioaren markoa sortzeko:

Zer

Ez dago zalantzarik iturriak itxi egin behar direla, edo tanta jariora kontrolatu behar dela... baina, ez ote gara, lehen esan bezala, programa ohikoegi, murriztegi bihurtzen ari praktikan? EA21 programak potentzialtasun handiak ditu, eta oso tresna eraginkorra izan daiteke *xxi. mendeko herritar arduratsu eta konprometituak* egiten laguntzeko. Baina, horretarako, agian, lehenetsunak beste batzuk izan behar dira, eta guztion lana izan behar da programak eskaintzen dituen bideak zabaltzea, ingurumenaren adierarik zabalena lantzea (gidak berak egiten duen moduan), eta gauza guztien gainetik, *hezkuntza programa* bat dela aldarrikatzea, hau da,

programa hezitzailea, oinarrizko balioak eta jarrerak lantzeko balio dezakeen tresna ahaltzua eta eraginkorra dela azpimarratzea.

EA21 IHko¹ programa bat izanez, ezaguera, gaitasuna, jarrera, motibazioa eta konpromisoa garatzea du xede, dauden eta etorriko diren arazoen konponbideen bilaketan parte hartzeko, bakarka edota kolektiboki.

Zertarako

Programak herri edo eskualde mailako izaera galdu barik lehentasuna *ikastetxearen beraren kezka eta arazoetan* ipini behar du, eta bere garapenerako hortik abiatu behar da. Beste modu batean esanda, egiten baldin bada proiektu bat gai dena arazo horiei erantzuteko irakasleriak errazago ikusiko du ikastetxearentzat duen interesa, eta errazago sumatuko du eskatzen zaion arreta eta ahalegina egitea merezi duela. Horrek noski, ikastetxearen baitako beharrezan eta *herri edo eskualde mailan* ikastetxeak koordinatzeko nahien arteko nolabaiteko oreka eskatzen du. Baina, gure ustez, ikuspegia desenfokatu egingo genuke bigarrenari lehentasuna emanda.

Nori zuzendua

Irakasleek programan sartzea ala ez erabakitzen dutenez EA21 programa, lehenengo, ikastetxeetarako izan behar da, *ikastetxerako onuragarria* izan behar da, ikastetxearen arazoak edo hobekuntza bilatzeko. Eta bigarren, udalerriko errealitatean kokatuta eta bertan eragina izan behar du.

Eredua

Ez dago iraunkortasunezko eredu argirik, ez gizartean, ezta eskolan ere. Baina, badaude praktika onak. Edozein modutan gai bat edo ingurumen-arazo baten analisisa eta sintesia edo berregituraketa garatzeko orduan ingurumen-hezkuntzak bidea, elementuak eta faseak emango lituzke eta erreferentzia nagusia izan ahal da. Herriak edo eskualdeak testuinguru erreala eskaintzen dio, hausnarketa egiteko, lan egiteko eta ingurumenaren aldeko ekimenak garatzeko.

Etorkizuna

Edukien trataera atomista batetik integral batera pasatu behar da: pedagogiak bateratu. Zeharkakotasunaz gain, *zehar-ardatz globala*, ikastetxearen ikuspegi pedagogikoa eta proiektu guztien integratzailea, non erlazionatzen diren edukiak, estrategiak, prozedurak eta jarduerak; ikuspegi holistiko batetik eta helburu bateratuetarantz. Beste proposamen batzuk «infusio» tankerako diseinuen aldekoak agertzen dira, non curriculumaren elementu guztiak ingurumen-hezkuntzaren edo iraunkortasunaren eduki polidimensionalekin bustita dauden.

Definizio baterako proposamena

Aurrekoak ikusi eta hemendik kanpoko esperientziak aztertu eta gero, definizio hau proposatzen da:

«Eskolako Agenda 21 *eskolaren kalitaterako* eta *iraunkortasunerako hezkuntza komunitatearen* ahaleginak biltzen dituen *ingurumen-hezkuntzako etengabeko programa* bat da, *udalerriko garapen iraunkorrean parte hartuz* eta lagunduz».

— Programa honek ikastetxe baten arazoen konponbideen eta hobekuntzen bilaketa ahalbideratzen du, ikasleen errespetua, konpromisoa eta partaidetza lortzea delako bere xedea.

¹ Belgradoko Gutunean agertzen den moduan, ingurumen hezkuntzak ingurumena bere osotasunean hartu behar du: naturala eta gizakiak sortua (ekonomikoa, teknologikoa, soziala, legegilea, kulturala eta estetikoa).

- Definizio barruan dagoen xedea lortzeko hezkuntza komunitate osoak hartzen du bere gain.
- Programaren garapenak herri edota eskualde mailako dimentsioa lantzen du. Herria programaren eskenatoki nagusia da; bertan programak garatu behar dituen sentsibilizazioa, ezaguera, kontzientzia hartzea, eta komunikazio eta parte-hartzea errealitatearen elkar eraginean egiten da.
- Antolakuntza eta funtzionamendu erraza izan behar du, ez konplexua, ez nahastea bultzatzen duena.

EA21 programak, bere potentzialtasunak ikusita, eskola batean garatzen diren proiektu guztien aterpe eta ardatz nagusi izateko ahalmena dauka.

— Ezinbesteko baldintzak:

- *Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren* inplikazioa ezin da orain arteko modukoa izan, eta Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak esku hartze zuzenagoa izan behar du.
- Ingurugelen eta Berritzeguneen arteko harremana estutu eta sustatu behar da, eta horrek, IHOBEn elkarlana sustatzea baino lehentasun handiagoa izan behar du (begiratu *Iraunkortasuneko Hezkuntzaren EAEn. 2006-2010 aldirako hezkuntza-sistema formalerako Iraunkortasuneko Ingurumen Hezkuntzako Plana* dokumentuak egiten duen proposamena eskualdeka, 5.1.1 konpromisoa).

3. proposamena: xedea eta helburuak

Xedea

Hezkuntza komunitateak EA21 programa lantzen du eskolaren kalitatea eta iraunkortasuna garatzeko eta sustatzeko, eta udalerriko garapen iraunkorrean laguntzeko.

Helburuak

— *EA21 programa:*

1. Hezkuntza komunitateak eskolaren kalitatea eta iraunkortasuna lortzeko dituen balioez eta jokaez hausnarketa eragin.
2. Hiritar arduratsu, gai eta aktiboak sortzen bultzatu.
3. Udalerriko erabaki prozesuan parte-hartzea bultzatu.
4. EA21 TA21erako laborategia edota eredia izan.
5. 2012rako derrigorrezko hezkuntzako ikastetxeak programan sartuta egon.

— *Ikastetxeen EA21 proiektua:*

1. Hezkuntza komunitatean eskolako ingurumenaren (era zabalean) egoeraz sentsibilizazioa, ezaguera, gaitasuna, jarrera, motibazioa eta konpromisoa garatu.
2. Eskola eta inguruko ingurumen-arazoaren konplexutasuna identifikatu, analizatu eta alternatibak proposatu.
3. Udal foroetan ezagutarazi eta ingurumenaren erabilera iraunkorra lortzeko prozesuak abiatu.
4. Ikasleei ikasketetan, eskolan eta herriaren bizitzan protagonismoa eman.
5. Herri, hiri edo eskualde bateko eskolen arteko eta erakunde eta eskolen arteko laguntza bultzatu.

— *Esperientzia daukaten ikastetxeekin beste bi helburu sortu ahal dira:*

6. Aurreko ikasturteetan lortutako akordioak eta hobekuntzen bilakaera jarraitu eta baloratu.
7. Eskolak garatzen dituen beste proiektuekin koordinatuta egon.

Adierazleak

Helburu horiek guztiek berariazko adierazle kuantitatibo eta kualitatiboak izan behar dituzte, programaren ebaluazio eta helburuen lorpen maila esanguratsua izan dadin. EA21 programari dagokionez, programa sortu duten erakundeei dagokie; ikastetxeen proiektuei dagokiena ikastetxeek beraiek eta Ingurugelek prestatu behar dituzte.

4. proposamena: gaia eta iraupena

Gaia

- Gaia aitzakia da programaren helburuak lortzeko.
- Gaiak ikastetxearen interesa bete behar du. Koordinazioaren izenean bultzatu ahal da bateratzea, baina xedea argi hartuta ez da ezinbestekoa izan behar.
- Ikastetxea kokatzeko eta hasteko gai zabal bat proposatu behar da:
 - Ikastetxearen «Aztarna ekologikoa».
 - Diagnostiko orokor bat egin.
 - «Lurraren gutuna» landu.
 - Gai orokor bat: biodibertsitatea...
- Hurrengo ikasturteetarako, orokorrean, gai librea eta kudeaketa esparrua gainditzen duena izan behar da.
- Gaia ikastetxearen proiektu guztien elkargunea izatea posiblea da.
- Aztarna ekologikoa edo beste gai zabal bat: ez da itsutu behar urtero gaia aldatzen, oso egoera ezberdinetan dauden ikastetxeak ari direlako lantzen. Hobe da, herriko ikastetxeetako nolabaiteko gai komuna nahi bada, *gai zabala* proposatzea (eta ez kudeaketarekin lotura zuzena daukana), ikuspuntu eta erimtmo ezberdinekin gara daitekeena hain zuzen. Gaiak era askotako orientazioak onartzeko gaitasuna izan behar dute, hau da, lehen esan bezala, ikastetxe bakoitzaren ezaugarrietatik eta arazoetatik abiatzeko aukera eman behar dute.

Horren adibidea aztarna ekologikoa izan daiteke, gai horrek era askotako ikuspuntuak onartzen baititu; hau da, ikastetxe batzuetan arazo garrantzitsua garbitasuna izanda, posible da aztarnarekin erlazionatzea; berdin gertatzen da ikastetxearen arazoa apurketak direnean, edo... Aztarna ekologikoak adierazleen adierazle nagusia dela ematen du, eta berak erabiltzen duen irudia oso adierazgarria denez (planeta kopurua) oso aproposa da bai ikasleekin, bai hezkuntza komunitatearekin lantzeko. Gainera, aztarna estamentu askoren partaidetza zuzena ahalbidetzen du (kalkula daiteke irakasleon aztarna, edo ikasleena gelaka, edo familiena...), ez da ingurumenari lotzen zaion kudeaketarako «ohiko» gaia (ura, energia...) baina, har ditzake gai horiek bere barruan, eta lotura zuzena izan dezake herriarekin, herriaren aztarna kalkula daitekeelako. Aztarna ekologikoa, gai zabala denez, ez du bereziki ikastetxeen arteko koordinazioa oztopatzen. Edonola ere, arreta jarri behar da gai zabal hau ez geratzeko soilik kudeaketa arloan.

Beste gai batzuk «Lurraren gutuna»-ren azterketa, «Biodibertsitatea», «Eskolako diagnostiko orokorra»... izan daitezke.

Iraupena

- Lehenengo ikasturteetarako komenigarria ikusten dugu bi urteko proiektua egitea. Ikastetxeak eta hezkuntza komunitateak EA21ek eskatzen duen antolakuntza, funtzionamendua eta faseak ondo barneratzeko, horren zentzua ikusteko eta xedera joateko, lasaitasuna behar dute. Lasaitasuna, presio aproposa, ondo egotea... eta abar, bereziki, denborarekin lortzen da. Horrek gaia zabal garatzea eskatzen du.

— Gero, prozesuaren iraupena urtebetekoa ala bikoa izan daiteke ikastetxearen ezaugarrien arabera. Berriz ere, xedera joko genuke argudiatze horretan, hau da, proposatzen diren xedea eta helburuak ikusita.

5. proposamena: faseak eta metodologia

Egiten dugun proposamenak hiru ezaugarri nagusi ditu:

- ERRAZA (ikastetxean erraz bereganatzeko eta aplikatzeko);
- MALGUA (ikastetxeetako hainbat egoerari erantzuteko modukoa);
- ADIERAZGARRIA (oinarri-oinarrizkoa dena azpimarratzeko balio duena).

Programarako oinarri-oinarrizkotzat jotzen ditugunaldiak (FASEAK) eta horiek garatzeko eman daitezkeen pausoak (URRATSAK) bereiztu beharko lirateke. Faseak ikastetxe guztietan bete beharrekoak lirateke; urratsak, berriz, egoera ezberdinek eraginda aldagarriak lirateke. Faseak hauek dira:

- 1. *FASEA - Prestatzeko eta antolatze fasea.* Fase honetan prozesua martxan ipintzeko oinarriak jarri behar dira (urratsak adibidez hauek izan daitezke: koordinatzailearen aukeraketa, proiektuaren elaborazioa, koordinatzailearen edota talde sustatzailearen edota klaustroaren prestakuntza...), eta hasierako planifikazioa (adibidez: kronograma eta parte hartzeko egitamu) zehaztu behar da.
- 2. *FASEA - Sentsibilizatzeko eta motibatze fasea.* Fase hori proiektua garatzen hasteko oinarritzkoa da, eta komeni da plan edo egitamu berezia egitea, non hainbat estamenturi zuzendutako helburu eta jarduerak bereizten diren. Hori egiteko argi izan behar dugu, programaren protagonista nagusiak ikasleak direla —lehenago ere azpimarratu dugun bezala—, baina horrek irakasleriaren inplikazio zabala eskatzen du. Urratsak hauek izan daitezke: zuzendaritza eta alkatearen sinadura, estamentu guztiak informatzea eta proiektuaren inguruko hausnarketa eragitea, estamentuen iradokizunak jasotzea eta aurreko faseko planifikazioa zehaztea, Ingurumen Batzordearen eraketa (aurreko fasean ez bada eratu) edota berregituraketa...
- 3. *FASEA - Proiektua garatzeko fasea.* Fase hori garatzeko urratsak ohikoak izan daitezke (urratsak adibidez: diagnostikoa, helburuak eta adierazleak, ekintza plana...). Hala ere, komenigarria izan daiteke ekintza planaren kasuan hiru urrats bereiztea: elaborazioa, *onespena* (ahalik eta jende gehienaren partaidetzarekin) eta aplikazioa.
- 4. *FASEA - Ebaluatze eta Komunikatzeko fasea.* Ebaluazioa eta Komunikazioa prozesu osoari dagozkio, eta horregatik komenigarria da hasieratik zehazten diren MUGARRI batzuen arabera egitea. Komunikazioaren kasuan adibidez, mugarriak ondokoak izan daitezke: planifikazioa; diagnostikoa; ekintza-plana; konpromisoak eta proposamenak; memoria eta datorren ikasturterako aurreproiektua.

Sailek ere mugarriak erabili beharko lituzkete: hasierako aurkezpena, Aste Berdea,... udalak ere sinadura eta audientzian.

6. proposamena: ebaluazioa eta komunikazioa

Ebaluazioa

- Ebaluazioa programaren etengabeko hobekuntza-elementu modura garatu behar da.
- Komeni da, oraintxe egin den bezala, urte batzuk barru programaren ebaluazio orokorra egitea erronka eta arazo berrietara egokitzen joan dadin. Ildo horretatik, koordinatzaileen gogobetetze mailak kontuan hartuz, arreta berezia jarri beharko litzateke urtebetetik gorako esperientzia duten eskoletan eta DBHko ikastetxeetan.
- Ebaluazioaren markoa eraikitze galdera batzuk:
 - *Zer.* Gorago ikastetxeekiko aipatutako helburuen lorpen maila.
 - *Nork.* Ikastetxeak eta Ingurugelak.
 - *Noiz.* Ikasturte hasieran (aurretiazko ebaluazioa edo diagnostikoa), ikastetxeekin egiten diren bilerak, koordinazio bilerak eta ikasturte erdian (ebaluazio prozesuala), eta ikasturtearen bukaeran (bildumazko ebaluazioa).

- *Nola*. Adierazleen bitartez. EA21 programaren garapena baloratzeko sistema eta adierazleak sortu behar dira.
Adierazleen inguruan koordinatzaile edo ikastetxeetan prestakuntza berezi bat (edo material berezi bat) egitea merezi du. Gainera, ez du ematen batasuna dagoenik kontzeptu horren inguruan, zein literatura hartzen dugun *neurgailu* gisa agertzen da (adibidez, metro bat) ala *neurtu behar dena* (adibidez, luzera) ala *neurria bera* (adibidez, 3 m). Kontzeptu horren zentzua bateratzea, beste kontzeptu batzuekin ere gertatzen den moduan, ezinbestekoa da.
Ikastetxeen proiektuen garapena baloratzeko adierazleak sortu behar dira.
Ikastetxeek egiten dituzten proiektuak ebaluatu behar dira eta horretarako Ingurugelek bere adierazleak garatu behar dituzte.
- *Tresnak*. Galdetegiak (aurretiatzko ebaluazioa eta ebaluazio prozesuala) eta memoria (bildumazko ebaluazioa).
- Memoriak bi atal nagusi izan behar du (ikus eranskina):
 - GALDETEGIA. Aldez aurretik jarritako adierazle batzuk neurtzeko eta baloratzeko. Atal komun bat izan behar du ikastetxe guztientzat beharrezkoak diren datuak eskuratzeko.
 - ERANSKINAK. Ikastetxeek nahi duten bestelako materiala (edo Ingurugeletatik zehazten dena): ikasturtean zehar egindako karpetekin CDa, material didaktikoa, argazkiak...

— Balorazio ona dituzten esperientziak errekonozimenduren bat izan behar dute (hurrengo atalean proposatzen den moduan).

— *EAEko eskolen aztarna ekologikoaren bilakaera*: oso interesgarri ikusten dugu ideia hori, Aste Berdean urtero egiten diren ingurumen-hezkuntzako Herrialdeetako Topaketetan posible izatea inork hau esan dezan: «Euskadiko eskolek, azken ikasturtean, haien aztarna ekologikoa %5 (edo %3 edo %15) jaitsi dute», adibidez. Hori, lehen aipatu dugun moduan, oso adierazle argia izango litzateke gizarte mailan; programa egin dutenentzat nolabaiteko errekonozimendua litzateke, eta egin ez dutenentzat, berriz, beste dimentsio erakargarri bat.

Horretarako, adierazle minimo batzuk pasatu beharko zitzaizkien ikasturtez ikasturte programan sartzen diren ikastetxeei eta datuen analisiekin eta kontrastearekin emaitza hori lortu. Horrek talde berezia eskatzen du jarraipena egiteko, adierazleak aukeratu eta egokitu, tresnak eraiki, pasatu, jarraipena egin etab.

Aztarna ekologikorik ezean, eskolen ekarpena beste gai batzuk aztertzeraz bideratu daiteke (klimate aldaketa, bioaniztasuna edo partaidetza).

Komunikazioa

Komunikazioari dagokionez, garrantzi berezia eman zaie honako alderdi hauei:

- Ikastetxeek egin behar dute plangintza. Ildo horretatik, interesgarria izango litzateke prozesuak adierazten dituen denbora-mugarriak betetzea, hala nola udalarekin konpromisoa sinatzea, diagnostikoa egitea, udalbatza, Ingurumenaren Mundu Eguna (ekainak 5), eta abar.
- Irakasleen Foroa (Ingurumen-hezkuntzako Herrialdeetako Topaketak), Ingurumenaren Mundu Egunean egiten dena, EA21 programaren Foro gisa sustatzea eta sistematizatzea. Xede horrekin, edukiak, esperientzien trukea eta aintzatespena azpimarratuko dira.
- EA21en Irakasleen Foroa sortzea, hartara, programaren protagonistek esperientziak trukatzeko, berdinkideen artean ikasteko eta programara ekarpenak egiteko aukera edukitzeko.
- Aipatutako komunikazio-prozesuek EA21 programa bera indartzen dute eta programa hobetzeko eta zabaltzeko balio dute.

Ingurumen-hezkuntzako Herrialdeetako Topaketak-Aste Berdea-Ingurumenaren Eguna

— Jadanik EA21 programak presentzia eta protagonismo handia dauka Topaketa hauetan. Kasu honetan irakasleak eta ikastetxeak dira protagonista nagusiak. Ikurra eta ikastetxeen sareak egotekotan, gune hau aipatzea da sareetako ikastetxeen arteko esperientziak aurkezteko eta trukatzeko.

- Topaketa hauetan programaren balantze kuantitatiboa eta kualitatiboa egitea komenigarria ikusten da.
- Ikasleek lekua eta protagonismoa izan behar dute esperientziak trukatzeko, bai foro honetan, bai beste foro batzuetan (Euskal Eko-Parlamentua, lurraldeetako ikasleen eko-foroak, ikasleen eko-topaketak, ikasleen topaketak...).

7. proposamena: agiria, saria edo ikurra

- Programa garatu duten ikastetxeen *aintzatespena* eta diskriminazio positiboa ahalbidetuko duen Kalitate Irizpideen Sistema bat ezarri behar da. Horrela, aipatutako sistema betetzen duten ikastetxeei bereizgarri bat ematea proposatu da (ziurtagiria, sinboloa, ezaugarria...).
- Saria, agiria edo ikurra sortu eta asmatu programa hiru urtez betetzen duten ikastetxeentzat:
 - Lehenengo hiru urteetan, oraingo moduan: deialdia, ikastaroa koordinatzaileentzat, koordinazio bilerak, foroak, Ingurugelen laguntza...
 - Hiru urtez programa bete eta Ingurugelaren balorazioa (adierazle batzuk jarri) pasatuz gero, ikurra emango litzazieke, hiru urtetan egindakoaren ikurra. Ikurra Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak udalarekin batera emango lukete.
 - Ikurra daukateneke beste antolakuntza bat beharko lukete: hasierako ikastaro-mintegi berezia (koordinatzaile berria denean kontuan hartuz), koordinazio bilerak maila honetako ikastetxeekin, udal foroak, laguntza puntuala... eta proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa jasoko lukete Ingurugelaren partez, baina autonomia handiagoz jarraituko lukete beren bidea.
 - Hirugarren urtean, label edo ikurrarekin jarraitzeko balorazioa egingo litzateke (adierazle batzuk jarri).
- Agiria edo ikurra: «Ostadar 21». Programa integrala denez, ez dauka bakarrik harremana ingurumen naturalarekiko, kolore guztiak daukan ikur bat izan beharko luke: arrazen koloreen gaintetik, ohiko kolore berde edo urdinaren gaintetik... Ikur erakargarria, koloretsua, adierazgarria...
- Aipatutako bereizgarria lortzen duten ikastetxeek *sare* bat osatuko dute, eta sare horren bidez indartuko dira esperientziak trukatzeko aukerak eta programaren hobekuntza ere bai; era berean, hasten ari den taldea indartzeko eta sendotzeko balioko du, esperientzien trukaketa eta komunikaziorako tresnak eskainiz (*web*, *blog*-ak, urteroko jardunaldiak...); gainera, ikastetxeko estamentuek etekina aterako liokete aipatutako sareari.
- Bi sare antola daitezke *Udalsare* (eskualdeka) eta *Udaltalde* moduan: agiria daukatenean eta bidean daudenean. Lekua eta denbora eman beharko zaie beren interesak eta esperientziak komunean jartzeko eta berdinen arteko ikasketa sortzeko.
- Garrantzitsua da mota horretako sareak sortzea euskal ikastetxeentzat eta, aldi berean, garrantzitsua da nazioarteko sareetan parte hartzea, horrela lortuko baita toki mailako helburuak betetzea eta programaren eragin globala osatzea.
- Nazioarte mailan Unescok garatzen duenak edo ENSIk (*Environment and School Initiatives/Ingurumen eta Eskola Ekimena*) bultzatzen duenak interesgarriak direla ematen dute. Era berean, Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen nrg4SD (Garapen Iraunkorrerako Erregio Gobernuen Sarea) delako sarean gai honi buruzko azpisarea osatzea ideia ona litzateke.

2.2. INSTITUZIOEI BEGIRA

8. proposamena: erakundeak

Erakundeek programarekin hartutako konpromisoa aitortzeaz gain, honako alderdi hauen bidez lortuko litzateke programa hobetzea:

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Ingurumen eta Lurralde Antolamenduu Sailaren arteko *koordinazioa* indartzea.
- Hezkuntza Sailaren *inplikazioa* handitzea: sailak programa berea egitea, edo programak behar duen babesa eta bultzada eragitea (hizkuntza-normalizazioa bezala), behar diren aholkulariak jarri, Ingurugelen eta Berritzeguneen arteko koordinazioa eta elkar-lana bultzatu, eskolei errekonozimendua

eman... eta, «Iraunkortasuneko Hezkuntzaren aldeko konpromisorantz EAEn» dokumentuaren 5. le-
rroan, 5.1.1 konpromisoan agertzen den moduan, hezkuntza zentro guztietan iraunkortasunerako
dinamizatzailearen figura sortu.

- *Udal*-agintaritzek programarekiko eta eskolek egiten duten lanarekiko erakutsitako inplikazioa eta konpromisoa hobetzea, bai eta udal-agintaritzen eta eskolen arteko harremanak ere. Udal eta eskolen arteko harremanei buruz jarraipena egin behar da. Jarraipen hori eskolatik udalerrietara eskola mundutik egiten da, eta komenigarria da udalerrien mundutik ere egitea harreman horiek hobetzeko asmotan. Ardura hori, lhobe, *Udalsare 21* edota *Udaltalde 21*ekoei dagokie.
- Kontratututako *enpresei* dagozkien zereginaren alderdi sendoak indartzea eta kontratazio mota, prestakuntza, estaldura edo udal-babesa, eta abarrek ekarritako zailtasunak gainditzea, hala nola aurretiazko prestakuntza, ikastetxeen proiektuen jarraipena, udalerriko errealitatearen ezagutza...
- *Gurasoen elkarteekin* harremanetan jartzea komenigarria da. Hau da, lurraldeko elkarteekin kontaktua egin, informazioa pasatu edo formazioa eman, gurasoen paper posiblei buruz eztabaidatu... beren interesa eta konpromisoa lortzeko eta berengandik eskolako Gurasoen Elkarteetan eragina izateko.
- Baloratu behar da *Foru Aldundien* paper posiblea programa honetan.

2.3. INGURUGELEI BEGIRA

Oro har, Ingurugelek balorazio ona lortu dute. Hori dela eta, alderdi positiboak azpimarratu behar dira eta alderdi ahulenak hobetzeko proposamenak egin. Ildo horretatik, honako ezaugarri hauek azpimarratu dira:

9. proposamena: prestakuntza

Prestakuntzari dagokionez:

- Ikastaroetan helaraziko diren mezuak egokitu, koordinatu eta bateratu behar dira.
- Ikastaroaren helburuak eta prozesua hasieran zehaztu behar dira edota konpartitu koordinatzaileekin.
- Ikastetxeen esperientziak trukatzeko espazioak ireki behar dira.
- Esperientzia duten koordinatzaileen parte-hartzea lortu behar da berdinen arteko ikasketa lortzeko, beldurrak kentzeko, motibazioa igotzeko... Hiztegi eta kontzeptu berriei dagokien lekua eta denbora eman behar zaie.
- Erabiltzen diren dinamikekin autorregulazio ariketak egin behar dira, hau da, hausnarketa une txiki batzuk erabili behar dira egindakoaz hausnartzeko eta bere balioa ikasgelan baloratzeko.
- Denboralizazioa zaindu behar da: hobe da lau gauza ondo, denboraz eta sakonki lantzea, hamaika arrapaladan eta zentzu gutxirekin baino (proposatzen dugun faseen planteamenduari lotuta egon daiteke hori).
- Foro Birtualen erabilpenerako azalpenak koordinatzaileen beharrei egokitu behar zaizkie.

10. proposamena: aholkularitza

Aholkularitzari dagokionez:

- Aholkularitzak XXI. mendeko *hezkuntzako* lan ildoei lotuta egon behar du eta ildo horiek bultzatu behar ditu, hala nola: irakaste-ikaste prozesuak aurretiazko ideietatik hasi, ikasketa esanguratsuak bultzatu, ikasten ikasi, ikasketa dialogikoa, ikasketa komunitateak, talde lana, komunikazioa... Horretarako, oso garrantzitsutzat jotzen dugu *Berritzegunee*kiko harremanak eta koordinazioa estutzea helburu horrekin, besteak beste. Horrez gain, «Iraunkortasuneko Hezkuntzaren aldeko konpromisorantz EAEn» dokumentuaren 5. lerroan, 5.1.1 konpromisoan agertzen den moduan, Berritzegunetan iraunkortasunerako dinamizatzailearen figura sortu behar da.
- Aholkularien EA21ekiko funtzioak argitu, adostu eta jarraipenerako mekanismoak ezarri behar dira, baita *koordinazioa* ere hobetu behar da. Horren inguruan hiru ideia:
 - *Aholkularitzaren garapena*. Ahalik eta aholkularitza pertsonalizatuena egitea komenigarria ikusten da, hau da, ikastetxeen egoerei erantzuteko gai den aholkularitzari behar besteko lehentasuna

eman behar zaio. Ikuspuntu horretatik adibidez, lehentasuna ez da izan behar udaleko audientzian zenbat proposamen eramaten diren, zein izango den datorren ikasturteko gaia edo datorren urterako zenbat ikastetxe gehiago sartzen diren programan, baizik eta daudenei, dauden egoerataraz hurbildu, ikastetxearen egoera ezagutu, ulertu. Eta gero ikastetxeetako bakoitzari behar duen moduan eta era egokian arreta eman.

- *Aholkularien papera*. EA21 programaren prozesuaren bermatzailea izan behar da eta eskolarako baliabideak aurkitzeko-bilatzeko laguntzailea eta erantzulea, baita agente motibagarria, zirikatzailea eta ebaluatzailea ere. Ez du gai guztietan teknikari zertan izanik. Adibidez, kazetariak askotan idazten dute sakon ezagutzen ez duten gaiei buruz, baldin eta lanaren muina ezagutzen badute, hau da, zer, nork, noiz, zertarako... galderei erantzuten badakite; aholkulariei ere antzeko funtzio batzuk dagozkie, alegia, programaren azken helburua argi izanez gero, hori bermatzeko behar diren pausuak —zer, nork, noiz, zertarako...— eta haien garapenerako estrategiak, baliabideak eta adibideak eskaini behar dituzte.
- *Hiztegia adostu*. Irakurri ditugun dokumentu askotan ez dago adostasunik hainbat kontzepturen inguruan (ingurumena, garapen iraunkorra, xedea eta helburua, adierazlea, ingurumen-hezkuntza edo garapen iraunkorrerako hezkuntza...) eta kontzeptuen erabileran nahaste-borrastea da nagusi. Adostu behar dira Ingurugelek aldarrikatu nahi dituztenak eta jakinarazi.

— Kontuan izanik, alde batetik, Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian adierazitako helburuen arabera ikastetxe-kopuruak gora egingo duela, eta bestetik, arreta pertsonalizatuagoa lortu nahi dela, nahitaezkoa da *giza baliabide* gehiago eskaintzea.

11. proposamena: baliabideak

Baliabideen artean hauek garatzea beharrezkotzat jotzen dugu:

Faseen eta urratsen arabera

*Eskolako Agenda 21*erako gida bat. Horren inguruan hiru ideia:

- a) Fase bakoitzeko eskema bat egin.
- b) Eskema azalduta egon behar da.
- c) Azalpenean esperientzia eredugarriak tartekatu behar dira.

Gaiaren arabera

- *Praktika oneko esku-liburua* egin. Horretarako, eskoletako esperientzia interesgarrienak bildu eta gaika ordenatu behar dira. Horrekin batera iraunkortasunari lotutako zenbait kontzepturen hiztegia joan daiteke, baita oinarrizko dokumentu batzuei buruzko bibliografia iruzkindua ere. Gai bakoitzaren amaieran berariazko bibliografia agertuko da (energia, ura, garapena... gauza asko argitaratuta baitaude).
- Esperientzien trukaketa sustatzeko... *Eskolen arteko foro interaktiboa* sortu (edo dagoena aprobetxatu). Foroa gaika antolatu daiteke, eta har dezakeen dinamikaren arabera Tokiko Agendan eratu diren ekitaldeen antzekoak sustatu daitezke.
- Gai bakoitzari buruzko *Baliabideen gida* bat egin Bartzelonako udalaren antzera, hau da, atal hauek kontuan izanda: oinarrizko irakurketak, sakontzeko irakurketak, liburuak, material didaktikoak, bideoak eta multimedia materiala, web-ak eta jarduerak eta bisitaldiak.

Esparruen arabera

Esparru (curriculum, kudeaketa eta parte-hartzea) bakoitzari buruzko liburuxka. Kasu honetan ere, egon diren esperientzia eredugarrienak jaso beharko lirarteke. Garrantzia berezia partaidetzari buruzkoak izan beharko luke. Honako atal hauek jorratu daitezke:

- Partaidetzaren garrantzia dokumentu ofizialetan.
- Zergatik partaidetza? Zertarako?
- Nola eragin partaidetza. Adibide interesgarrienak.
- Nolako izan behar da partaidetza? Partaidetza motak, adibide interesgarrienak...
- Eskoletan izan diren partaidetzak zein motatakoak izan diren ebaluatzeko adierazle bereziak prestatu, autoreak proposatzen duen eskailera ereduaren arabera (Hart, 2001) edo beste eredu bat erabiliz (Bermejo eta Nebreda, 1998).
- Ekintza-plana onartzeko *erreferenduma* edo antzeko zerbait antolatzea ere proposatu ahal da.

Eskolako Agenda 21eko web orrialdea eta foro interaktiboa

Ingurugelen *web orrialde* bat non aukera emango den esperientzien trukaketa sustatzeko.

Eskolen arteko foro interaktiboa sortu (edo dagoena aprobetxatu). Foroa gaika antolatu daiteke, eta har dezakeen dinamikaren arabera Tokiko Agendan eratu diren Ekitaldeen antzekoak sustatu daitezke.

Arlo hauei, behintzat, erantzun behar die: formazioa, eskoletako gaiak, esparruak, esperientzien trukaketa eta baliabideen gida.

Interesgarria izango litzateke *on-line* esparru horretan beste estamentuek ere beren txokoa izatea: ikasleak, gurasoak...

Beste material batzuk

- *Glosategi* moduko bat, non argitzen den xedea, helburua, helburu zehatza...; eta hauek ere bai: adierazleak, garapen iraunkorra, ingurumen-hezkuntza...
- *Adierazleak, antolakuntza eta funtzionamendua, komunikazioa* eta mota horretako materiari buruzko txostentxoak. Horrek, agian, beste adoste bat eskatzen du: definizio bat, ezaugarri batzuk, mota adierazgarrienak, eskema bat bakoitza azaltzeko... Horren arabera aztertu behar da Eskolako Agendan proposatzen diren adierazleen egokitasuna, eta horretarako, ahal den neurrian, erabili memoriari ebaluaziorako.
- *EA21 EAetik kanpo* txosten bat, non azaltzen diren beste esperientziak, beren baldintza eta ezaugarriekin, faseak eta kontaktuak informazio gehiago lortzeko.
- *Oinarrizko dokumentazio ofiziala Ingurumen-hezkuntzan* CDa, non topatu ahal diren IHren historian eta garapenean sortutako dokumentu ofizialak eta interesgarriak Stockholm-etik UNESCOko Ingurumen-hezkuntzako Hamarkadara.
- *Agenda 21en inguruko bibliografia iruzkindua (TA21 eta EA21)* bai TA21en inguruan, bai EA21 inguruan, bai beste dokumentazio interesgarri batzuen inguruan.

12. proposamena: koordinazioa

- Ezinbestekoa da aholkularien kopurura handitzea, programan gero eta zentro gehiago izateagatik eta aholkularitzaren kalitatea bermatzeko.
- Aholkularien arteko koordinazioa bermatzeko mekanismoak ezartzea. Interesgarria izango litzateke kalitate sistema batek koordinaziorako eskaintzen dituen estrategiak aprobetxatu, koordinaziorako adierazle batzuk jarri eta haien jarraipenerako sistema bat eratu. Koordinatzeko esparruak, besteak beste, hauek dira:

- Protokolo bat programa osotasunean egiteko.
- Protokolo bat aholkularien arteko koordinazio bilerak aurrera eramateko.
- Ikastaroetan jorratu behar diren helburuak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa.

- Koordinatzaileekin egiten diren bileretarako protokolo bat adostu, bileren helburuak, kronograma bat mugarrien arabera...
- Koordinazioaren hobekuntza jarraitzeko mekanismo bat edo batzorde bat ezarri.

2.4. ESKOLARI BEGIRA

Ikastetxeetan EA21en proiektu egokiak ari dira garatzen. Etorbizunera begira egiten diren proposamenen bidez, programaren potentzialtasunak ikastetxearen testuinguru errealean garatzea lortu behar da, bai eta alderdi ahulak gainditzea eta behar diren alderdiak hobetzea ere. Ildo horretatik:

Programaren *xedea* une oro gogoan hartzea komeni da eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartzearekin ikastetxearen eskola- eta ingurumen-kalitatea hobetzea lortu behar da, bai eta ikastetxea kokatzen den udalerriko iraunkortasunari laguntzea ere. Era berean, programaren konplexutasuna, ingurumen-programa orok duen konplexutasuna kontuan hartzea komeni da, ingurumenarekiko sentsibilizazioa, ezagutza, gaitasuna, jarrera, motibazioa eta konpromisoa garatzeko.

Programaren garrantzi orokorrak ohartzea komeni da, izan ere, esparru guztietako milioika pertsona baitaude garapen iraunkorrerako ingurumen-hezkuntzarekin konprometituta. Bestelako estamentuek *dimentsio* horren berri jakin behar dute, informatu behar zaie.

Eta garrantzitsua da, halaber, *ikasleen protagonismoa* aitortzea eta sustatzea, beraiei programa barruan esparruak, esperientziak, eta ardurak eskainiz.

13. proposamena: kudeaketa

Kudeaketa iraunkorrari dagokionez:

- Kudeaketa-esparruaren nagusitasuna gainditzea eta beste bi esparruekiko oreka lortzea komeni da.
- «Praktika onen» antzeko materiala egitea inportantea izango litzateke, ikastetxeek garapen iraunkorreko prozesuen gainean erreferentzia egokiak jarraitzeko.
- Adierazle zabaletan egindako lorpenak ebaluatzea, hala nola: «eskolako aztarna ekologikoa murriztea» edo «CO₂ emisioak murriztea»; eta udalerriarekiko inplikazioa.
- EA21 programak ikastetxean garatzen diren proiektuetan inbrikatzeko aukera aztertzea.

14. proposamena: parte-hartzea eta antolakuntza

- Estamentu guztien parte-hartzea bultzatzeko ikerketa sakonagoa egin behar da: dokumentazioa aztertu, era askotako esperientziak analizatu, azkeneko teoriak berrikusi...
- Txostena egin, non azaldu behar diren partaidetzaren nondik norakoak, zergatiak, zertarakoak eta abar, alde batetik, eredu batzuk proposatzeko eta, bestetik, estamentu bakoitzaren aukerak eta ereduak zabaltzeko.
- Ikastetxe bakoitzak definitu behar ditu agente bakoitzari EA21 programan dagozkion funtzioak, erantzukizunak eta jarraipena.
- Antolamendua egokitu behar da, parte-hartzea errazteko eta parte hartzeko espazio berriak sortzeko.
- Eskolan partaidetzak egitamu berezia behar du.
- Agente bakoitzak parte hartzeko aukera ugari izan behar du, adibidez:

| | IRAKASLEAK | IKASLEAK | GURASOAK | LEI | BESTE BATZUK |
|--------------------------|---|---|---------------------|-----|--------------|
| ESKOLA MAILA | INGURUMEN BATZORDEA | | | | |
| ESKOLA / IKASGELA MAILAN | — Tutoretza Taldeak | — Eko-ordezkariek — Ikasgelako ardurak | — | — | — |
| | — Koordinatzailea — Talde Sustatzailea — Pedagogia Taldea | — Komite Txikiak — Ekintza Taldea /Haur Taldea / Patruila Berdea | — Gurasoen Elkartea | ? | ? |
| HERRI MAILAN | — ESKOLEN ARTEKO KOORDINAZIO BILERA | UDALBATZA | — | — | — |
| EAE MAILAN | ASTE BERDEKO TOPAKETAK | — IKASLEEN ARTEKO EKO-PARLAMENTUA — IKASLEEN EKO-FOROA (eskualdeka, lurraldeka, EAE mailan)... | — | — | — |

Ingurumen Batzordea

Lerro nagusiak markatzeko eta koordinazioa mantentzeko. Hezkuntza komunitateaz osatuta. Irakasleek, ikasleek, eta ahal bada familiek eta LEIk osatuta.

Irakasleentzat

Orokorrean, lehenengo unean, ardura koordinatzaileari eta zuzendaritza taldeari dagokie; hortik aurrera, eta, ikastetxeen tamaina kontuan hartuta, komenigarria da partaidetza maila bat baino gehiago ezartzea, adibidez:

- Talde Sustatzailea. Proiektuaren dinamizatzailea eta antolatzailea da. Funtsezkoa da koordinatzailea eguneroko jardunean isolatuta sentitu ez dadin. Oso interesgarria izango litzateke talde horretan koordinatzailea, zuzendaritzako taldekide bat, eta zikloko edo departamenduetako arduraduna egotea. Koordinatzailearen lanean laguntzeko, Ingurumen Batzordearen eta tutoreen arteko zubia izateko, komiteen jarraipena egiteko...
- Batzorde Pedagogikoa edo Pedagogia Taldea: arlo guztien arteko koordinazioa bermatzeko; talde sustatzaile eta departamentu edota mintegien arteko zubia egiteko.
- Azkenik, Tutoretza Taldeak. Ikasleekin batera mailaka landuko diren jarduerak adosteko eta bideratzeko. Tutoreak klabeak dira prozesu honetan: ikasturte hasierako gelako asanbladan eko-ordezkariek hautatzeko...; komite txikiko, Ingurumen Batzordeko... proposamenak eztabaidatzeko; Ekintza Taldeak/Haur Taldeak/Patruila Berdeak antolatzeko (hori LHn eta DBHn, agian, beste era batekoa izan behar da); tutoretza orduak programaren garapenean zenbait jarduera egiteko (ekintza taldeak/patruila berdekoak ikuskatzaile lana egiteko, erakusketak... prestatzeko...).

Ikasleentzat

Era berean, partaidetza mailak ere planteatu behar dira, adibidez:

- EKO-ORDEZKARIAK. Ikasgelako ordezkari bat EA21erako. Toki batzuetan hauteskunde bidez hautatu dituzte eta esperientzia ona izan da. Dena den, gelako ordezkari bana ateratzeko interesa piztu behar da, eta hori, bereziki DBHko goi mailetan, ez da erraza izango.

- Ideia bat *Eko-Parlamentu*arena izan daiteke, edo antzeko zerbait. Kasu horretan Gasteizko Legebiltzarrera joateko, lehenengo, eskualdeko edo lurraldeko ordezkariak bilduko lirateke (ikastetxeko ordezkari bana), eta bilera horretan Gasteizera joateko eskualdeko bi ordezkari hautatuko lirateke...
- KOMITE TXIKIAK. Koordinatzailea eta maila bakoitzeko ikasle bana. Proposamenak egiten dituzte, eta geletan eztabaidatu ondoren, erabaki eta martxan ipintzen dituzte.
- EKINTZA TALDEAK / PATRUILA BERDEA. Diagnostikoa egiteko... eta bereziki, lortutako konpromisoen jarraipenerako mekanismo egokia izan daiteke. LHko goi mailetan: gela bakoitzak hilabetean zehar eskolako errebisioa egiten du (horretarako lau talde egiten dira eta talde bakoitzak astebeterako hartzen du ardura). DBHn beharizanen arabera gelako talde boluntarioak eratzea litzateke. Komite Txikiko ordezkariak, une zehatz batean, beharizanak azalduko lituzke gelan (tutoretza orduan) eta horiek betetzeko talde boluntarioa eskatu. Lan hori egiteko denborak ezberdinak izan daitezke (tutoretza ordua bera: korridoreak kontrolatzeko; agian atsedendia: korridoreak eta gelak kontrolatzeko; jatorduaren inguruan egoten den denbora libre: korridoreei eta gelei behaketa egiteko...).
- GELAKO ARDURAK: ikasturte hasieran gelako asanblada egin daiteke. Bertan, gelako arauak ezarri (aurreko ikasturtean erabaki baldin badira), birziklatzeko kutzak jarri, gelako ardurak banatu (argiena, leihoena...), eko-ordezkarien hautaketa, patrulla berdearen eraketa LHn...

Gurasoentzat

Gurasoen sentsibilizazioa lantzeko eta beraien partaidetza bilatzeko hiru eremu jorra daitezke:

- Informazioa: mugarrak aprobetxatuz eta guraso guztiei edota elkartekoei jakinarazteko ikasturte hasieran, udalbatzen garaian, Aste Berdean...
- Formazioa: hitzaldiak, erakusketak, eskolako aldizkaria, foroetako emaitzak... Agian, teknologia berriak aprobetxatuz eremu honek beste dimentsio bat ere lor dezake.
- Inplikazioa: eurek parte hartzeko erakundeak sortuz eta eurek parte hartzeko moduko jarduerak antolatuz (begiratu partaidetza zuzena) edo, behintzat, sortzeko eta antolatzeko bultzatu. Partaidetza zuzena ere bilatu ahal da (Ingurumen Batzordean, diagnostikoa egiten etxean edo herrian, beren aztarna kalkulatzeko, etorkinen gurasoak zuzenean inplikatzeko aste interkulturean, iradokizunetarako buzoia sortzen...). Gero, ordezkari horiek Gurasoen Elkartearen informatzaileak izan behar dira eta hortik bideratu haien parte hartze berria: elkarrearen buzoia edo elkarrearen txoko berdea, ekintza osagarriak (mendi irteerak, tailer bereziak, erakusketak...), aste bereziak antolatu...

DBHn behintzat bi bide jorra daitezke gurasoengana iristeko:

- Ikasturte hasieran tutoreen bidez egiten diren geletako bilerak.
 - Gurasoen Elkartearen ordezkariak eta, noski, baldin badaude Ingurumen Batzordekoak.
- Lurraldeetako ikasleen guraso elkarteekin Ingurugela elkartu behar da, EA21 programaren inguruan informazioa pasatzeko, helburuak konpartitzeko eta gurasoen paperaz eztabaidatzeko. Lurraldeetako Elkarteak gurasoen partaidetzaren bultzatzaileak izan behar dira, baina horretarako programa, helburuak eta gurasoengandik espero dena ezagutu behar dute.

Langile ez irakasleak (LEI)

Gurasoekin gertatzen den moduan, LEIen partaidetza definitu behar da, hau da, zehaztu egin behar da ea zein den bere funtzioa eta papera EA21 programan eta, horren arabera, parte-hartzea bultzatu eta antolaketza egokitu, eraginkorra izateko.

15. proposamena: curriculum

- EA21en bidez curriculum-berrikuntza erraztuko duten *laguntza materialak* sortu behar dira, helburuak eta metodologia bat etortzeko, diziplinartekotasuna edo zeharlerrotasuna lortzeko, giza kalitatea eta garapena lortzeko...

- Curriculumak ikastetxean sartzeko *bideak hobetzea*: helburuak, metodologia, edukien sekuentziazioa, eta abar. Normalean, ikastetxeetako edukien trataera atomista batetik trataera holistiko batera pasatzera bultzatu behar da. Helburu bateratuetara eta ikuspegi integratu batera joan behar dira edukien, estrategien, prozeduren eta jardueren arteko harremanak. Hemen, besteak beste, bi bide aurki daitezke: curriculumak eduki bereziekin busti edo eduki polidimentsionalak erabili.
- Berrikuntza pedagogikoa XXI. mendeko *hezkuntzaren* ardatzen arabera garatzea: garapen iraunkorrerako hezkuntza, pentsamendu kritikorako hezkuntza, parte hartze demokratikorako hezkuntza...
- Beste alde batetik, eskola batean ez dago proiektu bakar bat, baizik eta proiektu multzo bat garatzen dira. Egoera konplexu honetan bata bestearen atzean dauden bi pausu aipatu daitezke:
 - Lehenengoa zera da: eskolan garatzen diren proiektu guztiak koordinatu. Oinarrizko koordinazioa jadanik lortzen da denborak, espazioak eta baliabideak erabiltzeko orduan. Baina, beste koordinazio mota bat beharrezkoa da proiektu bakoitzean lantzen diren edukiak, jarduerak eta metodologiak koherentzia bat izateko.
 - Bigarrena hau izan daiteke: bilatu ahal da azpiegitura bat non proiektu guztien printzipio nagusiak elkartzen diren eta, ondorioz, antolaketa berri bat asmatu behar da non proiektu bakoitzaren berriratzeko eremuak garatzea bermatzen den eta elkarren arteko koordinazioa, jarraipena eta balorazioa lortzen diren. Kasu honetan bi aukera agertzen zaizkigu: bata, EA21 beste proiektu nagusiago batean integratzea (kalitatea, Hezkuntza Komunitatea...), eta, bestea, EA21en potentzialtasuna eta metodologia aprobetxatuz beste proiektuen babesa eta ardatza izatea.
- EA21 programa ikastetxean egiten diren *proiektuekin koordinatzea* edo beste proiektu zabalago baten barnean sartzea (kalitatea, eskola-komunitatea, eta abar).
- Curriculumaren arloan ikasleek EA21 programan egindako lana, beste arloetako helburu eta edukietan egin den moduan, *ebalatu* egin behar da, eta adierazleak erabilpena bultzatu.
- EA21 programak lotura estua dauka eskoletan *Natur Zientzietako* arloarekin eta, hori gainditzeko, ingurumenaren ikuspegi holistiko baten bidez borrokatu behar da, informazioa, prestakuntza eta ereduak emanda.
- Bai LHn, baina bereziki DBHn, programaren txertaketa curriculumean hobetu behar da. Horretarako, alde batetik, beharrezkoa ikusten da prestakuntza berezia txertaketa hori zelan egin behar den ikusteko, eta bestetik, zentroen antolakuntzan (bereziki DBHn) aukerak eta ereduak zabaldu behar dira koordinazioa eta talde lana hobetzeko.

16. ebaluazioa eta komunikazioa

- Ikastetxeek *ebaluazio-sistema* bat (helburu, adierazle eta tenporalizazioarekin) behar dute lantzen ari diren EA21 proiektua ezagutzeko, kontrolatzeko eta hobetzeko. Egiten duten lanean adierazleak, jarraipena eta balorazioa egiteko beharra azpimarratu behar da.
- Funtsezkoa da klaustroari ematen zaion *informazioa* zaintzea, bai programari buruzko informazioa, bai programaren garapen, lorpen, eta abarrei buruzkoa ere. Irakasle-taldea inplikatzeko lortu behar da eta behar den bezala informatzea.
- Ondorengo ikasturteetan hartutako akordioak kontrolatzeko edo *jarraipena* egiteko mekanismoak ezarri behar dira (edukien sekuentziazioa, irteera jakin batzuen antolamendua, alderdi metodologikoak...). Gogoratu behar da jarraipen hori ez dela urte batetik bestera egiten eta, bereziki, gaia aldatzen denean, hartutako konpromisoak ahazteko arrisku handia dagoela.
- Ikastetxeek programaren garapenaren *mugarriak* edo funtsezko uneak aprobetxatu behar dituzte, hartara, estamentu desberdinetan eta udalerrietan egindako lanak jakinarazteko eta horien informazioa emateko.
- Halaber, udalerriko edo *eskualdeko* gainerako ikastetxeekin koordinazioa eta egiten den lana indartu behar da, izan ere, balorazio eta errendimendu oso altuak lortu baititu, eta gainera, herri dimentsioa hobeto lantzeko aukera ematen baitu.

Azken finean, ikerketako emaitzen arabera, Eskolako Agenda 21 programa ona da, potentzialtasun handikoa, proiektu orokor baten barruan dago kokatuta, garapen egokia du eta, eskuarki, programan inplikaturako estamentu guztiek positiboki baloratu dute programa. Etorkizunean funtsezkoa izango da programa laguntzen duten erakundeen inplikazio maila areagotzea. Funtsezkoa izango da, halaber, programaren potentzialtasunak garatzea, alderdirik ahulenak hobetzea, ikastetxeen lana azpimarratzea eta esperientziak eta programa bera trukatzeko sare bat sortzea.



BALIABIDE BIBLIOGRAFIKOAK

5

1. ESKOLAKO AGENDA 21

- AZNAR, P. (2004): *Educación ambiental para el desarrollo sostenible: hacia la construcción de la A21E*. Ce-neam-en Karpeta, apirila. Ingurumen Ministerioa. Madril.
- CAJA DE AHORROS DEL MEDITERRÁNEO (1998): *Un centro verde es... Guía para la autoevaluación de Centros Educativo*. CAM. Alacant.
- CEA-INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA (2005): *Garapen Iraunkorrerako Ingurumen Heziketako Jardueren katalogoa Vitoria-Gasteiz eta Araba, 2005/2006 ikasturtea*. Ingurugiro Gaietarako Ikastegia eta Gasteizko udala. Vitoria-Gasteiz.
- CONDE NÚÑEZ, M. C. (2005): *Integración de la educación ambiental en los centros educativos. Ecocentros de Extremadura. Análisis de una experiencia. (Doktoretza-tesia)*. Extremadurako Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua. Caceres.
- CONDE NÚÑEZ, M. C. et al. (2003): *Ecoauditorias. Experiencias en centros educativos: de la concienciación al compromiso. Ecocentros*. Extremadurako unibertsitatea, Irakasleen Prestakuntzarako Fakultatea. Caceres.
- LAS ACACIAS-EKO NATUR TAILERREKO TALDE PEDAGOGIKOA (2001): *Ecoauditoría escolar*. Madrilgo Erkidegoa, Hezkuntza Saila. Madril.
- FERNÁNDEZ OSTOLAZA, A. (1996): *Eskola ekoauditoria*. Eusko Jaurlaritza. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Gasteiz.
- FERNÁNDEZ OSTOLAZA, A. (2002): *Jasangarritasunerako hezi: EA21, eskolarentzako gida*. Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Gasteiz.
- EUSKO JAURLARITZA, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila (1997): *Eskola ekologikoa*. Argitalpen-zerbitzua, Eusko Jaurlaritza. Bilbo.
- INGURUMEN MINISTERIOA (1999): *Libro Blanco de la Educación Ambiental en España*. Ingurumen Ministerioa, Argitalpen-zentroa. Madril.
- MAYER, M. et al. (2005): *Quality Criteria for ESD-Schools*. SEED-School Development through environmental education, ENSI-Environment and school initiatives eta Austrian Federal Ministry of Education, Scienza and Culture. Viena, Austria.
- XARXA DE CIUTATS Y MUNICIPIOS PAR LA SOSTENIBILITAT (2001): *Agenda escolar*. Xarxa de Ciutats y municipios par la sostenibilitat. Bartzelona.

2. EAE-TIK KANPOKO ESPERIENTZIAK

ESTATUA

A CORUÑA: http://www.edu.aytolacoruna.es/aprender_en_coruna_05_06/programas_2005_06/

ANDALUZIA: <http://www.juntadeandalucia.es/medioambiente/>

ARANDA DE DUERO: http://www.arandadeduero.es/seccion.asp?id_seccion=165&id_concejalia=38

BALEARRAK: <http://www.weib.caib.es/Programes/ambientalitzacio/presentacio.htm>

BARTZELONA: <http://www.bcn.es/agenda21/a21escolar/index.htm>

KATALUNIA: http://mediambient.gencat.net/esp//ciutadans/educacio_ambiental/escoles_verdes/

EXTREMADURA: <http://agralia.juntaex.es/medioamb/medioamb/ecocentros/eco01.htm>

GALIZIA: <http://www.xunta.es/conselle/cma/GL/CMA07g/CMA07ga/Axenda21.pdf>

GUADALAJARA: http://www.dguadalajara.es/agenda21/paginas/ec_que.htm

EA21ERAKO EUROPAKO GIDA: <http://www.econet21.org/es/productos/guia.pdf>

ERRIOXA: http://www.larioja.org/ma/educacion_ambiental/centros_educativos/

MADRIL: http://www.obrasocialcajamadrid.es/ObraSocial/os_cruce/0,0,70118_1074738_0_0,00.html

SANTANDER: <http://centros3.pntic.mec.es/cp.cisneros/index.html>

TORRELAVEGA: <http://www.ciefp-torrelavega.org/acrobat/agenda21.pdf>

EUROPA

ALEMANIA: <http://www.learnline.de/angebote/agenda21/schule/index.htm>; www.agenda21schulen.nrw.de/

BELGIKA: <http://www.ecolespourdemain.be/>

FRANTZIA: <http://www.comite21.org>; <http://www.eduquer-au-developpement-durable.com/#>

ITALIA: <http://www.regione.emilia-romagna.it/agende21/a21cd/index.htm>;

<http://www.speziambiente.it/labter/cA21E.htm>

ITSASO BALTIKOA 21: <http://www.baltic21.org>

BARENTS ITSASOA 21: http://www.svanhovd.no/la21/index_la21.html

MOLDAVIA: http://www.ecissurf.org/files/localgov/Petrusevschi_Tools_LDev_Moldova.ppt

POLONIA: <http://www.eko.pb.bialystok.pl/pliki/recycling2.pdf>

Portugal: <http://www.futurosustentavel.org/>

LATINOAMERIKA

ARGENTINA: <http://www.misiones.gov.ar/ecologia/ReservasPrivadas/RinconNazari3d.htm>

BRASIL: <http://www.mec.gov.br/secad/educacaoambiental/> ; A21E-Brasil-Discusión.pdf

TXILE: <http://www.conama.cl/certificacion/1142/propertyvalue-6120.html>

MEXIKO: <http://ambiental.uaslp.mx/foroslp/>

PERU: http://www.conam.gob.pe/documentos/EAMBIENTAL/certificacion/Sistema_certificacion.doc

VENEZUELA: <http://www.campus-oei.org/revista/experiencias59.htm>

ECO-SCHOOLS

<http://www.eco-schools.org/countries/natpages.htm>

3. BIBLIOGRAFIA OROKORRA

BENAYAS, J., GUTIÉRREZ J. ETA HERNÁNDEZ, N. (2003): *La investigación en educación ambiental en España*. Ingurumen Ministerioa. Madril.

COLLER, X. (2000): *Estudio de casos*. Koaderno metodologikoen bilduma, 30. zk. Ikerketa soziologikoen zentroa. Madril.

DELANTE, G. (2006): *Community: comunidad, educación ambiental y ciudadanía*. Graó argitaletxea. Bartzelona.

EUSKO JAURLARITZA (2003): *Garapen iraunkorra. Erreferentziazko agiriak*. www.ingurumena.net.

Fox, D. J. (1981): *El proceso de investigación en educación*. Eunsa. Iruña.

HAINBAT EGILE (1992): *Educación Ambiental. Cuadernos de Pedagogía* aldizkariko monografikoa. 204. zk., ekaina. Fontalba. Bartzelona.

HERNÁNDEZ, R. et al. (2002): *Metodología de la investigación*. McMraw-Hill Interamericana argitaletxea. Mexiko DF, Mexiko.

HART, R. A. (2001): *La participación de los niños en el desarrollo sostenible*. P.A.U. Edizioak Bartzelona.

IMBERNÓN, F., koord. (1999): *La educación en el siglo XXI. Los retos del futuro inmediato*. Graó argitaletxea. Bartzelona.

INGURUMENARI ETA GARAPENARI BURUZKO RIOKO DEKLARAZIOA ETA 21 PROGRAMA (1993): *Nazio Batuen Ingurumenari eta Garapenari buruzko Hitzaldiaren txostenean*. Rio de Janeiro, 1992ko ekainaren 3tik 14ra. I. liburukia, Nazio Batuen Konferentziak onartutako ebazpenak. New York.

INGURUMEN MINISTERIOA (1999): *Libro Blanco de la Educación Ambiental en España*. Ingurumen Ministerioa. Argitalpen zentroa. Madril.

NAVAS, M.J. (2001): *Métodos, diseños y técnicas de investigación psicológica*. Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionala. Madril.

- Novo, M. (1995): *La Educación Ambiental. Bases éticas, conceptuales y metodológicas*. Universitas. Madrid.
- OLIVER, M. F. (2005): *Actitudes y percepción del medio ambiente en la juventud española*. Ingurumen Ministerioa. Madrid.
- ORELLANA, I. (2005): *La estrategia pedagógica de la comunidad de aprendizaje en educación ambiental: aprendiendo a construir un saber-vivir-juntos en un medio de vida compartido*. Ceneam-en karpeta, maiatza. Ingurumen Ministerioa. Madrid.
- RUL, J. eta ZAITEGI, N. (2003): *Ikastetxearen autoebaluazioa. Ebaluazio-tailerra: EK-Rs kudeaketa-eredua*. Eusko Jaurlaritzza-Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- SESZ-CEEP (1998): *Aurretiazko ideiak eta ingurugiro-heziketa*. BBK Fundazioa eta Eusko Jaurlaritzza-Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Bilbao.
- SUREDA, J. eta CALVO A. M. (2003): *La red Internet y la educación ambiental*. Graó argital. Bartzelona
- UNESCO (1997): *La educación encierra un tesoro: Una educación para el segundo milenio*. UNESCO. Paris.
- WEISMAN, H. Y LLABRÉS A. (2001): *Guía para hacer la AE21 en Barcelona*. Bartzelonako Udala. Bartzelona.

4. TOKIKO AGENDA 21

- BARTZELONAKO DIPUTAZIOA (2000): *Agenda Local 21: modelo de la Diputación de Barcelona*. Bartzelonako Al-
dundia. Bartzelona.
- BERMEJO, R.; NEBRED, A. (1998): *Conceptos e instrumentos para la sostenibilidad local*. Bakeaz Koadernoak,
26 zkia. Bilbao.
- CEA-INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA (1998): *Agenda 21: hacia un desarrollo sostenible*. Vitoria-Gasteizko
Udala. Vitoria-Gasteiz.
- COLLER, X. (2000): *Estudio de casos*. Colección Cuadernos Metodológicos, n.º 30. Soziologia Ikerketen Zen-
troa. Madrid.
- DONOSTIAKO UDALA (2000): *Agenda Local 21 Donostia-San Sebastián: buenas prácticas ambientales hacia un
desarrollo sostenible*. Donostiako Udala. Donostia-San Sebastián.
- EB (2001): *Garapen Jasangarrirako Europako Batasunen Estrategia. Mundu berria lortzeko garapen jasanga-
rria European*. Eusko Jaurlaritzza, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila eta IHOBE.
- EB (2002): *Europako Erkidegoaren Ingurumeneko Seigarren Ekintza Programa*. Eusko Jaurlaritzza, Lurralde
Antolamendu eta Ingurumen Saila eta IHOBE.
- ERRIOXAKO AUTONOMIA ERKIDEGOA (2002): *Agenda Local 21: ciudad sostenible y azul*. Errioxako Erkidegoa. Doku-
mentua.
- EUSKO JAURLARITZA, LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA (2002): *Ingurumen adierazleak 2002*. IHOBE.
- EUSKO JAURLARITZA, LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA (2003): *Tokiko Agenda 21eko adierazleak*.
IHOBE.
- EUSKO JAURLARITZA, LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA (2003): *Ingurumen adierazleak 2003*. IHOBE.

- EUSKO JAURLARITZA, LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA (2003): *Garapen iraunkorra. Erreferentziazko dokumentuak*. www.ingurumena.net.
- EUSKO JAURLARITZA, LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA (2004): *Ingurumen adierazleak 2004*. IHOBE.
- EUSKO JAURLARITZA, LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA (2005): *Ingurumen adierazleak 2005*. IHOBE.
- EUSKO JAURLARITZA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA eta LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA (1997): *Escuela ecológica*. Argitalpen Zenbitzua. Eusko Jaurlaritzak.
- FOX, D. J. (1981): *El proceso de investigación en educación*. EUNSA. Iruña.
- HAINBAT EGILE (2002): *Nuestro futuro (II). Reducción de la pobreza*. www.lainsignia.org
- HEWITT, N. (1998): *Europako Tokiko Agenda 21en Plangintzarako gida*. ICLEI. Bakeaz-Eusko Jaurlaritzak, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila.
- <http://www.cartadelatierra.org/>
- ICLEI (2000): *Declaración de Hannover. Medio ambiente urbano y Agenda Local 21. III Conferencia Europea sobre ciudades y pueblos sostenibles*. Hannover (Alemania).
- ICLEI (2002): *Principios de Melbourne para la sostenibilidad de las ciudades*. Melbourne (Australia).
- IHOBE (2005): *Ekobarometro soziala*, n.º 2004. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila eta IHOBE.
- IHOBE, UDALSAREA 21 (2004): *Aalborg + 10. El compromiso de los municipios vascos*. Eusko Jaurlaritzak, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila, IHOBE eta Udalsarea 21.
- MADRILGO UDALA (2002): *Agenda Local 21 del Ayuntamiento de Madrid. Madrilgo Udala*. Madril.
- NBE (1992): *Agenda 21*. <http://www.rolac.unep.mx/agenda21/esp/ag21inde.htm>. Mexiko.
- NBE (2000): *Declaración del Milenio*. Nazio Batuen Batzar Nagusiak onaitutako ebazpena.
- NBE (2002): *Garapen Jasangarriari buruzko Johannesburg-eko Nazioarteko Goi-bilera*. Eusko Jaurlaritzak, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila eta IHOBE.
- NBE (2005): *Estrategia de la Comisión Económica Para Europa (CEPE) de educación para el desarrollo sostenible*. CEP/AC.13/2005/3/Rev.1.
- REDEFINING PROGRESS (2005): *Ecological Footprint Workshop. Teacher's manual*. Redefining Progress. Oakland, AEB.
- RELEA I GINÉS, F.; PRAT I NOGUER, A. (1998): *La huella ecológica de Barcelona. Una aproximación*. Bartzelonako Udala. Bartzelona.
- SANCHEZ, E. (1992): *La agenda 21: un proyecto ambicioso*. Nuestra Escuela aldizkarian artikulua. Madril.
- SUREDA, V.; CANALS, R. M. (2000): *Los progresos de la Agenda 21 Local en los municipios de Barcelona. I Metodología para la elaboración de auditorías ambientales municipales*. Diputació de Barcelona, Àrea de Medi Ambient. Bartzelona.
- THE EARTH COUNCIL (2000): *Carta de la Tierra*. Costa Rica.

TVEITDAL, S. (2003): *Water World. Childre's voices: an educational booket on water for children*. UNEP-Pro-grama Medioambiental de Naciones Unidas. Nairobi, Kenya.

XARXA DE CIUTATS I POBLES CAP A LA SOSTENIBILITAT (2000): *Sistema municipal de indicadores de sostenibilidad*. Xarxa de Ciutats i Pobles cap a la sostenibilitat. Bartzelona.

XARXA DE CIUTATS Y MUNICIPIOS PAR LA SOSTENIBILITAT (2001): *Agenda escolar*. Xarxa de Ciutats y municipios par la sostenibilitat. Bartzelona.

ZARAGOZAKO UDALA (2002): *Agenda Local 21: hacia el desarrollo sostenible*. Zaragozako Udala. Zaragoza.

5. BESTELAKO PROGRAMAK

II. eranskina ikusi: EA21 hemendik kanpo.

6. ERAKUNDEAK

NAZIO BATUAK

UNESCO

<http://www.unesco.org>

United Nations Division for Sustainable Development

<http://www.un.org/esa/sustdev/>

Johannesburg Summit 2002

<http://www.un.org/esa/sustdev/>

Milurtekoaren garapen helburuak

<http://www.un.org/spanish/millenniumgoals/index.html>

Programa Habitat

<http://habitat.aq.upm.es/bpn/lista.html>

UNPD United Nations Development Programme-Programa de NU para el Desarrollo

<http://www.undp.org/spanish/>

OECD-ELGA (Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundea)

<http://www.oecd.org>

EUROPA BATASUNA

EuropakoBatzordea

http://ec.europa.eu/index_es.htm

Europako Batzordea. Garapen Iraunkorrerako Arloa

http://ec.europa.eu/sustainable/welcome/index_en.htm

Ingurumen Europako Bulegoa

<http://www.eeb.org/Index.htm>

Ingurumeneko Europako Agentzia
<http://sd-online.ewindows.eu.org/>

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila
<http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-387/eu/>

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2591/eu/>

EHU Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedra Urdaibai Biosfera Erreserbaren markoan
<http://www.ehu.es/cdsea/>

INGURUMEN HEZKUNTZAKO ERAKUNDEAK

Nazio Batuen Hamarkada-Garapen Iraunkorrerako hezkuntza
http://portal.unesco.org/education/es/ev.php-URL_ID=27234&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.htm/

WEEC Mundu mailako Ingurumen Hezkuntzako Kongresua
<http://www.3weec.org>

Ingurumen Hezkuntzako Europako Fundazioa
<http://www.fee-international.org>

Ingurumen Hezkuntzako Espainiako Elkarte
<http://www.ae-ea.org/>

Ingurumen Hezkuntzako Elkartea Katalana
<http://www.pangea.org/scea/>

Ipar Amerikako Ingurumen Hezkuntzako Elkarte
<http://naaee.org/pages/index.html>

Outdoor Education Research & Evaluation Center-Gelaz kanpoko hezkuntzaren ebaluazioaren ikerketa zentroa
<http://www.wilderdom.com/research.html>
<http://www.wilderdom.com/environment/>

Environmental Education and Training Partnership-Ingurumen Hezkuntza eta Prestakuntza
<http://www.eetap.org/>

National Forum on Partnerships Supporting Education about the Environment-AEBetako Eskola Berdeak
<http://www.gcario.org/edu/pcsd/index.htm>

ENSI (Environment and School Initiatives-Eskola eta Ingurumen Ekimenak)
<http://www.ensi.org>

SEED School Development through Environmental Education/Eskolako Agendaren bitarteko eskola garapena. Comenius 3, Socrates programa barruan.
<http://seed.schule.at/webpage.php>

Asiako Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Sarea
<http://www.esd-j.org/en/>

INGURUMEN ERAKUNDEAK

NSSD National Strategies for Sustainable Development-Garapen Iraunkorrerako Nazio Estrategiak
<http://www.nssd.net/>

WRI: World Resources Institute-Munduko Baliabideen Institutua
<http://www.wri.org/>

Worldwatch Institutua
<http://www.worldwatch.org/>

Earth Council-Lurraren Kontseilua
<http://www.ecouncil.ac.cr/>

IISD International Institute for Sustainable Development-Garapen Iraunkorrerako Nazioarteko Institutua
<http://www.iisd.org/>

DESI-Dow Jones Sustainability Indexes-Iraunkortasunerako Dow Jones Indizeak
<http://www.sustainability-index.com/>

GRI Global Reporting Initiative-Zabalkunde Globaleko Ekimena
<http://www.globalreporting.org/>

RCDS Garapen Iraunkorrerako komunikazio Sarea
http://www.sdcn.org/default_es.htm

SD Gateway-Sustainable Development Gateway-RCDSko kideek linean garatutako informazioaz osatuta dago
http://sdgateway.net/es_default.htm

Liburutegia CF+S. Etorkizun Iraunkoragoaren aldeko hiriak
<http://habitat.aq.upm.es/>

Espainiako Iraunkortasunaren Behatokia
<http://www.sostenibilidad-es.org/>

Bizitza Iraunkorra Elkartea
<http://www.vidasostenible.org/>

HEZKUNTZA ERAKUNDEAK

UNESCO Sareak
http://portal.unesco.org/es/ev.php-URL_ID=3975&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.html

ASPnet Eskola Elkartuen sareko Proiektua
http://portal.unesco.org/education/en/ev.php-URL_ID=7366&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.htm/

CIDE Hezkuntza Ikerketa eta Dokumentazio Zentroa
<http://www.mec.es/cide/>

CNICE Hezkuntzako Informazio eta Komunikazio Zentroa Nazionala
<http://www.cnice.mecd.es/>

INECSE: Hezkuntza Sistemaren Ebaluazio Kalitateko Institutua
<http://www.ince.mec.es/>

Hezkuntza Adierazleen Estatu-Sistema

<http://www.ince.mec.es/Indicadores%20Publicos/introduccion.html>

Ingurumen Hezkuntzako loturak, baliogarriak gazteleraz mintzatzen duten ikasleekin lan egiten duten hezitzaileentzat

<http://eelink.net/pages>

Ikastetxeen arteko anaikidetza

<http://etwinning.cnice.mec.es/>

Latinoamerikako telezentroak

<http://www.tele-centros.org/comunidad/encuentros/regionalIII/mercado.htm>



ERANSKINAK

6

I. ERANSKINA. ESKOLAKO AGENDA 21 BETETZEKO KONPROMISO AKTA

Garapen Jasangarrirako Euskal Estrategia (2002-2020), ingurumen-gaiei buruzko Europar Batasunaren VI. Programa eta Nazio Batuek 2005-2015 aldia Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren hamarkadatzat hartzea direla-eta, administrazioei, hezkuntza-elkarteari eta herritarrei gomendatu eta eskatu egiten zaie garapen iraunkorra lortzeko itunak egitea eta erantzukizuna hartzea.

Deklarazio hori sinatuta, baliabide naturalak eta biodibertsitatea zaintzearen, biztanleriaren bizi-kalitatea ziurtatzearen eta herritarrak garapen iraunkorrerako gaitzearen garrantzia eta beharra onartzen dugu.

Onartzen dugu, era berean, Euskadiko gazteek eta hurrek euren hiriari eta garapen iraunkorrari buruzko gauzak esateko eta ekarpenak egiteko dituztela. Horregatik bultzatzen dugu Eskolako Agenda 21, ikasleak euren ikastetxearen eta udalerrriaren ingurumen-kalitatean eragina duten arazoetan parte hartzen, erabakiak hartzen eta inplikatzeko ohitzea helburu duen programatzat.

Jendaurrean adierazten dugu Eskolako Agenda 21 eraikitzen gogoz lan egiteko hartu dugun konpromisoa. Horrek eskatzen du ingurumenarekiko erantzukizunaren zentzua sustatzea, ingurumenarekin lotuta betebeharrak betetzea eta ingurumenaren egoera, balore demokratikoak eta gure ingurunearen iraunkortasuna arian-arian eta etengabe hobetzeraz zuzendutako neurriak hartzea.

KONPROMISOAK

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak aholkularitza didaktikoa ziurtatuko du, Ingurugela zentruen, parte hartzen duten irakasleen prestakuntzaren eta ikasmaterialeen eskaintzaren bidez. Diru-laguntzak eskainiko ditu ikastetxeentzako urteroko deialdien bitartez eta udalekin edo mankomunitateekin sinatu beharreko hitzarmenen bidez.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza lehentasunezko programatzat tratatzea bermatuko du. Horretarako, irakasleen laneko esparrua eta ordutegia Eskola Agenda 21 programaren koordinazio- eta berrikuntza-eskakizunetara egokitzeko bidea emango du.

Udalek eta mankomunitateek Tokiko Agenda 21 programaren zatitzat hartuko dute Eskola Agenda 21. Eskolako partaidetza-foro bat ezarri eta sustatuko dute, hiri-ingurumena aztertzeke eta ikastetxeen proposamenak jasotzeko. Kanpoko aholkularitza baten edo laguntza-enpresa baten bitartez proposamenei erantzun eta ikastetxeei lagunduko diete.

Ikastetxeek Eskolako Agenda 21 programaren proiektua lantzeko eta, curriculum- eta hezkuntza-proiektuetan barne hartuta, haren filosofia eta metodologiari jarraituz abiarazteko konpromisoa hartuko dute. Ikastetxeko ingurumen-batzordeak eratu eta proiektuaren arduradunak izendatuko dituzte. Garapen-prozesua bultzatu eta lortutako emaitzak ebaluatuko dituzte. Gainera, urteko emaitzak eskola- eta udal-elkarteari jakinaraziko dizkiote.

Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alde

Ikastetxeko zuzendaria

Alkatea

Ingurumen eta Lurralde
Antolamendua Sailburua

Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa Sailburua

II. ERANSKINA. GARAPEN IRAUNKORREKO HEZKUNTZA PROGRAMAK MUNDUAN

2.1. GARAPEN IRAUNKORREKIKO KONPROMISOA: PROGRAMA 21

1992. urtea ezinbesteko erreferentzia bihurtu da, hain ezagunak izan ziren Rio de Janeiroko *Foro Global* eta *Lurraren Gailurrarengatik*. Azken horretan egindako *Nazio Batuen Ingurumenerako eta Garapenerako Bazarrean*, garapen iraunkorra kontzeptua funtsezko elementua zela planetako ingurumenaren etorkizuna definitzeko adierazi zen. Goi-bilera hartan, 179 Estatuak gaur egungo ingurumen-estrategiak abian jartzeko garrantzi handiko zenbait dokumentu onartu zituzten. Besteak beste, *Agenda 21* programa, denborarekin ingurumen-egitasmoen erreferentzia nagusi bihurtu dena.

Egitasmoa gauzatzea ez da erreza izan. Europa, azken urteotan, nazioarteko konpromisoen bila ibili da, eta arlo askotan haien bultzatzailea izan da. Horrela sortu ziren *Ingurumen Ekintzako V. Programa* 1992an, *Aalborg-eko Gutuna (Europako Hirien Iraunkortasunerantzako Gutuna)* 1994an, Tokiko Agenda 21 (TA21) garatzeko konpromisoa, eta hainbat itun eta goi-bilera, azkenean, 2001ean, *Ingurumen Ekintzako VI. Programa* eta *EBrako Garapen Iraunkorrerako Estrategia* plazaratu arte.

2002. urtean Johannesburg-eko Gailurra etorri zen, Programa 21 ez zela ondo garatu esateko baina, aldi berean, erreminta guztiz baliagarria zela adierazteko. Gailur horretan tokiko agintariek eta UNDP-k (*Nazio Batuetako Garapenerako Programa*), UNEP-k (*Nazio Batuetako Ingurumen Programa*), UN-Habitat-ek (*Nazio Batuak eta Habitat Programa*) eta WHO-k (*Osasunaren Munduko Erakundea*) TA 21 bultzatzeko konprometitatu ziren Tokiko Ekimena Agenda 21 fase berriekin. Hori guztia Rioko Konbentzioak, *Habitat*-en gai zerrenda eta *Milurteko Adierazpena* eragitearekin batera.

Hiri eta herrien konpromisoa garapen iraunkorrerakiko gero eta handiagoa da mundu mailan. Gero eta udalerrigehiago daude beren TA21 garatzeko bidean.

2.2. HEZKUNTZAREN BIDEA: INGURUMEN HEZKUNTZAKO (IH) PROGRAMAK

Ingurumenaren arazoei buruzko kezkarekin ingurumen-hezkuntza aspaldi agertu zen.

Giza Inguruneari buruzko Nazio Elkartuen Konferentziak (Stockholm, 1972) egin zuen ingurumen-ekuntzaren beharrei buruzko lehen pronuntziamentua. Konferentzia horretan gure garaiko ingurumen-arazoei eta horien arazoiei buruzko hausnarketa sakona egin zen. Aipaturiko konferentzia horretako printzipioetako batean honako hau ezarri zen: «nahitaezkoa da ingurumenari buruzko hezkuntza eskaintzea, ingurumena-osotasun gisa hartuz- babestu eta hobetzeko erantzukizuna garatzeko».

1992tik aurrera, foro eta autore askok bultzatuta, ingurumen-hezkuntza garapen iraunkorrerako IH bilakatzen joan da.

Hasiera batean, IHko programak, esperientziak eta jarduerak garatu ziren bai hezkuntza formalean, bai ez-formalean. Lehenengo esperientzietako ikuspegi fisiko-biologiko batetik ondorengo ingurumenaren aldeko ekimenera pasatu zen.

Horrela ibilaldi ekologikoak, borda-eskolak, hainbat arazori buruzko sentsibilizazio kanpainak ibai, kostalde, baso... garbiketak, landaketak, kontsumo tailerrak eta abar garatzen dira.

Beste alde batetik, ofizialki, estatu askotan IHk hainbat lege, liburu zuri edota hezkuntza-programatan berriazko lekua topatzen du. Adibidez, Latinoamerikan ia estatu guztiek beren IH Legea dute, gainera, dagozkien ministroek gai hori koordinatzeko eta garatzeko bilera sistematizatuak dituzte.

Europar mende honen hasierarako estatu gehienek, era askotako neurri eta estrategia erabilia, IH zeukaten beren hezkuntza programetan.

Hainbat erakunde IHko proiektuak ari dira bultzatzen nazioarte mailan, bereziki, garapen bidean dauden herrialdeetan, hala nola Nazio Batuen hainbat erakunde (Unesco, UNEP, UNDP, Nazio Batuen Munduko Ingurumenerako Funtsa, Tokiko Agha 21 lotutako Nazio Batuen Habitat programa...), WWF (Naturarako Mundu Funtsa), FEE (IHko Funtsa), SPW (Ikasleen Mundu Elkarte)...

2.3. ESKOLEN INGURUMEN KUDEAKETARAKO SISTEMAK: EKOAUDITORIAK, EKOLOGIA ESKOLARA, EKO-ESKOLAK...

IH garatu ahala hezkuntza formalean kezka bat sortzen da: IHko proiektuak puntualak dira eta egunerokotasunarekin oso harreman eskasa daukate. Hor kontraesan batzuk sortzen dira: eskolak jarrera eta portaera batzuk aldarrikatzen ditu, baina eskolako eguneroko funtzionamendu eta kudeaketan kontrako jarrerak eta portaerak egoten dira. Horri IHren xede aldaketa gehitu behar zaio: ez da jarreretan geratu behar, baizik eta ekimenerako prestatu eta gauzatu. Kezka horietatik, IHko proiektu puntual batzuetatik eskola beraren ingurumenera kudeaketa arduratsua bilatzera pasatzen da.

Horrela, *eskola-ekoauditoria* hasi zen. Programa horrekin kontsumitzeko eta baliabideak erabiltzeko jarduera pertsonalek dituzten ondorioak agerian jartzen ziren, ardura eta erantzukizun pertsonal zentzuduna areagotzen zen, eta ikastetxearen ingurumen kalitateari ekiten zitzaion. Orokorrean, proiektu honetan irakasleak, ikasleak eta gurasoek parte hartzen dute.

Horrela izanda, estatu mailan, 90eko hamarkadaren hasieran hasi ziren Balear Uharterako lehenengo eskolen auditoriak, eta *Viure l'escola* eta *Ecocentre* programa; geroxeago, nazioarteko *Fondation for Environmental Education* (FEE) erakundearen *Eco-schools* programa, Euskadiko *Eskola ekologikoak*, Andaluziako *Ecoescuelas* (ALDEA programa barruan), Madrilgo *Ecoauditorias escolares*, Kataluniako *Escoles verdes*, Extremadurako *Ecocentros*...

Zalantza barik, munduan duen hedapenagatik, 1995etik FEE nazioarteko erakundeak bultzatzen duen *Eco-schools* programak aipamen berezia eskatzen du. *Europako Komunitatearen Batzordeak* enpresentzat asmatu zuen 1836/93 EMAS-i (*Eco-Management and Audit Scheme*) buruzko araudian oinarrituta dago. Nazioarte mailako kanpaina bat da non IH bultzatu nahi da, ikastetxea osotasunean inplikatur: irakasleak, ikasleak, zuzendaritza, langile ez irakasleak eta gurasoak. Oinarritzko zazpi puntu ditu:

1. Eco-School Batzordea.
2. Diagnostikoa.
3. Ekintza-plana.
4. Jarraipena eta ebaluazioa.
5. Curriculumeko lan-gaiak: ura, energia eta hondakin solidoak.
6. Informazioa, komunikazioa (hezkuntza komunitatea eta tokikoa) eta hausnarketa.
7. Eko-kodea.

Eco-school Batzordeak egiten diren jarduerak planifikatu, antolatu eta ebaluatzen ditu.

Programak hiru urteko iraupena dauka eta ostean ebaluazio bat egiten da. Horretaz FEE eta berari lotuta dauden beste erakunde batzuk arduratzen dira. Hori gaituz gero, egindako lanaren errekonozimendu gisa, *Bandera Berdea* lortzen dute hurrengo hiru urteetarako.

2005-06 ikasturtean 15.000 ikastetxe ari dira garatzen Eco-schools programa; 5.000 baino gehiago Bandera Berdearekin; 30 estatu; 233.000 irakasletik gora; 4.500.000 ikasle inguru. Guztira, urte hauetan 70 milioi ikasle baino gehiagok hartu dute parte programa horretan. Web orrialde bat daukate sareko berriak pasatzeko, informazioa zabaltzeko eta esperientziak trukatzeko.

Era askotako esperientzia ugari topatzen dira Eco-schools programa horretan, adibidez:

- Ozeaniako Zeelanda Berrian programa hasita dago.
- Hego Amerikan, Txilen, 20 ikastetxeko 4.000 ikasle garatzen dute programa. Brasilen ere garatzen hasi da.
- Hegoafrikako 700 eskolako 350.000 ikasle baino gehiago; Kenyan 100 bat eskolak Bandera Berdea dute eta Marokon ere programa hasita dago.
- Asian, bakarrik Bangladesh-en garatzen da Eco-schools programa.
- Europako 30 estatutan garatzen ari da programa. EAetik hurbilenean artean:
 - Irlandan *Green-schools* programa: 2.000 ikastetxe baino gehiago dira programa garatzen ari direnak, 651 Bandera Berdearekin (lurreko %49). Programan landutakoa azterketen %60a heltzen da.
 - Galesen *Eco-schools* programa: 1.000 eskolako 350.000 ikasletik gora ari dira programa garatzen.
 - Ingalaterran 1.300 ikastetxetako 1.350.000 ikasle baino gehiago.
 - Eskoziako 2.000 ikastetxetako 550.000 ikasle.
 - Alemaniako ia 400 ikastetxetako 250.000 ikasle inguru.
 - Frantzia apenas dago garatuta eta bakarrik 7 ikastetxek daukate Bandera Berdea.
 - Italian 80 ikastetxetako 18.000 ikasle inguru.
 - Portugalen 400 bat ikastetxetako 120.000 ikasle.
- Estatuan 300 bat ikastetxetatik, gutxi gorabehera, 87.000 ikasle eta 8.500 irakasle daude sartuta. Autonomia Erkidegoetan, 2002-03 ikasturtean, horrelako mapa zegoen: Andaluzian arrakasta handia dauka (129 ikastetxe), Madrilen (22), Galizian (8), Valentzian (6), Nafarroan (3), Kanariar Uhartetan (3), Murtzian (2), Gaztela eta Leonen (2),Gaztela-Mantxan (1).
- EAEn 21 ikastetxe ari dira garatzen programa hau, eta 13k Bandera Berdea daukate.

Eco-schools programan oinarrituta beste programa eta esperientzia interesgarri batzuk sortu dira, hala nola:

- *Poloniako Green books* (Liburu berdeak) programa¹ Greenway elkarteak bultzatuta. Ikasleak, irakasleak eta gurasoak daude sartuta. Eko-taldeak antolatzen dira. Jarraitzen dituzten faseak hauek dira: motibazioa eta informazioa, talde lana (eko-taldeak), diagnostika (landareak, animaliak, airea, ura, luraren azalera) ikastetxean eta udalerrian, eta ikasgaiak (Lessons). Ikasleen lanak Liburu Berde horietan plazaratzen dira, landare, animalia, ura eta hondakinei buruzko informazioak eta txostenak egiteko lekua izanik.

¹ <http://www.eko.pb.bialystok.pl/pliki/recycling2.pdf>

- *Belgikako Ecoles pour demain*² (Etorbizunerako eskolak) 10-18 urteko ikasleei zuzenduta daude, eta Ingurumen Sailak bultzatuta 1995tik aurrera. Betetzen diren faseak hauek dira: 1) Auditoria osoa, tematikoa, jarraipeneko edo erregelatua. 2) Jarduerak: kontsumoa eta ingurumen jolasak, inprenta ekologikoa, zaborra eta eko-kontsumoa... 300 ikastetxe baino gehiago ari dira programa garatzen eta ondo baloratuta diren esperientziek *Ecoles pour demain* labela lortzen dute; orain arte 187 ikastetxek eskuratu dute labela.
- Aipatzekoa da *Baretns Itsasoa Proiektua*³ non elkartzen dira Errusia eta Norvegiako ikastetxeetako 12-15 urteko ikasleak ekoeskolen antzeko proiektua garatzeko. Haien artean Gazteen Konferentzia osatzen dute ikasturtero behin.

Eta estatu mailan:

- *Extremadurako Ecocentros* programa⁴, hauexek bultzatuta: Autonomia Erkidegoko Ingurumen eta Hezkuntza Sailak eta Extremadurako Unibertsitateak, Unibertsitateko Ingurumen Bulegoren bitartez (OUMA). Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan garatzen da. Ingurumen Batzordearen osaketa hau da: zuzendaria, irakasleak, ikasleak, gurasoak, administrazioko pertsonalagoa eta udalerriko ordezkaria. Talde sustatzaile bat osatzen da klaustro barruan irakasle interesatuekin Ingurumen Batzordearekiko koordinazioa eta Hezkuntza Proiektua (HP) eta Ikastetxeko Kurrikulum Proiektuaren (IKP) errebisioa egiteko. Programaren faseak dira:

1. Hasierako proposamena.
2. Ingurumen Batzordea eta Talde Sustatzailea.
3. Ikastetxearen diagnosis lau gai hauei buruz: energia, ura, hondakinak, garraioa eta ingurumena. Diagnosis urtero bost gaien inguruan egiten da, baina ikasturte bakoitzean bi lantzen dira bakarrik.
4. Lan egiteko gaiaren aukeraketa.
5. Konpromisoak eta ekintza-plana.
6. Ebaluazio eta jarraipen plana.
7. Errekonozimendua Extremadurako Juntaren aldetik, bi urterako berariazko Bandera Berdea emanda.

Zentro horiek Eko-zentroen Sarea osatzen dute eta oraingoz 36 ikastetxek osatzen dute sarea.

- *Errioxako Ecoauditorias* programa⁵, Erkidegoko Ingurumen eta Hezkuntza Sailak bultzatuta eta LHn eta DBHn garatzeko. Bi urteko programa da eta Ekoauditoria agiria lortu dezakete. 28 ikastetxetako irakasleek garatzen dute. Jarraitzen diren urratsak hauexek dira:

1. Prestakuntza, antolakuntza eta programazioa.
2. Sentsibilizazio jarduerak.
3. Diagnostikoa (ekoauditoria): hondakinak, ura eta energia.
4. Informazioa.
5. Jarduera osagarriak.
6. Hobekuntzarako neurriak.
7. Emaizten dibulgazioa.
8. Ekintza planaren jarraipena.

- *Balearr Uharteko Centres Ecoambientals* programa⁶, HHn, LHn eta DBHn garatzeko. Erkidego horretako Hezkuntza eta Ingurumen Sailek bultzatuta, ikastetxeetan IH bultzatzeko eta curriculumean eta kudeaketan ingurumen dimentsioa sartzeko helburua du; aholkularitza didaktikoa eta teknikoak, baliabideak, dinamizatzaileak eta abar eskaintzen dira. Bi urterako *Centre Ecoambiental*

² <http://www.ecolespourdemain.be/>

³ http://www.svanhovd.no/la21/index_la21.html

⁴ <http://agralia.juntaex.es/medioamb/medioamb/ecocentros/eco01.htm>

⁵ http://www.larioja.org/ma/educacion_ambiental/centros_educativos/

⁶ <http://www.weib.caib.es/Programes/ambientalitzacio/presentacio.htm>

agiria ematen zaie. 2005-06 ikasturtean 65 ikastetxek jarraitzen dute aurreko programekin eta beste 32 hasi dira. Bigarren proiekturako, koordinatzaileak *Iniciació a l'ambientalització de centres escolars* ikastaroa burutu behar du 2,5 kredituak lortuz eta programaren garapen ona baloratu eta gero ikastetxeetako irakasleek 3 kreditu lortzen dituzte. Ingurumen Batzordean ikasleak eta irakasleak daude. Faseak hauexek dira:

1. Talde sustatzailea (ikasleak eta irakasleak).
2. Proiektua:
 - a) Antolakuntzarako azpiegitura: koordinatzailea, batzordeak, ZT... (talde sustatzailea batzorde bihurtzen da).
 - b) Programazio didaktikoa.
 - c) Ingurumen-kudeaketa plana.
3. Zuzendaritza taldeari proiektua aurkeztu.
4. Klaustroan proiektuaren aurkezpena.
5. Proiektua abian jarri.

Aurrera begira, TA21ekin egon litezkeen loturak bilatzen ari dira.

Eta abar eta abar. Egia esan, hemen guztien berri ematea oso lan konplexua da.

2.4. HERRIAN PARTE HARTZEKO TRESNA: ESKOLAKO AGENDA 21

Eskolak, garapen iraunkorrerako konpromisoa garatzeko eta ekimena gauzatzeko, ikastetxearen ingurumena izan behar du kontuan: bai ingurumen hurbila, bai udalerrikoa, bai eskualdekoa... planeta mailako pentsamendua garatuz.

Horrela, udalerrian garapen iraunkorra izateko udaletxe batzuek duten asmoa eta eskola batzuek kudeaketa iraunkorra izateko duten asmoa batzen dira. Sinergia hori aprobetxatzeko EA21 programa agertzen da non eskolak, bere eremuan, garapen iraunkorraren alde lan egiteaz gain, bere ingurumenarekiko eta udalerrirako konpromisoa hartzen duen, tokiko ekimenekin eta TA21 programarekin bat eginda.

Eskolaren hezkuntza komunitatearen parte hartzeak, eskolatik hasi eta udalerrira arteko dimentsioa hartzen du.

Hori dela eta, esan daiteke, azkenik eskolak IH eta garapen iraunkorraren alde egiten duela lan eta Rion adostutako Programa 21ekin bat egin duela.

Gainera, EA21ek bi iturritatik edaten du: alde batetik, eskola munduak IH lantzean garapen iraunkorrerako ateratzen duen etekinetik; eta bestetik, erakundeek bere arduraren nagusien hedapena eta ko-arduratik (normalean, erakunde horiek udaletxeak dira; baina esperientzia askotan Erkidegoko edo Erregioko Gobernuak, Lurraldetako erakundeak eta bestelako kolektiboak ere izaten dira bultzatzaile). Hori dela eta, EA21ek, bi iturri horiek batuta, orain gutxi arte bide independentea jarraitzen zuten hezkuntza formala (intentzioskoa eta berariazkoa) zein ez-formala (intentzioskoa, baina ez berariazkoa) batzen ditu programa komun batean eta hainbat dimentsiotan: eskolaren curriculum, kudeaketa iraunkorra, herritarren parte-hartzea eta ekimena...

Planetan EA21 programa gaztea da, baina progresio eta proiektio handiz ari da hazten.

Hurrengo zerrendan agertzen dira TA21ekin lotura duten esperientziak edota iraunkortasunari begira udalerrirekin nolabaiteko konpromisoa duten esperientziak (EA21 izenez edo beste izen batez); EA21 izenarekin lotura hori ez daukatenak, aldiz, ez dira agertzen.

Afrikan, Asian⁷ eta Ozeanian TA21i lotutako hainbat proiektu garatzen ari dira bertako eskolak, horietariko asko *eco-school* programarekin erlazionatuta, baina tokiko ekimenak garatuz:

- *Marokoko* TA21 Programa Nazionala ari dira egiten Marrakech Tensift Al Haouz erregioan eta hiri hauetan: Essaouira, Marrakech, Meknes, Añadir eta Benhaddou.
- *Senegalen* TA21 Programa Nazionala ezarrita dago, eta besteak beste Dakar, St Louis, Guediawaye, Tivaouane, Matam eta Louga hirietan garatzen ari da.
- *Togoko* Danyi Ndigbe udalerrian, non *Ingurumena Babesteko Gazteen Elkarte*a/Association des Jeunes pour la Protection de l'Environnement (AJPE) sortu den⁸.
- *Kenyako* Nakuru hirian.
- *Hegoafrikako* Durban, KwaZulu-Natal, Buffalo City, Tshwane/Pretoria...
- *Zimbaweko* Bulawayo, Chegutu, Chinhoyi...
- Ghana, Malawi, Mauritania, Namibia, Nigeria, Tanzania eta Uganda nazioetan ere bai.
- *Japonian* *Iwate-ko Ingurumen Sarea Proiektua*/Iwate Environment Network Project garatzen ari da, eta eskolak, udalak, ikerlariak, unibertsitateak eta GKE batzuek parte hartzen dute sare horretan tokiko arazoak konpontzeko TA21 barruan.
- *India, Indonesia, Korea, Nepal, Filipinak, Sri Lanka* eta *Thailandia* dira Asiako Hego-ekialdeko estatuak, non 30 hiritan baino gehiagotan horrelako programak garatzen diren.
- *Vietnameko* Vinh hirian.
- *Australian* eta *Zeelanda Berria*n 100 bat udalerritan ari dira tokiko hezkuntza ekimenak garatzen.

Ipar Amerikan IH programa batzuk garatzen dira:

- *Ameriketako Estatu Batuetan*, Tokiko Agenda *Communities 21* deitzen da, 24 estatuetako hiri askotan egiten ari da, gehien bat, California estatuan.
- *Kanadan* 20 hiri daude konprometituta *Local Action 21*ekin, Tokiko Agenda 21 bera gainditu nahian.

Latinoamerikan, Brasil, Kolonbia, Ekuador, Peru, Uruguai, Paraguai, Venezuela, Bolivia, Txile, Costa Rica, Guatemala, El Salvador, Kuba eta abar aspaldidanik IHrekin konprometituta dauden herrialdeak dira. EA21 programaren adibide batzuk aurkitu ditugu.

- *Mexikoko Proyecto Escuelas Verdes-La Agenda 21 Escolar*⁹ Guanajuatoko Ecologia Institutuak bultzatuta dago. Oinarrizko erreferentziatzat Programa 21eko 36 kapituluak (hezkuntzari dagokiona) eta *Lurraren Gutuna* hartzen dute. Urtero 24 ikastetxek hartzen dute parte, guztira, orain arte, 72 ikastetxek eta 25.000 ikasle garatu dute programa. Proiektuak ezinbestekotzat jotzen du irakasle eta gurasoen parte-hartzea, ez ezinbestekoa, baina bai komenigarria ikasleena, Hezkuntza Saileko ordezkariena eta udalerriko ordezkariena. Osatzen dituzten pausuak hauexek dira:

1. Ikastetxe hautatuei gonbitea egiten zaie. Beharrezkoa da klaustroaren %80ren onarpena (klaustroaren %20ren parte hartze zuzenarekin), zuzendaritza eta IHko zuzendariaren arteko konpromisoaren sinadura, eta Ingurumen Batzordearen osaketa.

⁷ <http://www.unchs.org/programmes/agenda21/default.asp>

⁸ <http://www.cooperationtogo.net/info/112014.html>

⁹ <http://ambiental.uaslp.mx/foroslp/>

2. Prozesua: diagnosis-koherio plana-ekimena-memoria-ebaluazioa eta *Escuela Verde* labelaren izendapena bi urterako.
3. Jarraipena: ekintza-plana (bi urterako) eta Labelaren berritzea.

Ezinbestekoa da ikastetxeek tokiko komuniteterako hobekuntza proiektu bat garatzea. Mexiko eta nazioarte mailan, Eskola Berde guztien artean sare bat osatu nahi da esperientzien trukaketarako.

— *Kuban*¹⁰ *Mision Ambiental* programa garatzen ari da *Agenda 21 Infantil* garatzeko helburuarekin. Hamaika eta hogeita urte bitarteko ikasleei zuzenduta. Hezkuntza-ekimenak eta parte hartzea biltzen dira programa horretan, non sartzen baitira tokiko erakundeak, gobernukoak eta GKEak. Programa horrek Umeentzako eta Gazteentzako Foro Nazionala egiten du.

— *Ekuadoren Proyecto Escuelas Verdes 2002* urtean sortzen da. Proiektua hezkuntza sistemara IHko tresna baliotsuak eskaintzera dator, bai eskolan, bai udalerritan erabiltzeko. Udalerrirako bakoitzeko *Unidades de Gestión Ambiental* delakoek koordinatzen dute parte-hartzaileen lana.

— *Perun* dagoen programa *Certificación Ambiental Escolar*¹¹ da. Ikastetxeek eskaera egiten dute eta, onartuta izanez gero, bi urteko programa garatzen dute eta ebaluazioa positiboa bada ikastetxea *Club de Colegios Sostenibles* erakunde barruan sartzen dira. Aurkezten dituzten ekintzetatik bat gutxienez herrira zuzenduta egon behar da. (Behintzat ekintza bat herrira zuzenduta egon behar den baldintzarekin.) Eta ondoko faseak betetzen dituzte:

1. Eskaera.
2. Trebakuntza.
3. Diagnostikoa.
4. Ingurumenarekiko, komunitatearekiko eta curriculumarekiko ekintza-plana.
5. SIGAEren (Hezkuntza Erakundearen Ingurumen Kudeaketa Sistema) aplikazioa.
6. Kudeaketa txostena aurkeztu.
7. CRaren (Erregioko Batzordea) Ebaluazioa.
8. Nazionalako Batzordeari txostena bidaltzea.
9. Ebaluazioa.
10. Ziurtagiria.

Ikasturte honetarako 110 ikastetxe baino gehiago daude sartuta programa honetan. Bereziki EA21 programa garatzeko *Centro de Altos estudios para el Desarrollo Sostenible* (CAEDS) erakundeak egiten du lan.

Orokorrean, parte-hartzea errazteko *Comité Ambiental Juvenil* (CAJU) martxan jarri da.

Ziurtagiria lortu duten ikastetxeek harremanak dituzte antzeko ziurtagiria lortu duten Txileko ikastetxeekin.

— *Txilen* Sistema Nacional de Certificación Ambiental de Establecimientos Educativos-SNCAE¹² (Eskola Erakundeko Ingurumen Ziurtagiria Sistema Nazionala) daukate eta horren bitartez ikastetxeek «Certificación Ambiental de Establecimientos Escolares» lor dezakete. Programa horren atzean Hezkuntza Ministerioa, Ingurumen Batzorde Nazionala (CONAMA), Baso Bilkura Nazionala (CONAF), UNESCO, Txileko Udalerrien Elkarte (ACHM), eta Garapen Iraunkorrerako Kontseilua (CDS) daude. Programaren faseak hauexek dira:

1. SNCAEri eskaera.
2. Ingurumen Batzordea.
3. CRCari (Ingurumen Ziurtagirirako Erregioko Batzordea) txostena eta konpromisoa eskatu.
4. Baiezkoa bada, Ingurumen Diagnostiko Parte hartzailea burutzen da, hiru arlo hauetan: Pedagogikoa, Eskola Kudeaketa eta Ingurumenarekiko Harremanak (udalerrirako ekimenak).

2005-06 ikasturte honetan, 100 ikastetxe baino gehiago daude programan murgilduta.

¹⁰ <http://www.cuba.cu/ciencia/CIGEA/proyedu.htm>

¹¹ http://www.conam.gob.pe/documentos/EAMBIENTAL/certificacion/Sistema_certificacion.doc

¹² <http://www.conama.cl/certificacion/1142/propertyvalue-6120.html>

— *Argentinan Sistema de Certificación Ambiental de Establecimientos Educativos*¹³ (Eskola Erakundeko Ingurumen Ziurtagiri Sistema) programa sustatzen ari da, baita EA21 programa ere Euskal Autonomia Erkidegoko laguntzarekin. Lehenengo programak Ingurumen Kudeaketa Sistema hedatu nahi du, arlo historikoa, kulturala eta lurraldekoa bereganatuta; zeregin horretan eskola sartzen da aktore gisa, bere autonomia, elkarterako ahalmena eta ikusmira integratzailea sendotzeko eta herrian ingurumena kudeatzeko. Programa garatzen duten eskolek Ekologia Ministerioak ematen duen Bandera Berdea jasotzen dute, bi urterako.

Programa hau hiru ardatzen inguruan garatzen da: ardatz pedagogikoa (curriculum); eskola-kudeaketa ardatza (ingurumen kudeaketa eskolako maila guztietan garatuz; eta irakasle, ikasle, familiak eta langile ez irakasleak kontuan hartuz beren tokiko errealitatearekiko ardura bere gain hartzeko); eta ingurumenarekiko harremanak (naturala, kulturala, gizakiok egina...) ingurumena bera hobetzeko ekintza konkretu batzuen bitartez.

EA21 programa Nazioko Ingurumen eta Garapen Iraunkorrerako Idazkaritza eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak bultzatzen dute, bertako Euskal-Etxe batzuekin. 2005. urtean estatuko 12 udalerritan (Colonia Benitez, La Plata, Buenos Aires...) esperientzia pilotua hasi zen, gero estatu osora hedatzeko asmotan.

— *Brasilen Hezkuntza Ministerioko IH Koordinazio Orokorra* (COEA) erakundeak, bere lerro estrategikoen artean hauxe dauka: estatu guztietan, ingurumena eta bizitza kalitatea udalerrietan eta eskoletan gauzatu eta EA21 garatu. Era horretara, proiektu asko garatzen ari dira une honetan EA21en antzera Gobernuak berak edota GKEk eraginda. Gobernuak bultzatuta, besteak beste:

- *Vamos a cuidar do Brasil com as Escolas*¹⁴ (Brasil zaintzera goaz eskolekin) programa: 16.000 ikastetxe inguru eta 6 milioi baino pertsona gehiago mobilizatzen dituena. Hezkuntza Saileko *Núcleo de Educação Ambiental-NEA* (IHko Nukleoa) bultzatzen du. Betetzen dituzten pausuak dira:

1. Sentsibilizazioa.
2. Eskola komunitatearen trebakuntza eta prestakuntza.
3. Tokiko giza ingurumenaren diagnostikoa (eskolakoa eta ingurukoa).
4. Ekintza-plana bi arazo konpontzeko.
5. Ebaluazioa.
6. Feedback.
7. Parte hartzeko bideak zabaldu (Tokiko Foroak, Kontseiluak, Gazte Foroak...).

- *COMVida* (Ingurumen Batzordea eta Bizitza) aurreko programaren azpi-programa bat da. 11-15 urteko ikasleei zuzenduta dago. Eskolek Eskolako Ingurumen eta bizitza Kalitatearen Batzordea osatu behar dute (COMVida Batzordea, alegia) eta hauxe da prozesua:

1. Antolatu eta informatu.
2. *Bizikidetzarako akordioa*: antolakuntza, parte hartzaileak, helburuak...
3. Ekintza plana.
4. Etorkizunerako bulegoa edo agenda:
 - a) Ametsen zuhaitza.
 - b) Bidearen harriak.
 - c) Egunkarien horma-irudia: iraganera eta etorkizunera bidaia.

5. COM-Vida ekimenerako.
6. Lagunak eta laguntza. Sareak.

EA21 eraikitzea dute helburu nagusi; berriazko helburua, berriz, IH eskoletan sartzeta da; *Ingurumena Eskolan* Konferentzia antolatu eta esperientzien trukaketa bultzatu.

Egun, programa horretan, 11.000 ikaslek baino gehiagok parte hartzen dute eta eskolen arteko Gazte Foroak antolatzen dira.

¹³ <http://www.misiones.gov.ar/ecologia/ReservasPrivadas/RinconNazari3d.htm>

¹⁴ www.mec.gov.br/se/educacaoambiental/pdf/cuidar.pdf

EA21 *Europan* hasten ari den programa da eta hona hemen adibide batzuk:

- *Moldaviako*¹⁵ esperientzia bitxia da eta oso hedatua Interneten. Aurten, 4.500 ikasle, 300 mintegi eta 15 udalerritan (TA21ekin) lan-taldeak lan egiten ari dira. Ikasleen lanak *Green books*-etan (Liburu Berdea) agertzen dira, eta landare, animalia, ura eta hondakinei buruzko informazioak eta txostenak dira.
- *Alemanian Agenda 21 in der Schule*¹⁶ garatzen ari da 550 ikastetxe baino gehiagotan, TA21 inplementatzen ari diren 47 udalerritan. Programa Hezkuntza eta Ingurumen Ministerioaren laguntzarekin garatzen da. Ikastetxeek *Etorkizunerako eskola* ziurtagiria lortzen dute programa bukatzean. Daukaten eskualdeko web gunetan zentroen erreferentziak eta esperientziak agertzen dira (adibidez: www.learnline.de/angebote/agenda21/schule/index.htm, www.learn-line.nrw.de/angebote/agenda21, [www.agenda21schulen.nrw.de/...](http://www.agenda21schulen.nrw.de/)). Esperientzia bitxi bat dago, *EA21 Kafea*, eskolaz kanpokoa, bereziki TA21en ikasleen parte-hartzea bultzatzeko egina.
- *Italiako Agenda 21 Scuola*¹⁷ ia erregio guztietan garatuta dago. 1999-2000 ikasturtean hasi zen lurraldeetako erakundea, eta *Informazione de Educazione Ambientale-INFEMA* erakundearen laguntzarekin. Italiako ikastetxeek honelako antolakuntza eraikitzen dute: a) Talde sustatzailea (irakasle eta ikasle batzuk); b) EA21 foroa (irakasle, ikasle, gurasoak eta ez irakasleak); c) Lan-talde tematikoak (energia, ura, zarama...); d) Eskolen arteko foroa (eremu guztietako ordezkariekin); e) Foro bakoitzean agertzen dira: dinamizatzailea, dinamizatzailearen laguntzailea eta komunikatzailea. Ingurumen kudeaketa sistema (EMAS antzekoa) garatzea proposatzen da kontuan hartuta ondoko urrats hauek:
 1. Ingurumen eskolako politika definitua.
 2. Aurre-diagnostikoa.
 3. Ingurumen programa: helburuak.
 4. Ingurumen kudeaketa sistema: prozedurak, jarraipena eta ardurak.
 5. Ekoauditoria (noizbehinkako ebaluazioa).
 6. Ekintza-plana eta azpi-programa eraginkorrak.
 7. Ekimena.
 8. Ebaluazioa. Komunikazioa prozesu osoan izan behar da.

Programak ebaluatzeko Europako Ingurumen Agentziak aldarrikatzen dituen adierazleak erabiltzea proposatzen da: Presioa-Egoera-Erantzuna (PEE). *Presioa* gizakiak bere jardueraz sortzen duen efektua izanda (kontsumoa, hondakinak, kutsadura...); *egoera* ingurumenaren kalitatea (airea, ura, lurzorua...); eta *erantzuna* ematen diren ekimenen efikazia (TA21etik loturak, egindako jarduerak, herrian beste ikastetxeekin egindako ekimenak...).

Pentsatzen ari dira eskola mailako ingurumen-kudeaketa sistemaren ziurtagiriren bat emango ote duten.

EA21 IHko fruitutzat jotzen dute. Programa honek aldaketa imajinatzea eta proiektatzea bultzatzen du hiru esparrutan (eskolaren kudeaketan, curriculumean eta metodologian), baita hezkuntza komunitatearen eta lurraldearen arteko harreman-dinamikaren aldaketa ere. Filosofikoki hezkuntza paradigma eraikitzailearen alde aurkezten da¹⁸.

Irakasleen prestakuntzarako *Laboratorio di formazione* bat egin dute Eskola Agenda 21 ikasgeletan esperimendatzeko.

- Erdialdeko eta Ekialdeko *European Greenway* elkarteak (*Central and East European Net Work of Environmental nGOs*-Erdialdeko eta Ekialdeko Europako Ingurumen-Gobernuz Kanpoko Erakundeen Sarea) bultzatzen du. Adibide bat *Poloniako Agenda 21 na szkola*¹⁹ egitasmoan aurkitzen dugu, Greenway-k bultzatuta eta Ingurumena Babesteko Funts Nazionalak laguntza ekonomikoa jartzen

¹⁵ www.ecissurf.org/files/localgov/Petrusevschi_Tools_LDev_Moldova.ppt

¹⁶ <http://www.agenda21schulen.nrw.de/>

¹⁷ <http://www.regione.emilia-romagna.it/infea>

¹⁸ Bussi, F. (2003): «Trace di Agenda 21 a scuola». Comune di Padova.

¹⁹ <http://www.eko.pb.bialystok.pl/pliki/recycling2.pdf>

duelarik. Programaren helburua zera da: eskolaren ingurua hartu (auzoa, herria edo hirira), ingurumen diagnostikoa egin eta arriskuak aurkitu. Ikasleak, irakasleak eta gurasoak daude sartuta. Ikastetxetan, ikasleekin eta irakasleen gain-begiradarekin, Eko-taldeak osatzen dira. Jarraitzen dituzten faseak hauek dira:

1. Motibazioa eta informazioa.
2. Eko-taldeek ikastetxean eta udalerrian egiten dute diagnosia (landare, animalia, aire, ur eta lurrraren azalarena).
3. Ikasgaiak: proiektuaren berariazko metodologiarekin garatuta eta ingurumenean ekimen zuzenekin osatuta.

Programa garatzeko eskolako asteko 2-4 ordu erabiltzen dira lau edo bost hiletan. Lana bukatzean ikasleek beren txostenak prestatzen dituzte: *Green books* (liburu berdeak) non landare, animalia, ura eta hondakinei buruzko informazioak agertzen diren. Txosten horiek, jakina, ikasgelako ebaluaketarako baliagarriak dira. Irakasleentzat oso gida zehatza daukate.

— *Portugalen Agenda 21 Escolar*²⁰ eta *Eco-escuela* proiektuak oso lotuta daude edo gauza bera dira. Bertan Eco-schools-en ildoak jarraitzen dute, baina inplikazio zuzena daukate ingurumen hurbilarekin. Gainera, TA21i lotuta, *EA21 Eguna* ospatzen dute. Portugalen 464 ikastetxe daude programan murgilduta eta haietariko 318 ikastetxek Bandera Berdea daukate. Jarraitzen dituzten faseak hauek dira:

1. Motibazioa: talde sustatzailea.
2. Hausnarketa.
3. Diagnosia:
 - 3.1. Ikas-educikiena eta metodologia.
 - 3.2. Ikastetxearena: giza giroa eta ingurumen-inpaktuak (hondakinak, ura, energia, garraioa, zarrata, kanpoko guneak, biodibertsitatea, eta ingurumen-kudeaketa politika).
4. Ekintza-plana: helburuak eta ekimen-proposamenak, premiak eta ekimenen deskribapena.
5. Ebaluazioa.
6. Komunikazioa.
7. Adierazleak. TA21 Forumetik²¹ EA21 programa bultzatu nahi da, sariak emanez eta Nazio Batuetako laguntza bilatuz.

— *Frantzia Experimentation d'Agenda 21 d'établissements scolaires*²² egitasmoa garatzen ari da Hezkuntza Ministerioak bultzatuta. LH, DBH, Batxilergoa, hezkuntza tekniko eta Lanbide Heziketako ikastetxeei zuzenduta dago. Orain 100 ikastetxe inguruk burutzen dute programa. Hona hemen beren helburu nagusiak: ikasleen ezagueren, jarrerren eta ideien aldaketa; ikasleen programaren gaineko autoebaluazioa; eta irakasleen programaren ebaluazioa. Era berean, eredu eta gida metodologikoak ateratzea, beste erakundeak mobilizatzea (eco-embalages, FEEE, Unicef...), estatu mailan esperientzien sare bat egitea, EA21i buruzko informazioa web batean zabaltzea, eta EA21i buruzko Europako Mediterraneo inguruko sarea osatzea da beren nahia. Ikastetxean talde pilotua, Ingurumen Batzordea, gaiko lan-taldeak eta foroa elkartzen dira eta urrats hauek garatzen dituzte:

1. Antolaketa eta funtzionamendua: egileak identifikatu, antolatu, talde tematikoak...
2. Diagnosia eta premiak identifikatu (estatu, herri edo eskola mailan), eta gai bat hartu.
3. Lan-ildoak definitu: tokiko mailan nahiz maila globalean.
4. Ekintza-plana.
5. Mobilizazioa, informazioa eta parte-hartzea (posiblea: tokiko arduradunei proposamenak egitea).
6. Ebaluazioa eta 2. ekintza planerako proposamenak, adierazle objektiboak eta emaitzetarako adierazleak.
7. Memoria. Ikastetxeen artean sari edota lehiaketa batzuk antolatzen dira.

²⁰ <http://www.futurosustentavel.org/>

²¹ «Sintrako Gutuna» (<http://www.minhaterra.pt/documentos/downloads/carta%20de%20sintra.PDF>)

²² www.comite21.org eta <http://www.eduquer-au-developpement-durable.com/>

— Baltiko itsasoaren inguruan dauden 11 estatuek (Danimarka, Estonia, Finlandia, Alemania, Islandia, Letonia, Lituania, Norvegia, Polonia, Errusia eta Suedia) *Baltic 21 for Education (Baltic 21 E)* garatzen dute. Hezkuntza formalean zein ez-formalean, 41.000.000 ikasle eta 4.000.000 irakasle inplikaturik daude. Sareko lana egiten dute, non IHko programa koordinatu handi horren atzean dagoen bakoitza bere ezaugarri bereziekin. Besteak beste, eskola asko Eco-school programan sartuta daude, bakoitza bere ezaugarrietara moldatuta:

- Suedian *The Green School Award* programa.
- Danimarkan *Green Education and Environmental Qualifications* programa.
- Alemanian 600 eskola baino gehiago Eco-schools programan daude sartuta (*Umweltschule in Europe*), eta *EA21 Bandera* ikurra lortu ahal dute.
- Lituaniar *EA21* garatzen dute.

— *Estatu mailan*, Euskal Autonomia Erkidegoarekin batera aitzindari eta erreferentzia *Bartzelonako Agenda 21 Escolar*²³ programa da. Bartzelonako mota guztietako ikastetxeei zuzenduta dago (HH, LH, DBH, Batxilergoa, Prestakuntza zikloak, Nagusientzako Hezkuntza) eta udalak bultzatuta. Dirulaguntzak bakarrik ikastetxe publikoetarako eta Hezkuntza Berezikoetarako dira. Udalak hezkuntza, parte-hartzea eta gizarte-inplikazioa garatzen dituen proiektu horretan parte hartzera animatzen ditu ikastetxeak; IHN ikastetxe askok egiten duten lanaren errekonozimendu, estimulu eta euskarri gisa; eta hiria eta eskolaren arteko loturak sendotzeko bultzatzen da programa. 2001-02 ikasturtean hasi zen esperientzia hori eta egun Bartzelonako 170 ikastetxe dabilta egitasmo horretan. Prestakuntza aldetik, Hilda Weissman-ek ateratako gidaz gain²⁴, planteatzen diren pausuak hauexek dira:

1. Lan egiteko marko komun bat (talde-proiektua).
2. Material didaktikoak eta gidak.
3. Lan egiteko proposamenak eta baliabideak.
4. IHko zentro bat.
5. Informaziorako zerbitzu iraunkor bat.
6. Hamabost egunez behingo buletin elektronikoa.
7. Ikastaroak, mintegiak, prestakuntza-tailerrak irakasleentzat, gurasoentzat, monitoreentzat...
8. Aholkularitza tekniko eta pedagogiko pertsonalizatua eta iraunkorra.
9. Lan-taldeen dinamizazioa.
10. Udalerriko baliabide teknikoak, arlo askotakoak (Parcs i Jardins, Barcelona Neta, Agència d'Energia...).
11. Prozesuaren jarraipena eta esperientzien trukaketa.

Hezkuntza komunitateari zuzenduta dago eta ikastetxe bakoitzak bere erara eratzen du. Jarraitzen dituzten faseak hauexek dira:

1. Motibazioa: sentsibilizatzeko, konpromisoak hartzeko eta antolakuntza motaren bat eraikitzeko.
2. Hausnarketa: ikastetxeak gai bera berriz aztertzeko.
3. Diagnostika:
 - a) Zer: curriculumaren edukiak.
 - b) Nola: irakaste-ikasteko estiloa.
 - c) Non: irakaste-ikaste testuingurua:
 - i. giza giroa
 - ii. eraikuntzaren arlo fisiko eta funtzionalak
 - iii. ingurumena eta ikastetxearen arteko harremanak.
4. Ekintza-plana.
5. Ebaluazioa: helburuen lorpena neurtzeko eta ekintza-plana hobetzeko. Adierazleak erabiltzen dira.

²³ <http://www.bcn.es/agenda21/a21escolar/index.htm>

²⁴ H. Weissman (2001): Guía para hacer la A21E.

Programaren zerbitzura hainbeste baliabide daude: lan-proposamenak eta berariazko baliabideak, dokumentazio-zentro bat, telefono-informazio etengabea, hamabostekari bat programaren webgunean, ikastaroak, mintegiak, lantaldeen dinamizatzaileak, euskarri teknikoa udalerriko zerbitzueterako (Parcs i Jardins, Barcelona Neta, Agència d'Energia...) eta abar.

- *Kataluniako Escola Verda* programa²⁵, Unibertsitatekoak ez diren ikastetxeei zuzenduta. Generalitateko Hezkuntza eta Ingurumen Sailek, eta Institut Catalá d'Energiak bultzatuta, IHko Kataluniako Elkartearen laguntzarekin. Konpromiso bat hartzen da: udalarekiko koordinazioa tokiko hobekuntzan. Pasa den ikasturtean 233 ikastetxe programa barruan zeuden (133 jarraipenean, 42 tutoretzan eta 58 formazioan). Ingurumen Batzordean ikasle, irakasle, ez-irakasleak eta gurasoak daude, baita jarraipen mintegiak ere. Honako pauso hauek betetzen dituzte:

1. Ikastetxeko ingurumen diagnostia.
2. Ingurumen kohesio plana.
3. Ekintza-plana.
4. Ebaluazioa.

Gero Generalitateko Hezkuntza Sailak *Escola Verda* labela ematen du (plaka bat izaten da). Urtero *Escolas Verdas Forum*-a elkartzen da, urtean behin, esperientziak trukaketzeko.

- *Kantabrian*²⁶ EA21 programa, froga-pilotu moduan, bi zentrotan garatu zen Erkidegoko Ingurumen Sailak bultzatuta, Santanderreko CP Cisneros eta EEI Viveros (2004-05) ikastetxeetan. Cisnerosen oso Ingurumen Batzorde zabala antolatu zen 44 partaiderekin: ikasleak (4), irakasleak, ZT, ez-irakasleak, gurasoak, IH enpresak, ikasle ohiak, erakundeak... Horrez gain, Batzorde Iraunkorra eta hiru azpibatzerde (informazio, kudeaketa eta curriculumari dagozkienak) osatu zituzten. Eta hiru mahai: balioena, osasunarena eta ingurumenarena. Bete zituzten faseak hauexek izan ziren:

1. Diagnostikoa.
2. Planifikazioa.
3. Martxan jarri.
4. Memoria.

Orain, froga pilotu horren ostean eta Hezkuntza Sailak bultzatuta, deialdi bat²⁷ zabaldu da unibertsitatekoak ez diren ikastetxe publikoentzat, hiru urtean (05-08) garatzeko programa baterako. Ezinbestekoa da udala TA21en sartuta egotea eta ez dago diru-laguntzarik. Helburu nagusiak udalerrinari eta ikastetxeari buruzko erabakiak hartzeko mekanismoak sortzea eta TA21eko foroetan parte hartzea dira. Aurten 15 ikastetxe sartu dira. Irakasleek prestakuntza jasotzen dute CIEFPen (Centro de Información Educativa y formación del Profesorado) bitartez. Lantzen diren gaiak kudeaketa iraunkorra, berrikuntza curriculumean eta parte-hartzea dira.

- *Guadalajarako* Diputazioak EA21²⁸ programaren garapena bultzatzen du bere probintzian, ADEAC (Asoc. de EA y del Consumidor) elkartearekin batera, ikastetxe guztiei diru-laguntzak eskainiz/emanez. Esperientzia hori 2004-05 ikasturtean hasi zen 4 ikastetxerekin eta 05-06an 10 ikastetxerekin jarraitu du (aurreko laurak ere barnean direla). Prestakuntza ADEACen eskutik ematen da. Ingurumen Batzordean ikasle, irakasle, gurasoak eta, halakorik badago, erakundeetako ordezkariak elkartzen dira. Osatzen dituzten urratsak hauek dira:

1. Ingurumen Batzordea sortzea.
2. Ingurumen-auditoria egitea.
3. Ekintza-plana: ura, hondakinak eta energia.
4. Portaera-kodea.
5. Jarraipena eta ebaluazioa.
6. Informazioa eta komunikazioa.

²⁵ http://mediambient.gencat.net/esp//ciudadans/educacio_ambiental/escoles_verdes/inici.jsp

²⁶ <http://centros3.pntic.mec.es/cp.cisneros/index.html>

²⁷ <http://www.ciefp-torrelavega.org/acrobat/agenda21.pdf>

²⁸ http://www.dguadalajara.es/agenda21/paginas/ec_que.htm

Programa bete ostean, eta balorazio ona izanez gero, Diputazioak ematen duen Bandera Berdea lor-tzen da.

— *Galizian* unibertsitatekoak ez diren ikastetxeei zuzentzen zaie EA21 programa²⁹ Erkidegoko Ingurumen eta Hezkuntza Sailak bultzatuta, baina diru-laguntza eta prestakuntza berezirik gabe. Gida bat pu-blikatu dute (Bartzelonako gidan oinarrituta), zeinek ekoauditoria baten garapena eta 2004-05 ikas-turtean zehar 6 ikastetxek garatu duten programa azaltzen baitu. Asmoa da, aurrera begira, TA21ekin lotura izatea. Proposatzen diren pausoak hauexek dira:

1. Sentsibilizazioa (talde sustatzailea eta Ingurumen Batzordearen osaketa).
2. Diagnosia (ikastetxeko ingurumen-filosofia, ikastetxearen funtzionamendua: curriculum, ikaste-txearen kudeaketa —ekoauditoria— eta giza giroa eta parte-hartzea).
3. Ekintza.
4. Ebaluazioa adierazleekin.

— *Coruña*ko Udalak³⁰ DBHko 2 mailatarako EA21 programa eskaintzen du. 2002-03 ikasturtean 3 ikas-tetxek eta 300 bat ikaslek hartu zuten parte; 2003-04an, 6 ikastetxek eta 500 ikasle inguruk. Udalak udal teknikariak eta hezkuntza teknikariak, jartzen ditu prestakuntza eta aholkularitzarako. Osatzen dituzten faseak hauexek dira:

1. Informazioa eta deialdia.
2. Ingurumen Batzordea.
3. Motibazioa.
4. Diagnosia.
5. Ekintza-plana (ingurumenaren ikerketa, ikastetxearen ingurumenaren ikerketa eta mugikorta-suna).
6. Jarraipena eta ebaluazioa.
7. Komunikazioa: barrukoa, ikastetxeen artekoa eta ordezkari batzuek TA21eko Foroan izan behar dutena.

Ebaluaziorako Europako adierazleetan oinarritzen dira. Baliabide gisa *Irakaslearen Gida* eta *Ikaslearen koaderno*a erabiltzen dira, baita IHko programak eta udalerriko buletinak ere. *Ikaslearen koaderno*aren barruan «zure aztarna ekologikoa aztertu» atala agertzen da, era egokitu eta erraz batean ga-ratua. Memoriarako gidoi zehatz bat ematen dute.

— *Valentziako* Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntza eta Derrigorrezko eskola askotan *Recicla l'escola* programa garatzen da; adibidez, Castelló lurraldean, 50 zentrok baino gehiagok hartzen dute parte. Helburua ez da bakarrik eskolako ingurumen-kudeaketa hobetzea, baizik eta iraunkortasunaren aldeko ekintzak sustatzea. Ikastetxeetako hezkuntza komunitateari zuzenduta dago, baita Udalarari eta tokiko pertsona eta elkarte guztiei ere.

Programaren babes ekonomikoa Caja de Ahorros del Mediterráneoek hartzen du bere gain, eta for-mazioa, aholkularitza eta jarraipena, Alcoy, Gandía eta Torrent-eko CEFIREk (*Centros de formación y recursos educativos*; hemengo Berritzeguneen parekoak).

Oinarri moduan Eskolako Ekoauditoria burutzen dute: ikastetxearen ingurumen errealitatea ezagutzea, ekintza plana diseinatu eta burutu eta abar. Hori guztia Ingurumen Batzordeak zuzentzen du eta to-kiko harremana udaleko ordezkariaren bidez bideratzen dute.

Jasotako informazioen artean beste programa batzuk ere agertzen dira EA21 izenarekin, baina ez ditugu aurrekoetan sartu herri edo hiriarri lotutako ekimen zuzenik ez dagoelako edo horren nahia ere adierazten ez delako. Hona hemen adibide batzuk:

— *Nafarroan* eskoletan TA21 garatzeko gida-zirriborro bat dago bakarrik (Bartzelonako eta Euskadiko gidetatik egokitua). HH, LH eta DBHn garatzeko proposamena da. Ingurumen Sailak bultzatzen du. Planteatzen dituzten faseak:

²⁹ <http://www.xunta.es/conselle/cma/GL/CMA07g/CMA07ga/Axenda21.pdf>

³⁰ http://www.edu.aytolacoruna.es/aprender_en_coruna_05_06/programas_2005_06/programas_educativos_de_otros_servicios_municipales/educacion_ambiental#agenda

1. Konpromisoaren sinadura (udala eta eskola).
2. Informazioa eta sentsibilizazioa.
3. Ingurumen Batzordea,
4. Aurre-diagnostikoa (azterketa orokorra gaia aukeratzeko).
5. Diagnostikoa (curriculum proiektua eta programazioak, hezkuntza proiektua, ikastetxeko azpiegiturak eta hezkuntza komunitatearen ohiturak).
6. Ekintza-plana.
7. Ebaluazioa eta jarraipena (adierazleak: Europako adierazle komunetan eta Nafarroako adierazleetan oinarrituta. Ikastetxeen arteko jardunaldi eguna).
8. Emaizten komunikazioa.
9. Parte hartzea (besteak beste: udal foroan parte hartzea; ikasle ohiak, ikastetxea erabiltzea giza ekintzetarako...).

Ebaluaketarako adierazleen erabilera proposatzen dute. Egilea IHko enpresa bat, lau ikastetxek baliatuta (baina ez frogatuta). Oraindik ez dago martxan, eta, oraindik behintzat, baliabide bakarra egiten ari diren gida da.

— *Asturiasen* une honetan ez da EA21 programa garatzen, baina bai aipamen bat merezi duela. 2001-04 bitarteko ikasturteetan *Econet 21* europar proiektua garatu zen, Comenius-Socrates programa barruan finantzatuta, Finlandiako Helsinkiko Unibertsitatearen, Galeseko *Education School Improvement Service*-ESIS-en (Eskola Hezkuntzaren Hobekuntzarako Zerbitzua), Portugaleko *Associação Portuguesa de Educação Ambiental*-ASPEA-ren (Portugaleko IHko Elkarte) eta Oviedoko *Centro de Profesorado y Recursos*-en (Irakasle eta Baliabide Zentroa) partaidetzarekin, azken hori guztien koordinatzaile izanik. Proiektu horrek *Guía europea para la elaboración de agendas escolares ambientales*³¹ (Ingurumen Hezkuntza egiteko europar gida) atera zuen 2004an. Gida hori irakasleei, aholkulariei, ikuskariei eta IHko enpresetako kideei zuzenduta dago. Hiru ataletan banatuta dago: kontzeptuak eta hiztegia (IH, iraunkortasuna, EMAS...), ekoauditoria bat egiteko ideiak eta pausoak, eta esperientzia eredugarri batzuk.

— *Madrilgo* esperientzia zeharo bestelakoa da. Bertan garatzen den *Agenda Escolar 21ek*³² ez dauka zerikusirik aurreko esperientziekin. Madrilen ez ezik Segoviako ikastetxe batzuetan ere garatu da aipatutako programa. Programa hori Madrilgo Autonomia Erkidegoko Ingurumen Sailak sortua da, FIDAK (Fundación para la Investigación y el Desarrollo Ambiental) gainbegiratua eta Caja Madrid-eko Gizarte Ekintzak kofinantzatua. Madrilgo TA 21en beraren azpiegituraren eta elementuen prozesu integratzailea garatu nahi du, LHko 5. eta 6. mailetan. *Soluciones para el Medio Ambiente*-SMA enpresak garatzen du ikasturte batean. Aurten 600 ikasle inguruk hartu dute parte. Jarraitzen dituzte urratsak hauek dira:

1. Zentroen hautaketa, eskualdeka, CMen partetik. Herri mailako kontaktuak (SMA).
2. Motibazio fasea: Aalborg-eko gutunaren sinaduraren simulazioa.
3. Ingurumen-arazoaren identifikazioa eta kausak.
4. Diagnostikoa jarduera batzuen bitartez eta nagusien kontseiluaren laguntzarekin (herriko edo auzoko jubilatuak).
5. Hobekuntzarako proposamenak eta konpromisoak.
6. Ebaluazioa eta memoria bat: programaren jarraipena egiteko eta ikasle, guraso, irakasle eta begiraleen ebaluazio galdetegi batzuen bitartez.

Ikasleek egiten duten diagnostikoa udaleko TA21eko diagnostikoan erabiltzeko egiten da. Errealitatean IHko programa bat eskaintzen zaie aukeratutako eskolei.

— *Gaztela-Mantxa Erkidegoan* ere antzeko proiektua garatzen ari da aurten Toledo, Talavera de la Reina, Torrijos, Ocaña, Illescas, Madrیدهjos, Consuegra eta Los Yébenes udalerrietan. Antolakuntza bera dute eta enpresa berak garatzen ditu.

³¹ <http://www.econet21.org/es/productos/guia.pdf>

³² http://www.obrasocialcajamadrid.es/ObraSocial/os_cruce/0,0,70118_1074738_0_0,00.html

- *Lanzaroten, Asociación Para el Desarrollo Rural de Lanzarote-ADERLAN* erakundeak, 2005-2006 ikasturte honetan eta HH eta LHko ikastetxeetan, *Educación Para el Desarrollo Sostenible: Bases Para una Agenda Escolar 21* programa martxan jarri du. IHko proiektua da, Biosfera Erreserba eta haren garapen iraunkorraren ezaguera eta balorazioa helburutzat dituena. Ikastetxeetan egiten diren tailer batzuetan eta irteeretan oinarritzen da.
- *Aranda de Duero* Udaleko Ingurumen Sailak udalerriko ikastetxeei eskaintzen die EA21 programa³³. *Ciudades vivas, ciudades con futuro* IHko programa barruan dago, ikasturte honetan 8 zentro (herriko %90) daude programan murgilduta eta diru-laguntzak jasotzen dituzte. Centro Nacional de Educación Ambiental-Ceneam-eko eta gaikako udal teknikarien laguntzarekin kontaktzen dute. Ez da osatzen Ingurumen Batzordea. Faseak:
1. Deialdia.
 2. Klaustroak onartu eta koordinatzailea bat izendatu.
 3. Formazioa.
 4. Ikasleak motibatu (goiz bat IHko enpresa batek).
 5. Ikasgelako lana (sailak egindako fitxekin) ekoauditoria egiteko.
 6. Ekintza eta hobekuntza plana.
 7. Ekimena.

2.5. SAREAK

Sarea giza eskala txikiko jardueren antolakuntza mota arruntena da. Gizakiak betidanik sarean lan egin du tokiko inguruetan.

Sarean lan egiteak, erakundeen barnean lan egiteko modu berezi bat sustatzeaz gain, erakundeen arteko harremana eta lankidetzat bultzatzeko ere balio du. Koordinazioa baino gehiago, artikulazio komunitarioa da. Lan mota horren ezaugarriak, besteak beste, hauexek dira: horizontaltasuna, sinergia, autonomia, parte-hartzea, konpromisoa...

Sareko lana oso lan mota efektiboa da informazioa konpartitzeko, besteengandik ikasteko, elkarrekin lan egiteko...

Garapen iraunkorrerako hezkuntzan ere, maila askotan, hainbat esperientzia eta lan etekin gehiago ateratzeko sareak osatzen dira.

Nazioarte mailan: UNESCOrekin Elkartutako Eskolen Nazioarteko Sarea³⁴ (ASPnet: Associated Schools Project Network) 1953an sortutako hezkuntza-programa bat da. Esperientzia, proiektu eta material didaktikoaren trukea erraztu eta bultzatu nahi du mundu osoko ikastetxeen artean. Lau gai ditu oinarrian: giza eskubideak eta demokrazia, kulturen arteko hezkuntza, ingurumenaren babesa eta munduko arazoak eta Nazio Batuen sistemaren zeregina.

Gaur egun, hainbat motatako eta mundu osoko 7.500 ikastetxek baino gehiagok osatzen dute UNESCOrekin Elkartutako Eskolen Nazioarteko Sarea. Ikastetxe horiek guztiak UNESCOren Parisko egoitzan koordinatzen dira.

Beste batzuk hauek dira: OIE (Unescoko Institutua den Hezkuntzarako Nazioarteko Bulegoa)³⁵; EcGlobal Response-Young Environmentalists Action (YEA)³⁶, Earth Action³⁷, Earth Force-Global Rivers Environmental Education Network (GREEN)³⁸...

³³ http://www.arandadeduero.es/seccion.asp?id_seccion=165&id_concejalia=38

³⁴ http://www.unescoeh.org/base/hezkuntza.php?id_atala=4&id_azpiatala=380&hizk=eu&id_kont=614

³⁵ <http://www.ibe.unesco.org/Spanish/aboutIBE.htm>

³⁶ <http://globalresponse.org/kidsactions.php>

³⁷ <http://earthaction.org/es/index.html>

³⁸ <http://www.green.org/>

Latinoamerikan: Redes Académicas de Latinoamerica³⁹, Meni Sarea⁴⁰, Club de Colegios sostenibles⁴¹, Red de Escuelas Verdes (hainbat estatutan)...

Aipatzekoa da *Agenda 21 NOW!*⁴², Interneten bidez gazteentzat (14 urtetik gora) egiten den nazioarteko konferentzia bat. Alemaniako Unescoko ASPnet-eko proiektu pilotua da⁴³.

Europa mailan: Red Europea Touch de EA; Environment and School Initiatives (ENSI)⁴⁴, Comenius Sareak⁴⁵, School Environmental Education Development (SEED), Green Teachers Network⁴⁶ (irakasleentzat)...

Estatu mailan: Red de Centros con Agenda 21 Escolar (Bartzelona), Red de escuelas verdes⁴⁷ (Katalunian), Red de escuelas solares⁴⁸, Red Andaluza de Ecoescuelas⁴⁹, Red de Ecocentros⁵⁰...

EAEEn ez dago une honetan inolako sarerik, baina ikusten da oso interesgarria dela elkarlanerako eta esperientzien trukaketarako. Sare honetan hezkuntza komunitatearen estamentu bakoitzak bere esparrua izan beharko luke.

³⁹ <http://www.educoea.org/portal/links.aspx?culture=es&navid=25>

⁴⁰ <http://www.omco.org/meni/resumen.htm>

⁴¹ http://www.conam.gob.pe/documentos/EAMBIENTAL/certificacion/Sistema_certificacion.doc

⁴² <http://www.agenda21now.org/index.php?section=home>

⁴³ <http://www.ups-schulen.de/index-e.html>

⁴⁴ <http://www.ensi.org/>

⁴⁵ http://europa.eu.int/comm/education/programmes/socrates/comenius/index_es.html

⁴⁶ <http://www.ecotopia-educacion.org>

⁴⁷ www.mediambient.gencat.net

⁴⁸ <http://redsolar.greenpeace.org/red.htm>

⁴⁹ <http://www.juntadeandalucia.es/medioambiente/site/web/>

⁵⁰ <http://aym.juntaex.es/medioambiente/conservacion/ambiental/ecocentros/red.htm>

III. ERANSKINA. IKERKETAN ERABILITAKO TRESNAK

3.1. PROZEDURA

IKG eta KG2 galdetegiak

Lagineko ikastetxeei ikerketaren berri eman zaie gutun baten bitartez, eta aholkularien laguntzarekin iritsi gara interesatuengana.

Galdetegiak ikastetxeetara postaz bidali ziren. Erabilitako prozedura hauxe izan zen:

1. Gutunazal handi batean beste 6 gutunazal zuri eta, bakoitzaren barruan, honako hauentzako galdetegiak:
 - Koordinatzailearentzako galdetegia.
 - 5 irakasleentzako galdetegi bana.
 - 5 ikasleentzako galdetegi bana.
 - 5 gurasoentzako galdetegi bana.
 - Langile ez irakasleak (galdetegi bat).
 - Gutunazal handi frankeatu bat.
2. Galdetegiak betetzeko Ingurumen Batzordeko hainbat kideri dagokien gutunazala eman; hau da, irakasle bati, ikasle bati, guraso bati eta langile ez irakasle bati. Horiek beren gutunazalaren ardura-dunak izango dira.
3. Arduradun bakoitzak programan inplikatura dauden beste lau lagunei galdetegi pasatu. Adibidez, ikasle batek beste lau ikasle pasatzen die galdetegi bat osatzeko. Guraso batek beste lau ordezkari. Asmoa zen agente talde bakoitzaren 5 galdetegi betetzea; baina lortzen direnak, nahiz eta gutxiago izan, eskertzen dira berdin.
Oharra: irakasleen artean komenigarria zen EA21 programaren jarraipenean dagoen zuzendaritzako taldekide batek, mintegiburu batek eta beste irakasleren batek galdetegi bana osatzea.
4. Astebeteko epea eman zen galdetegiak betetzeko.
5. Galdetegiak bete ondoren arduradunak gutunazal bereberean sartu eta itxi. Gero, epe barruan, koordinatzaileari eman.
6. Koordinatzaileak zigilua daukan gutunazalean jasotako bost gutunazalak sartu eta korreoz bidali (helbidea jarrita dago).

KG1 galdetegia

Koordinatzaileentzako ikastaroan edo koordinazio bileretan osatuta eta jasota.

Beste galdetegiak

Posta elektronikoz bidalita.

Esan beharra dago, galdetegiak guztiz konfidentzialak zirela, bakarrik ikerketa taldeak analisi kuantitativoa egiteko erabiliko zituela eta behean sinatzen genuenok konprometitzen ginela konfidentziasun hori gordetzen.

Galdetegiak jaso, ordenatu eta sailkatu galdetegi motaren arabera edo lagineko geruzen arabera: sarea, etapa, tamaina eta urteak programan.

AG1

AHOLKULARIENTZAKO 1. GALDETEGIA

Mesedez, bete ezazu gurutze batez edo erantzuten:

1. Zenbat zonalde (Udaltaldea, Udalsarea...) koordinatu dituzu ondoko ikasturteetan?

- 2003-04 ikasturtea
- 2004-05 ikasturtea
- 2005-06 ikasturtea

2. Zenbat ikastetxe koordinatu dituzu ondoko ikasturteetan?

- 2003-04 ikasturtea
- 2004-05 ikasturtea
- 2005-06 ikasturtea

3. Horietatik zenbatek sinatu dute ikasturtean zehar konpromisoa udalekin?

- | Ikasturte hasieran | | Ikasturte amaieran | |
|------------------------------|--------------------------|------------------------------|--------------------------|
| 2004-05 ikasturtea | <input type="checkbox"/> | 2004-05 ikasturtea | <input type="checkbox"/> |
| 2005-06 ikasturtea | <input type="checkbox"/> | 2005-06 ikasturtea | <input type="checkbox"/> |

4. Adieraz ezazu aurreko ikasturtean koordinatzen dituzun ikastetxeek egin zuten batez besteko audientzien (edo foroen edo alkate eta zinegotziekin bileren...) kopurua

- 1 audientzia
- 2 audientzia
- >2 audientzia

5. Zein da zure gogobetetze maila enpresetako teknikariek egindako lanarekin?

- Oso eskasa
- Eskasa
- Nahikoa
- Ona
- Oso ona

6. Zenbat ordu erabili dituzu ikastetxean prestakuntzarako ikasturte guztietan? Kontuan har ditzakezu ondo-koak: 10 orduko ikastaroak, 40 orduko ikastaroak, prestakuntza klaustroetan... (Ez gehitu aholkularitzarako eta informaziorako erabili dituzunak)

| | 03/04 | 04/05 | 05/06 |
|-------------------------------|--------------------------|--------------------------|--------------------------|
| 0-20 ordu. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 21-40 ordu. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 41-60 ordu. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 61-80 ordu. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 80 ordu. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Ez daki / Erantzunik ez. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |

7. Zuk aurten koordinatzen dituzun ikastetxeetatik zenbatak hartu dute parte ondoko ikastaroetan?

- 10 orduko ikastaroa
- 40 orduko ikastaroa

8. Zuk aurten koordinatzen dituzun ikastetxeetatik zenbat irakaslek hartu dute parte ondoko ikastaroetan?

- 10 orduko ikastaroa
- 40 orduko ikastaroa

9. Adieraz ezazu aurreko ikasturtean koordinatu zenituen ikastetxeekin bakarka egindako batez besteko bileren kopurua

- 1-3 bilera
- 4-6 bilera
- 7-9 bilera
- > 9 bilera

10. Adieraz ezazu aurreko ikasturtean koordinatu zenituen ikastetxeak elkartuta egindako batez besteko bileren kopurua

- 1-3 bilera
- 4-6 bilera
- 7-9 bilera
- >9 bilera

11. Adieraz ezazu ikastetxeek eskatutako zenbat kontsulta izan dituzun EA21 programarekin erlazionatuta aste bakoitzeko

- 0-1 kontsulta
- 2-3 kontsulta
- 4-5 kontsulta
- > 5 kontsulta

12. Adieraz itzazu EA21 programarekin erlazionatuta jasotzen dituzun kontsulta motak (hiru gehienez)

- 1.
- 2.
- 3.

13. Nola baloratzen dituzu Ingurugelek programarako eskaintzen dituzten materialak? (EA21eko Gida; EA21eko CDa; Ingurugelaren karpetak: bioaniztasuna, ura...; IHOBEn argitalpenak; «on-line» foroetan eskaintzen diren materialak...)

| | Kopurua | Erabilgarritasuna | Gogobetetze maila |
|-----------------|--------------------------|--------------------------|--------------------------|
| Oso eskasa..... | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Eskasa..... | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Nahikoa..... | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Ona..... | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Oso ona..... | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |

14. Nola baloratzen duzu Ingurugelek programarako eskaintzen duten aholkularitza?

| | Sakontasun maila | Egokitasuna | Gogobetetze maila |
|-----------------|--------------------------|--------------------------|--------------------------|
| Oso eskasa..... | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Eskasa..... | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Nahikoa..... | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Ona..... | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Oso ona..... | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |

15. Zer proposatuko zenuke aholkularitza hori hobetzeko?

- 1.
- 2.
- 3.

16. Ingurugelek EA21en garapena ikastetxeetan ebaluatzen dute?

- Bai.....
- Ez.....

17. Ezetz erantzun baduzu, adieraz itzazu zergatiak:

1.
2.
3.
4.

18. Zer proposatuko zenuke ikastetxeek programaren inguruan egindako lanaren ebaluazioa hobetzeko?

1.
2.
3.
4.

19. Adieraz ezazu programa garatzeko Ingurugeletako teknikarien artean izaten den koordinazioaz duzun gogobetetze maila

- Oso eskasa.....
- Eskasa.....
- Nahikoa.....
- Ona.....
- Oso ona.....

20. Zein neurri proposatuko zenuke koordinazioa hobetzeko?

1.
2.
3.
4.

21. Adieraz ezazu aurten koordinatzen dituzun ikastetxeek aukeratu duten gaia

| GAIA | KOP. |
|--------------------------------|--------------------------|
| Hondakinak | <input type="checkbox"/> |
| Energia | <input type="checkbox"/> |
| Ura | <input type="checkbox"/> |
| Papera | <input type="checkbox"/> |
| Biodibertsitatea | <input type="checkbox"/> |
| Mugikortasuna | <input type="checkbox"/> |
| Kontsumoa | <input type="checkbox"/> |
| Ikastetxearen giroa | <input type="checkbox"/> |
| Beste batzuk (adierazi): | |
| | |

22. Aurten koordinatzen dituzun ikastetxeetako gaiak, zein ehunekotan datoz bat TA21 en garatzen ari direnekin?

| | |
|---------------|--------------------------|
| % 0- 20 | <input type="checkbox"/> |
| %21- 40 | <input type="checkbox"/> |
| %41- 60 | <input type="checkbox"/> |
| %61- 80 | <input type="checkbox"/> |
| %81-100 | <input type="checkbox"/> |

23. Aurten koordinatzen dituzun ikastetxeen artean, zenbat ari dira gaia lantzen bi urte jarraian?

.....

24. Adieraz ezazu aurreko ikasturtean zenbat aldiz bildu zinen koordinazio bileretan ikastetxeetako koordinatzaileekin

| | |
|------------------|--------------------------|
| 1-3 bilera | <input type="checkbox"/> |
| 4-6 bilera | <input type="checkbox"/> |
| 7-9 bilera | <input type="checkbox"/> |
| > 9 bilera | <input type="checkbox"/> |

25. Nola baloratzen duzu foro birtualen erabilpena ikastetxeen aldetik?

| | |
|------------------|--------------------------|
| Oso eskasa | <input type="checkbox"/> |
| Eskasa | <input type="checkbox"/> |
| Nahikoa | <input type="checkbox"/> |
| Ona | <input type="checkbox"/> |
| Oso ona | <input type="checkbox"/> |

26. Zein da koordinatzaileen lanarekiko duzun gogobetetze maila

- Oso eskasa
- Eskasa
- Nahikoa
- Ona
- Oso ona

27. Adieraz itzazu ikastetxeek programan sartzeko aurkitu dituzten zailtasunak:

1.
2.
3.

28. Seinala ezazu X baten bitartez zein ikastetxe motatan aurkitzen diren zailtasunik handienak EA21 programa garatzeko:

- | Publikoa | | Hitzarmendua | |
|---------------------|--------------------------|---------------------|--------------------------|
| LH | <input type="checkbox"/> | LH | <input type="checkbox"/> |
| DBH | <input type="checkbox"/> | DBH | <input type="checkbox"/> |
| Integrala | <input type="checkbox"/> | Integrala | <input type="checkbox"/> |

29. Partaidetza sustatzeko, zein estamentutan aurkitu duzu zailtasunik handiena?

- Ikasleak
- Irakasleak
- Gurasoak

30. Zein dira, zure ustez, zailtasunen arrazoirik garrantzitsuenak?

1.
2.
3.

31. Partaidetza bultzatzeko, zein neurri proposatuko zenuke estamentu bakoitzeko?

- Ikasleak
- Irakasleak
- Gurasoak

32. Koordinatzen dituzun ikastetxeen zein ehunekok egiten du pasa den urtean hartutako konpromiso nagusien jarraipena? (horretarako, kontuan hartu programan urtebetetik gora daramaten ikastetxeak)

- % 0- 20.....
- %21- 40.....
- %41- 60.....
- %61- 80.....
- %81-100.....

33. Jarraipena egiten duten ikastetxeetan, zeinek du horren ardura?

- Ingurumen Batzordea
- Koordinatzailea.....
- Zuzendaritza
- Horretarako sortutako erakunde bat
- Beste bat (adierazi)

34. Adieraz ezazu programarekiko gogobetetze maila

- Oso eskasa.....
- Eskasa.....
- Nahikoa.....
- Ona.....
- Oso ona.....

35. Zure ustez, ikastetxeek garatzen dituzten Berrikuntza Proiektuak EA21 programa barruan lekua daukate?

- Bai.....
- Ez.....

36. Zein arazo ikusten dira hori garatzeko:

- 1.
- 2.

37. Etorbizunerako, programaren hobekuntzarako zein proposamen egingo zenituzke? (Gehienez bi atal bakoitzeko)

Ikastetxeetarako (hiru urte egindakoan ziurtagiriren bat ematea...)

1.

2.

Ingurugela ezberdinetarako (teknikari gehiago izatea...)

1.

2.

Instituzioetarako (sail bien arteko koordinaziorako eremua zehaztea...)

1.

2.

Mila esker zure laguntzagatik

CG

INGURUGELETAKO ZUZENDARIENTZAKO GALDETEGIA

*OHARRA: galdetegi honetako galdera batzuk AG1en ere agertzen dira.
Nahi izanez gero, ez erantzun bietan.*

1. Adieraz ezazu Ingurugelek programarako sortu dituzten materialen kopurua (kontuan hartu bakarrik programari zuzenean lotuta daudenak)

.....

2. Zein da zure gogobetetze maila Ingurugelek programarako sortu dituzten materialei dagokienez?

- Oso eskasa.....
- Eskasa.....
- Nahikoa.....
- Ona.....
- Oso ona.....

3. Seinala itzazu zure ustez programa hobetzeko sortu beharko liratekeen material berriak

1.
2.
3.

4. Adieraz ezazu, X baten bitartez, Ingurugelek programarako erabili duten denboraren ehunekoa ikasturte bakoitzeko. Azkeneko ikasturterako, saia zaituz proiektzio bat egiten

| | %0-20 | %21-40 | %41-60 | %61-80 | %81-100 |
|-----------------------|--------------------------|--------------------------|--------------------------|--------------------------|--------------------------|
| 2003-04 ikasturtea... | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 2004-05 ikasturtea... | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 2005-06 ikasturtea... | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |

5. Adieraz ezazu programa garatzeko Ingurugeletako teknikarien artean izaten den koordinazio orduen kopurua hilabete bakoitzeko

- Ingurugela bakoitzaren koordinazio orduak.....
- Ingurugela guztien arteko koordinazio orduak.....

6. Adieraz ezazu programa garatzeko Ingurugeletako teknikarien artean izaten den koordinazioaz duzun gogobetetze maila

- Oso eskasa
- Eskasa
- Nahikoa
- Ona
- Oso ona

7. Zer neurri proposatuko zenuke koordinazioa hobetzeko?

1.
2.
3.

8. Adieraz ezazu Ingurugeletako teknikariek euren prestakuntzarako erabili duten batez besteko ordu kopurua gutxi gorabehera. Erantzuteko, kontuan hartu bakarrik programarako erabili diren orduak, ordutegi barruan eta kanpoan

| | Orduak |
|------------------------------|----------------------|
| 2003-04 ikasturtea | <input type="text"/> |
| 2004-05 ikasturtea | <input type="text"/> |
| 2005-06 ikasturtea | <input type="text"/> |

EG

TEKNIKARIENTZAKO GALDETEGIA

Galdetegi honekin Eskolako Agenda 21 (EA21) programaren esperientzia ezagutu nahi dugu, bai pasa den ikasturtekoa, bai ikasturte honetakoa.

Horretarako, mesedez, markatu x batekin edo erantzun galdera hauek.

1. Adieraz ezazu zein den zure kontratuaren iraupena?

| | |
|-----------------------------------|---|
| Urtebete baino gutxiago | 1 |
| Urtebete. | 2 |
| Urtebete baino gehiago | 3 |

2. Adieraz ezazu zein den zure kontratuaren izaera:

| | |
|--|---|
| Udal teknikaria. | 1 |
| Udaletxeek edo mankomunitateek kontratatutako enpresa batekoa. . . | 2 |
| Bekaduna | 3 |
| Europako funtsetakoa. | 4 |
| Beste bat (azal ezazu): | 5 |

3. Seinala ezazu ikastetxeetako koordinatzaileekin bakarka egin duzun bileren kopurua aurreko ikasturtean

| | 1-3 bilera | 4-6 bilera | 7-9 bilera | > 9 bilera | Ez daki/ Erantzunik ez |
|--|------------|------------|------------|------------|---------------------------|
| | | | | | |

4. Seinala ezazu ikastetxeetako koordinatzaileak elkartuta egin duzun bileren kopurua aurreko ikasturtean

| | 0-2 jard. | 3-5 jard. | 6-8 jard. | > 8 jard. | Ez daki/ Erantzunik ez |
|--|-----------|-----------|-----------|-----------|---------------------------|
| | | | | | |

5. Adieraz ezazu zenbat jarduera prestatu edo bideratu dituzun dagozkizun ikastetxeentzat aurreko ikasturtean

6. Adieraz ezazu zenbat jarduera prestatu edo bideratu dituzun dagozkizun udalerrietan aurreko ikasturtean

| | 0-2 jard. | 3-5 jard. | 6-8 jard. | > 8 jard. | Ez daki/ Erantzunik ez |
|--|-----------|-----------|-----------|-----------|---------------------------|
| | | | | | |

7. Esan ezazu nolakoak diren aurreko ikasturtean ikastetxeentzat prestatu edo bideratu dituzun jarduerak

| | |
|------------------------------------|---|
| Ibilbideak | 1 |
| Irteerak | 2 |
| Praktikak | 3 |
| Edukien egokitzapena | 4 |
| Hitzaldiak | 4 |
| Erakusketak | 5 |
| Beste batzuk (adierazi): | 7 |
| Ez daki / Erantzunik ez | 0 |

8. Esan ezazu nolakoak diren aurreko ikasturtean udalerrietan prestatu edo bideratu dituzun jarduerak

| | |
|--|---|
| Ibilbideak | 1 |
| Irteerak | 2 |
| Ingurumena hobetzeko kanpainak (ibaia garbitu, zuhaitzak landatu...) | 3 |
